

EKIALDEA BIGARREN  
HEZKUNTZAKO  
INSTITUTUAREN  
ANTOLAKUNTZA ETA  
JARDUERA ARAUDIA

2009

# AURKIBIDEA

## **ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

1. artikulua.- Ekialdea BHIren izena, irakaskuntzak eta izaera. 1

## **I. TITULUA: EKIALDEA BHIren ANTOLAKETA-DEFINIZIOA.**

### **I. KAPITULA.- XEDAPEN OROKORRAK.**

2. artikulua.- Gobernu-organoak. 1  
3. artikulua.- Hezkuntza-erkidegoaren parte-hartzea. 2  
4. artikulua.- Koordinazio didaktikoko organoak. 2  
5. artikulua.- Gobernu-, parte hartzeko eta koordinazio didaktikoko organoek jarduteko printzipioa. 2

### **II. KAPITULUA: KIDE ANITZEKO GOBERNU-ORGANOAK**

#### **1. atala: Ordezkaritza Organo Gorenari (OOG) buruzkoa.**

6. artikulua.- OOGren definizioa eta izena. 2  
7. artikulua.- Eskola Kontseilua aukeratu eta berritzeko prozesua. 4  
8. artikulua.- Eskola Kontseiluan hutsuneak betetzeko prozedura. 4  
9. artikulua.- Eskola Kontseiluko kideen osaketa aldatzeko prozedura. 4  
10. artikulua.- Eskola Kontseiluko kideak aukeratzeko egutegia. 5  
11. artikulua.- Hauteskunde Batzordea. 5  
12. artikulua.- Erreklamazioak. 5  
13. artikulua. Aukeratzeko baldintzak. 5  
14. artikulua.- Botoaren ezaugarriak. 6  
15. artikulua.- Irakasleen ordezkariak Eskola Kontseiluan aukeratzeko prozesua. 6  
16. artikulua.- Gurasoen ordezkariak Eskola Kontseiluan aukeratzeko prozesua. 6  
17. artikulua.- Ikasleen ordezkariak Eskola Kontseiluan aukeratzeko prozesua. 7  
18. artikulua.- Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren ordezkariak Eskola Kontseiluan aukeratzeko prozesua. 7  
19. artikulua.- Botoen zenbaketa. 8  
20. artikulua.- Eskola Kontseilu berriaren osaketa. 8  
21. artikulua. Hutsuneak Eskola Kontseiluan. 8  
22. artikulua.- Eskola Kontseiluaren funtzionamendu-araudia. 8  
23. artikulua.- Kontseiluburuaren eskuduntzak. 9  
24. artikulua.- Kontseiluko kideen eskuduntzak. 9  
25. artikulua.- Idazkariaren eskuduntzak. 9  
26. artikulua.- Saioen erregimena. 11  
27. artikulua.- Eskola Kontseiluko batzordeak. 11  
28. artikulua.- Batzorde Iraunkorra. 11  
29. artikulua.- Batzorde Ekonomikoa. 12  
30. artikulua.- Segurtasun eta Higiene Batzordea. 12  
31. artikulua.- Elkarbizitza Batzordea. 13  
32. artikulua.- Batzorde guztientzako arauak. 13  
2. atala: Irakasleen klaustroari buruzkoa.  
33. artikulua.- Irakasleen klaustroaren izaera, osaketa eta eskuduntzak. 14  
34. artikulua.- Irakasleen klaustroak funtzionatzeko erregimena. 14  
35. artikulua.- Klaustroko batzordeak. 15  
3. atala: Zuzendaritza-taldeari buruzkoa.  
36. artikulua.- Zuzendaritza-taldea. 15  
37. artikulua.- Zuzendaritza-taldearen funtzio eta eskuduntzak. 16

### **III. KAPITULUA.- KIDE BAKARREKO GOBERNU-ORGANOAK.**

38. artikulua.- Zuzendaria. 16  
39. artikulua.- Ikasketa-burua. 17  
40. artikulua.- Idazkaria. 17

41. artikulua.- Kide bakarreko gobernu-organoak izendatu eta kargugabetzeko proposamenak.	18
42. artikulua.- Zuzendaritza-taldeko kideen ordezkapena.	18
<b>IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA-KOORDINAZIORAKO ORGANOAK.</b>	
43. artikulua.- Ekialdea BHIren koordinazio-organoak.	18
1. atala: Orientabide departamentua.	
44. artikulua.- Orientabide departamentuaren osaketa.	18
45. artikulua.- Orientabide departamentuaren funtzioak.	19
46. artikulua.- Orientabide departamentu buruaren izendapena.	19
2. atala: Didaktika-departamentuak.	
47. artikulua.- Didaktika-departamentuen izaera eta osaketa.	19
48. artikulua.- Didaktika-departamentuen eta departamentu buruen funtzioak eta eskuduntzak.	20
49. artikulua.- Ekialdea BHIko didaktika-departamentuen kopurua eta izena.	20
50. artikulua.- Didaktika-departamentuetako buruen izendapena.	20
3. atala: Koordinazio pedagogikorako batzordea.	
51. artikulua.- Koordinazio pedagogikorako batzordearen osaketa.	20
52. artikulua.- Koordinazio pedagogikorako batzordearen eskuduntzak.	20
4. atala: Zuzendaritzaren Aholkularitza Batzordea.	
53. artikulua.- Zuzendaritzaren Aholkularitza Batzordea.	21
5. atala: Taldeko tutoretzak eta irakasle-taldeak.	
54. artikulua.- Tutoretzak eta tutoreen izendapena.	22
55. artikulua.- Tutoreen funtzioak.	22
56. artikulua.- Taldeko irakasle-taldearen osaketa eta erregimena.	22
57. artikulua.- Taldeko irakasle-taldearen funtzioak.	22
58. artikulua.- Koordinatzeko beste era batzuk.	22
<b>V. KAPITULUA. ESKOLA-JARDUERAREN KANPO EREMUA</b>	
59. artikulua.- Ikasleen kontrola.	23
60. artikulua.- Zaintza-irakasleak.	23
61. artikulua.- Liburutegia eta haren erabilpena.	23
62. artikulua.- Irakasleen lanak banatzea.	24
63. artikulua.- Ordutegiak aditzera ematea.	24
64. artikulua.- Lokalen eta ekipamenduaren erabilpena.	24
65. artikulua.- Eskola-esparrutik irtetea.	24
<b>VI. KAPITULUA. PARTE HARTZEKO ORGANO ESPEZIFIKOAK.</b>	
1. atala: Ikasleek parte hartzeko organo espezifikoak.	
66. artikulua.- Parte hartzeko organo espezifikoak.	25
67. artikulua.- Ikasleek parte hartzeko organo espezifikoak.	25
68. artikulua.- Taldeko delegatuak.	25
69. artikulua.- Taldeko delegatuen funtzioak.	25
70. artikulua.- Delegatuen batzordearen osaketa eta funtzionamendu-araudia.	26
71. artikulua.- Delegatuen batzordearen funtzioak.	26
2. atala: Gurasoen asanblada, ikasleen gurasoen elkarteak eta ikasleen elkarteak.	
72. artikulua.- Gurasoen asanblada.	26
73. artikulua.- Ikasleen gurasoen elkarteak eta ikasleen elkarteak.	27
74. artikulua.- Legez eraturako elkarteen bidez parte hartzea.	27
<b>III. TITULUA: ELKARBIZITZAREN ARAUAK.</b>	
<b>I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK.</b>	
75. artikulua.- Elkarbizitzaren oinarriak.	28
76. artikulua.- Elkarbizitza-plana.	28
77. artikulua.- Eskubideen berehalako babesak.	28
78. artikulua.- Eginbeharrak betetzeko bermea.	28

<b>II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK GAUZATZEKO BERMEA.</b>	
79. artikulua.- Ikasleen eskubideak babesteko irakasleen inplikazioak.	28
80. artikulua.- Kalitateko irakaskuntza oso bat jasotzeko eskubidea	29
81. artikulua.- Aukera-berdintasuna bermatuko duen eskola orekatzaile baten eskubidea.	29
82. artikulua.- Arreta berehala jasotzeko adin txikiko ikasleen eskubideak.	30
83. artikulua.- Adin txikiko ikasleen babesa.	30
84. artikulua.- Errendimendu akademikoa era objektiboan baloratzeko eskubidea.	31
85. artikulua.- Kontzientzia-askatasunaren eskubidea.	31
86. artikulua.- Pertsonaren osotasun, identitate eta duintasunaren eskubidea.	31
87. artikulua.- Eskola- eta lanbide-orientabidea jasotzeko eskubidea.	32
88. artikulua.- Biltzeko, elkartzeko eta adierazteko eskubidea.	33
89. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea.	35
90. artikulua.- Gizarte-bermerako eskubidea.	36
91. artikulua.- Ikasleen eskubideak errespetatuko direla bermatzea.	36

<b>III. KAPITULUA. EGINBEHARRAK BETEKO DIRELA BERMATZEA.</b>	
92. artikulua.- Ikasteko eginbearra.	37
93. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko eginbearra.	37
94. artikulua.- Klasera joateko eginbearra.	37
95. artikulua.- Elkarbizitzari laguntzeko eginbearra.	38
96. artikulua.- Kontzientzia-askatasun pertsonala errespetatzeko eginbearra.	38
97. artikulua.- Eskola-arauak errespetatzeko eginbearra.	38
98. artikulua.- Instalazioak errespetatzeko eginbearra.	39
99. artikulua.- Ikasleen eskubideak errespetatuko eta ikasleen eginbearrak beteko direla bermatzea.	39

### **III. TITULUA: ZUZENDU BEHARREKO PORTAERAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK.**

<b>I. KAPITULUA. Zuzendu beharreko portaerak.</b>	
100. artikulua.- Ikasleen eskubideak ez betetzea diren portaerak zuzentzeko printzipio orokorrak.	40
101. artikulua.- Zuzendu behar diren portaerak.	41
102. artikulua.- Portaera desegokia.	41
103. artikulua.- Ikastetxeko elkarbizitzaren kontrako portaera.	42
104. artikulua.- Ikastetxeko elkarbizitzari kalte larria egiten dioten portaerak.	42
105. artikulua.- Erantzukizuna ikastetxetik at izandako portaerengatik edo egindako ekintzengatik.	43

<b>II. KAPITULUA. Zuzendu beharreko portaerak.</b>	
106. artikulua.- Portaera desegokiak zuzentzea.	44
107. artikulua.- Ikastetxeko elkarbizitzaren kontrako portaerak zuzentzea.	44
108. artikulua.- Ikastetxeko elkarbizitzari kalte handia egiten dioten portaerak zuzentzea.	44
109. artikulua.- Ikastetxez aldatzeko proposamena.	45
110. artikulua.- Ezin da etengabeko ebaluazioa aplikatu, ikasleak etengabe huts egiten baitu klasera.	45
111. artikulua.- Ondorioa oinarrizko gizarte-gaitasunaren eta gaitasun herritarraren ebaluazioan.	45
112. artikulua.- Ardura gerta daitezkeen kalteengatik.	46
113. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko orduan proportzionaltasuna bermatzeko irizpideak.	46

<b>III. KAPITULUA: portaerak zuzentzeko beste bide batzuk.</b>	
114. artikulua.- Xedapen orokorrak.	47
115. artikulua.- Prozedurarik gabe onartutako hezkuntza-neurriak.	47
116. artikulua.- Kontziliazio bidezko prozedura kentzea.	47
117. artikulua.- Osatze bidezko prozedura kentzea.	48
118. artikulua.- Familiaren esparruan zuzentze bidezko prozedura kentzea.	48
119. artikulua.- Neurri zuzentzaileak bertan behera utzi, bigundu edo barkatzea.	48
120. artikulua.- Elkarbizitzarako hezkuntza-konpromisoak.	48

#### IV. KAPITULUA.- NEURRI ZUZENTZAILEAK ZUZENTZEKO PROZEDURA.

1. atala: Xedapen orokorrak.	
121. artikulua.- Araudian tipifikatuta ez dauden portaerei neurri zuzentzaileak aplikatzeko debekua.	49
122. artikulua.- Arbuiatzen den portaera ikasleari jakinarazteko eginbeharra eta, edozein neurri zuzentzaile aplikatu aurretik, ikasleari entzutea.	49
123. artikulua.- Elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten portaerak zuzentzeko erabili beharreko prozedurak.	49
124. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskuduna.	49
125. artikulua.- Epeak neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduretan.	50
126. artikulua.- Denbora pasa izanagatik prozedurei hasiera emateko debekua.	50
127. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.	50
128. artikulua.- Ikastetxean jakinarazpenak eta erreklamazioak egiteko era eta epeak.	50
129. artikulua.- Datu pertsonalen tratamendua, babesa eta itxiera dekretu honetan araututako prozeduretan.	51
130. artikulua.- Erreklamazioak eta helegiteak.	51
2. atala: Portaera desegokiak zuzentzea.	
131. artikulua.- Ahozko prozedura portaera desegokiak zuzentzeko orduan.	51
3. atala: Elkarbizitzaren kontrako portaerak eta elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten portaerak zuzentzeko ohiko prozedura.	
132. artikulua.- Ohiko prozedura erabiltzea.	52
133. artikulua.- Hasierako ekitaldiaren gutxienezko edukia.	52
134. artikulua.- Hasierako ekitaldiaren jakinarazpena eta alde aurretik entzuteko hitzordua ematea.	52
135. artikulua.- Behin-behineko neurriak.	52
136. artikulua.- Interesatuari entzuteko tramitea.	52
137. artikulua.- Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.	53
138. artikulua.- Tokian tokiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzari eta, behar izanez gero, gizarte-zerbitzuei jakinaraztea.	53
139. artikulua.- Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan erreklamazioa egitea.	54
140. artikulua.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakia.	54
141. artikulua.- Jakinarazpena.	54
4. atala: Aparteko prozedura.	
142. artikulua.- Aparteko prozedura erabili behar den kasuak.	54
143. artikulua.- Aparteko prozedurari hasiera emateko epea.	55
144. artikulua.- Hasierako ekitaldiaren gutxienezko edukia.	55
145. artikulua.- Instrukzio-egile baten izendapena.	55
146. artikulua.- Hasierako ekitaldiaren eta har daitezkeen behin-behineko neurrien jakinarazpena.	55
147. artikulua.- Instrukzio-egilea arbuiatzeko aukera.	56
148. artikulua.- Instrukzio-egilearen jardunbideak.	56
149. artikulua.- Ministerio Fiskalari jakinaraztea.	56
150. artikulua.- Interesatuari entzuteko tramiterako hitzordua ematea.	56
151. artikulua.- Interesatuari entzuteko tramitea.	56
152. artikulua.- Ebazpen-proposamena.	56
153. artikulua.- Aparteko prozedurari bukaera emateko epeak.	57
154. artikulua.- Espedientea ebatzi eta jakinaraztea.	57

#### IV. TITULUA: AUTONOMIA PEDAGOGIKOARI BURUZKOA

155. artikulua.- Autonomia Pedagogikoa.	57
156. artikulua.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren helburuak.	58
157. artikulua.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua (IHP).	58
158. artikulua.- Ikastetxearen curriculum-proiektua (ICP).	59
159. artikulua.- Hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren izaera loteslea.	59
160. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Plana (IUP).	59
161. artikulua.- Irakaskuntza-jardueren programa.	60
162. artikulua.- Ikastetxeek testuliburuak eta beste curriculum-material batzuk erabiltzea.	60

163. artikulua.- Prestakuntza-jardueren, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa.	60
164. artikulua.-Prestakuntza-jarduera.	61
165. artikulua.- Eskola-jarduera osagarria keta eskolaz kanpoko jarduerak.	61
166. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Memoria.	61

## **V. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA.**

### **I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK.**

167. artikulua.- Printzipio orokorrak.	62
168. artikulua.- Publizitatea.	62
169. artikulua.- Ikasle eta gurasoei informazioa ematea.	62
170. artikulua.- Lanak, probak eta zuzendutako ariketak berrikustea.	63
171. artikulua.- Zuzendutako ariketen kalifikazioei erreklamazioak egitea.	64
172. artikulua.- Ebaluazio partzialei erreklamazioak egitea.	64
173. artikulua.- Kalifikazioak justifikatzen dituzten dokumentuak gordetzea.	64
174. artikulua.- Azken kalifikazioei erreklamazioa egitea.	65
175. artikulua.- Didaktika-departamentuaren erabakiaren ondorioak.	65

<b>AZKEN XEDAPENA.</b>	<b>66</b>
------------------------	-----------



# **ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

## **1. artikulua.- Ekialdea BHIren izena, irakaskuntzak eta izaera.**

1.-EKIALDEA BHI Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak ematen dituen ikastetxe publiko bat da eta ikasturte bakoitzean haren titularra den Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako planifikazioaren arabera ematen ditu irakaskuntzak.

2.-Euskal Eskola Publikoaren legeak 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ekialdea BHIk ezaugarri hauek ditu definitzeko orduan: anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura, gizarte eta kulturaren aldetik haren ingurunean sustraitua, parte-hartzailea, desberdintasunen orekatzailea eta aniztasunaren integratzailea.

3.-Ekialdea BHIk bere egiten ditu Euskal Eskola Publikoaren legeak 3.2. artikuluan ezartzen dituen helburuak. Haren gobernu-, parte hartzeko eta koordinazio didaktikoko organo guztiek, baita irakasleek eta irakasle ez den pertsonal guztiak ere, helburu horiek lortzera bideratuko dituzte haien jarduerak.

4.-Ekialdea BHIk bere gain hartzen du norberaren eskubideak arduraz errespetatzeko eta gainontzeko pertsonen eskubideak errespetatzeko konpromisoa, ikastetxean elkarbizitzaren oinarria den aldetik.

# **I. TITULUA: EKIALDEA BHIren ANTOLAKETA.**

## **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

### **2. artikulua. Gobernu-organoak.**

1.-Euskal Eskola Publikoaren Legeak, oro har, zehazten dituen kide anitzeko eta kide bakarreko gobernu-organoak izango ditu Ekialdea BHIk, lege horretan ezartzen diren eskuduntza eta ahalmenekin.

- a) Kide anitzekoak: irakasle-klaustroa eta zuzendaritza-taldea.
- b) Kide bakarrekoak: zuzendaria, ikasketa-burua eta idazkaria.

2.-Ikasturte bakoitzeko ikasle kopuruaren eta urtero ikasturtearen antolaketari buruzko ebazpenean xedatzen denaren arabera, Ekialdea BHIk ondorengo kide bakarreko organoak ere eduki ahal izango ditu, ebazpen horretan adierazten diren eta aurreko atalean adierazitako organoek bigarren organo horietan eskuordetzen dituzten eskuduntza eta funtzioekin. Ikasturte honetan ondorengo hauek dira kide bakarreko gobernu-organo gehigarriak:

Zuzendariordea.

Idazkariordea.

Alboko ikasketa-burua.

### **3. artikulua.- Hezkuntza-erkidegoan parte hartzea.**

1.-OOGren (OMR) bidez hartuko dute ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazio- eta zerbitzuetako pertsonalak eta Udalak Ekialdea BHIren gobernuan parte.

2.-Gainera, eta Euskal Eskola Publikoaren legeak xedatutakoaren arabera, gurasoen asanblada eta ikasleek parte hartzeko organoa izango dira ere Ekialdea BHIren jardueretan era espezifikoa parte hartzeko organoak.

3.-Ekialdea BHI izango da ikasle elkarten eta ikastetxeko ikasleen gurasoen helbidea, elkartzeko lokalak emango dizkie eta emango dizkie ikastetxearen bizitzan parte hartzeko erraztasunak, hezkuntza-, kultur eta kirol-jarduerak sustatuz.

#### **4. artikulua.- Koordinazio didaktikoko organoak.**

Ondorengoak izango dira Ekialdea BHIren koordinazio didaktikoko organoak, klaustroaren zuzendaritzapean: koordinazio pedagogikoko batzordea, zuzendaritzari aholkularitza emateko batzordea, didaktika-departamentuak, orientabide departamentua, tutoretzak eta irakaskuntza- et atalde, etapa eta ziklo mailako talde desberdinak.

#### **5. artikulua. Gobernu-, parte hartzeko eta koordinazio-organoek jarduteko printzipioak.**

1.-Ikastetxearen gobernu-, parte hartzeko eta koordinazio didaktikoko organoek ondorengo alderdiak zainduko dituzte: ikastetxearen jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legeak jasotzen dituen printzipio eta baloreen arabera gauzatzea, lege berean eta indarreko gainontzeko xedapenetan ezarritako hezkuntza-helburuak benetan aurrera eramatea eta irakaskuntzaren kalitatea.

2.-Gainera, gobernu-, parte hartzeko eta koordinazio didaktikoko organoek, bakoitzak bere eskuduntzen eremuan, zor zaizkien eskubideez baliatu ahal izango direla bermatuko diete ikasleei, irakasleei, ikasleen gurasoei eta administrazio- eta zerbitzuetako pertsonalari eta eginbeharrak betetzeaz arduratuko dira.

3.-Halaber, emango dituzte hezkuntza-erkidegoko kide guztiek ikastetxearen bizitzan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko erraztasunak.

## **II. KAPITULUA: KIDE ANITZEKO GOBERNU-ORGANOAK.**

### **1. atala. Ordezkaritza Organo Gorenari (OOG) buruzkoa.**

#### **6. artikulua.- OOGren definizioa eta izena.**

1.-Ordezkaritza Organo Gorenari (OOG), eskola-erkidegoko kideek Ekialdea BHIren gobernuan parte hartzeko organoari, ematen zaio eskola-bizitzari eragiten dioten funtsezko erabakiak hartzearen ardura eta ikastetxearen funtzionamenduaren azken arduraduna da, ikastetxearen autonomiaren eremuan.

2.-Eskola Kontseilua izena emango zaio Ekialdea BHIren OOGri.

3.-Ekialdea BHIko Eskola Kontseiluak ondorengo ahalmen eta eskuduntzak ditu:

a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua (IHP), antolakuntza- eta jardura-araudia (AJA) eta kudeaketa-proiektua (KP) onartzea, betetzen direla arduratzea eta haien ebaluazioa egitea, Euskal Eskola Publikoaren legeak 28.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.



b) Ikastetxearen ICPri buruzko txostena egitea, ikastetxearen hezkuntza-proiektura egokitzen den ikusteko.

c) Ikastetxearen urteko plana onartzea, ikasturtearen lehen hiruhilekoan Euskal Eskola Publikoaren legeak 35.2.a) artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

d) Irakasleak prestatu eta birziklatzeko jardueren programa, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa-plana onartzea, ikasturtearen lehen hiruhilekoan. Haien jarraipena eta, aldizka, ebaluazioa egin beharko dute.

e) Ikastetxearen urteko memoria onartzea, ikasturtearen lehen hiruhilekoaren barruan.

f) Zuzendaria aukeratzeko prozesuan parte hartzea. Justifikatutako arrazoiak izanez gero, zuzendariaren izendapena atzera botatzea edo bertan behera uztea proposatzean, Eskola Kontseiluko kideen bi herenen gehiengoak akordioa aldez aurretik hartu ondoren.

g) Ikasleak ikastetxean onartzen diren edo ez erabakitzea, indarreko legeriak dioena zehatz-mehatz lotuz.

h) Diziplinaren arloko gatazkak konpontzea, ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituzten arauen arabera.

i) Beste ikastetxe batzuekin lankidetzak-harremanak zehaztea, kultur eta hezkuntza-helburuekin.

j) Instalazio eta eskola-ekipoaren berrikuntza sustatzea, baita haien kontserbatzea zaintzea ere.

k) Ikastetxearen jarduera orokorra, administrazio- eta irakaskuntza-alderdietan, ikuskatzea.

l) Ikastetxearen izen espezifikoa edo haren aldaketak Hezkuntza Administrazioari proposatzea.

4.-Ondorengo kideek osatuko dute Ekialdea BHI Institutuko Eskola Kontseilua, Hezkuntza Sailak ezarritako irizpideen arabera:

a) Ikastetxeko zuzendaria, kontseiluburua izango dena.

b) Ikasketa-burua.

c) Ikastetxea dagoen udal barrutiko Udaleko zinegotzi edo ordezkari bat, Udalak berak izendatua.

d) Klaustroak aukeratutako hamabi (12) irakasle.

e) Hezkuntza-arreta osagarria emateko pertsonalaren ordezkari bat (1).

f) Ikasleen bederatzi (9) guraso, ikastetxean matrikulatutako ikasleen gurasoek aukeratuak.

g) Bederatzi (9) ikasle.

h) Administrazio- eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari bat (1).

i) Ikastetxeko idazkaria, organoaren idazkari gisa jardungo duena, hitzarekin baina botorik gabe.

5- Haien kargua dela-eta berezkoak diren Eskola Kontseiluko kideen ordezkapena egin ahal izango da, Eskola Kontseiluan parte hartzea eragiten duen karguan jarduteko baldintza berberetan. Izendapenez kide direnei izendapenez ere ordezkatu ahal izango zaizkie. Aukeratuak ordezkatu ahal izango dira, soilik uko egin edo euren Kontseilu Eskolarreko kide izateko kondizioa galtzen badute, aukeratutako ordezkoen zerrendan lehenengo postuetan agertzen direnak sartuz.

6.-Eskola Kontseiluko kideak ez dira legezko aginduaren menpe egongo, Kontseiluko ordezkari direnean.

## **7. artikulua.- Eskola Kontseilua aukeratu eta berritzea.**

1.- Lau urteko gehienezko aldi baterako izango dira Eskola Kontseiluko kideak aukeratuak.

2.-Sektore batzuk guztiz berritu behar izateagatik Eskola Kontseilua aukeratzen bada, jarraian esaten den legez jokatu da:

1º.- Aukeratutako Eskola Kontseiluaren kideak bi zatitan banatuko dira ordezkatzeko dituzten eskola-erkidegoko sektore bakoitzean.

2º.- Eskola-erkidegoko sektore batek aukeratu beharreko kideen kopurua bikoitia bada, bi zatiek kideen kopuru berdina izango dute. Eskola-erkidegoko sektore batek aukeratu beharreko kideen kopurua bikoitia bada, lehen zatia bigarrenak baino kide bat gehiago izango du.

3º.- Zati bakoitzari dagozkion kideak zehazteko, aukeratzeko prozesuan lortutako boto kopuruaren arabera ordenatuko dira hautatutako guztiak, boto kopururik handiena lortu dutenetatik hasita. Botoen berdinketa gertatuz gero, alfabeto-ordenaren arabera ordenatuko dira. Horrela ordenatu eta gero, lehenengoak lehen zatia osatuko dute eta gainontzekoek bigarrena.

4º.- Lehen zatiko kideei lau urteko aldi baterako izendatuko zaizkie. Bigarren zatiko kideei bi urteko aldi baterako izendatuko zaizkie.

### **8. artikulua.- Eskola Kontseiluan hutsuneak betetzeko prozedura.**

1.-Lehen hauteskunde-prozesua edo ondorengoak gauzatu ondoren, bi urtero partzialki berrituko da Eskola Kontseilua eta berrikuntza horietan dauden hutsune guztiak beteko dira:

a) Ari garen berrikuntza partzialaren hutsuneak: izendatuak izan ziren aldiak bukatzean ordezkari horiek libre uzten dituzten plazei dagozkienak dira.

b) Aurreko berrikuntza partzialaren hutsuneak: aurreko berrikuntzan lau urteko aldi baterako izendatu zitzaizkien baina agintaldiaren lehen bi urteetan Eskola Kontseiluko kide izateari utzi zioten ordezkarien hutsuneak dira. Hutsune horiek beteko dira, ordezkari batek behin-behingo bete dituen edo ez kontuan hartu gabe.

c) Izan litekeen beste edozein hutsune.

2.-Berrikuntza partzial batean aurreko berrikuntza partzial batekoak diren hutsuneak izanez gero, gaurko berrikuntzaren postuak boto gehien duten izangaiekin beteko dira eta lau urteko aldi baterako izendatuko zaizkie. Aurreko berrikuntzaren hutsuneak boto kopururik gehiena duten hurrengoekin beteko dira. Azken hauei bi urteko aldi baterako izendatuko zaizkie. Botoen berdinketa gertatuz gero, betiere izangaien alfabeto-ordenaren arabera ebatziko dira berdinketak.

### **9. artikulua.- Aldaketak Eskola Kontseiluko kideen osaketan.**

1.-Ekialdea BHiko Eskola Kontseiluak, bere eskuduntzak aplikatuz, edozein unetan aldatu ahal izango du osaketa, AJA eraberrituz eta, betiere, indarreko legeria errespetatuz.

2.-Eskola Kontseiluaren osaketan aldaketa bat onartzen bada, aldaketa hori onartu eta gero egingo den lehen hauteskunde-prozesura arte ez da indarrean sartuko. Une horretan, hauteskunde-prozesu berria egitean, aurreko Eskola Kontseiluko kide guztiei beren karguak kenduko zaizkie, aukeratuak izan diren aldia zein den alde batera utzita, eta Eskola Kontseiluko kideak guztiz berrituko dira, onartutako osaketa berriaren arabera eta araudi horren 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoaren arabera jokatu.

### **10. artikulua.- Eskola Kontseiluko kideak aukeratzeko egutegia.**

Ikasturtearen lehen hiruhilekoan egingo da Eskola Kontseiluko kideak aukeratzeko prozesua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako aldian.

### **11. artikulua.- Hauteskunde Batzarra.**

1.-Zazpi eguneko epean, Ordezkaritza Organo Goreneko kideak hautatzeko aldia irekitzat jotzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, hauteskunde-batzar bat osatuko da, zuzendariak, batzarburua izango denak, eta aipatutako gobernu-organoan ordezkariren bat aukeratu behar duten eskola-erkidegoko sektore bakoitzeko kide batek, zozketaz aukeratuak izango direnek, osatua. Halaber, ordezko kide bat aukeratu da sektore bakoitzean.

2.-Hauteskunde Batzarrak ondorengo eginkizunak izango ditu, Eskola Kontseiluko kideak aukeratzeko orduan:

a) Eskola Kontseiluko ordezkariek izenda ditzatela eskatzea Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eskola Kontseiluan ordezkariren bat izendatzeko eskubidea duten beste erakunde publiko edo pribatu horiei.

b) Hauteskunde-prozesuaren ekitaldi desberdinak izango diren data zehatza finkatzea, ahalik eta jende gehienak parte har dezan erraztasunak emanez.

c) Hautatzeko prozedura erregulatzen duten arauak behar adina jakinaraztea.

d) Botazioak presiditzeaz, ordena zaintzeaz, bozkatzea ahalik eta garbiena izateaz eta zenbaketa egiteaz arduratuko diren hauteskunde-mahaiak osa daitezela sustatzea.

e) Hauteskunde-prozesuaren ekitaldiak hezkuntza-administrazioak deialdi bakoitzean ezarritako epe eta baldintzen arabera egiteko agintzea:

1º- Izangaiak onartu eta hautesleen zerrenda egitea: zortzi eguneko epea, hauteskunde batzarra osatu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

2º- Hautesleen behin-behineko zerrenda argitara ematea: hautagaiak onartzeko eta hautesleen zerrenda egiteko hauteskunde-batzarrak ezarritako epeak bukatu eta hurrengo egunean.

f) Hautagai bat elkarte, erakunde edo talde zehatz baten proposamenez proposatua bada, derrigorrean eman beharko da zirkunstantzia horren berri izangaiak proklamatzeko orduan.

g) b), c) eta e) ataletan xedatutakoaren arabera hartutako erabakiak ikastetxeko iragarki-tauletan agertuko dira.

## **12. artikulua.- Erreklamazioak.**

1.-Espresuki ebazten ez diren erreklamazioetan atzera bota direla interpretatuko da, ebazteko ezarritako epea pasa ondoren.

2.-Helegite arrunta jarri ahal izango zaio tokian tokiko Hezkuntza ordezkaritari behin-betiko zerrenden aurka, hilabeteko epean, hauteskunde batzarrak argitara eman eta hurrengo egunean kontaktzen hasita.

## **13. artikulua.- Hautatzeko baldintzak.**

1.-Sektoreko edozein kideri eman ahal izango zaio botoa, betiere hautagai proklamatu baldin bazaio.

2.-Eskola-erkidegoko sektore desberdinetako ordezkariek hautatzeko prozesuan, sektorean hautatu beharreko ordezkariek guztien bi hereneko den kopuru bat, gehienez ere, idatziko du hautesle bakoitzak bere boto paperean. Bi heren horiek zatiki zenbakia badira, behe-beherako zenbaki osoari begiratuko zaio. Ordezkariek bakarrik hautatu behar izanez gero, hautesle bakoitzak izen bakarrik idatziko du bere boto paperean.

Artikulu honetan ezarritakoak baino hautagai gehiago duten botoak baliogabeak izango dira, baita hautagaien izenak errepikatzen dituztenak ere.

3.-Ordezkeri izateko duten sektore desberdinetakoa dena sektore bakar bateko hautagaia izan ahal izango da, ez besterik.

4.-Karguarengatik Ekialdea BHIko Eskola Kontseiluko kide izatea dagokionari ezin izango zaio ordezkari gisa hautatu.

#### **14. artikulua.- Botoaren ezaugarriak.**

Botoa zuzena eta ezkutua izango da eta ezin izango da inorengan eskuordetu.

#### **15. artikulua.- Eskola Kontseiluan irakasleen ordezkariak hautatzeko prozesua.**

1.-Klaustroak hautatuko ditu Ekialdea BHIko Eskola Kontseiluko irakasleen ordezkariak. Klaustroko kide guztiak izango dira hautesleak eta hauteskunde batzarrak hautagai izendatu dituen horiek hautatu ahal izango dira.

2.-Zuzendariak hauteskunde batzarrak ezarritako datan aparteko bilera batera deituko du klaustroa eta bilera horretan hauteskunde-ekitaldia izango da.

3.-Aparteko bilera horretan hauteskunde-mahai bat osatuko da. Zuzendaria mahaiburua izango da eta, gainera, zozketaz aukeratutako klaustroko bi kidek osatuko dute mahaia, bietako gazteenak idazkari gisa jardungo duela.

#### **16. artikulua.- Eskola Kontseiluan gurasoen ordezkariak hautatzeko prozesua.**

1.-Ekialdea BHIin matrikulatutako ikasle guztien gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira hautesleak eta, halaber, hauteskunde batzarrak hautagai proklamatu dituen guztiei hautatu ahal izango zaizkie. Aitak eta amak dute hautatzeko eta hautatuak izateko eskubide bera, biak eskubide horretaz baliatu ahal izango dira eta ezkontide bakoitzaren eskubideak ez du, beraz, besteak eskubide hori erabili ahal izatea kentzean. Edonola ere, guraso-agintea bakarrik gurasoetako bati ematen baldin bazaio, duenak izango du bakarrik hauteslea izan eta hautatua izateko eskubidea.

2.-Ikastetxeko zuzendariak hauteskunde batzarrak ezarritako egunerako deituko ditu ikasleen gurasoak edo legezko ordezkariak, hauteskunde-ekitaldia egiteko.

3.-Hauteskunde-ekitaldia egiten den egunean osatuko da hauteskunde-mahaia, ondorengo kideak izango dituen: ikastetxeko zuzendaria, mahaiburua izango dena, eta zozketaz aukeratutako bi guraso edo tutore, haietako gazteenak idazkari gisa jardungo duela.

Halaber, ordezkari kideak hautatuak izango dira eta, batzuk eta besteak agertu ezean, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek, beste edozein sektoretako ordezkariak hautatzeko hauteskunde-mahaiko osatzaileak ez direnak, osatuko dute hauteskunde-mahaia.

4.-Nortasun-agiri nazionala edo baliokideren bat erakutsi beharko du bozkatzera joaten den pertsonak, guraso edo tutoreen ordezkariak hautatzeko prozesuan hauteslea dela egiaztatzeko.

5.-Parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin, ikasleen gurasoek postaz eman ahal izango dute botoa. Horretarako, zenbaketa egin aurretik bidali beharko da ikastetxearen hauteskunde-mahaira botoa, emandako botoa eta NANaren edo agiri baliokideren baten fotokopia izango dituen gutun baten bidez.

6.-Ekialdea BHIko guraso edo tutoreek bozketaren ikuskatzaile gisa jardun ahal izango dute, hamar hautesleren, gutxienez, abala badute edo ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarte batek proposatu baditu.

### **17. artikulua.- Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkariak hautatzeko prozesua.**

1.-Ekialdea BHIIn matrikulatutako ikasle guztiak izango dira hautesleak eta hauteskunde batzarrak hautagai proklamatu ditueni hautatu ahal izango zaizkie.

2.-Ekialdea BHIko zuzendariak hauteskunde batzarrak ezarritako egunerako deituko ditu ikasleak, hauteskunde-ekitaldia egiteko.

3.-Hauteskunde-ekitaldia egiten den egunean osatuko da hauteskunde-mahaia, ikastetxeko zuzendariak, mahaiburua izango denak, eta zozketaz aukeratutako bi ikaslek, zaharrenak idazkari gisa jardungo du, osatuko dutena.

Halaber, ordezeko kideak hautatuko dira eta, batzuk eta besteak agertu ezean, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek, beste edozein sektoretako ordezkariak hautatzeko hauteskunde-mahaiko osatzaileak ez direnek, osatuko dute mahaia.

4.-Nortasun-agiri nazionala edo agiri baliokideren bat erakutsi beharko du botoa ematera joaten den ikasleak, ikasleak hautatzeko prozesuan hauteslea dela egiaztatzeke.

5.-Ekialdea BHIko ikasleek, hamar hautesleren, gutxienez, abala badute edo, uztailaren 11ko 1532/1986 errege dekretuak (uztailaren 29ko BOE), ikasleen elkarteak arautzen dituenak eta, geure araudia ez dugun bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatuko denak, xedatutakoaren arabera, legez eraturako ikastetxe horretako ikasleen elkarteek proposatu badituzte, bozketaren ikuskatzaile gisa jardun ahal izango dute.

### **18. artikulua.- Eskola Kontseiluan administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkaria hautatzeko prozesua.**

1.-Lan edo administrazioaren aldetik Ekialdea BHIri lotuta dagoen eta irakasleenak ez diren beste funtzio batzuk egiten dituenak da administrazio eta zerbitzuetako pertsonala.

2.-Zuzendariak hauteskunde batzarrak ezarritako egunean deitutako ekitaldi batean aukeratuko dute sektore honetako kideek beren ordezkaria.

3.-Hauteskunde-ekitaldia egiten den egunean eraturako da hauteskunde-mahaia, ondorengo pertsonak osatuko dutena: ikastetxeko zuzendariak, mahaiburua izango denak, eta zozketaz aukeratutako administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren bi kidek, gazteenak idazkari gisa jardungo duela.

4.-Halaber, ordezeko kideak hautatuko dira eta, batzuk eta besteak agertu ezean, zuzendariak eta zozketaz aukeratutako bi irakaslek, beste edozein sektoretako ordezkariak hautatzeko hauteskunde-mahaiko kideak ez direnek, osatuko dute mahaia.

### **19. artikulua.- Botoen zenbaketa.**

Hauteskunde-ekitaldi bakoitzean, botaketak bukatu ondoren, eraturako hauteskunde-mahai bakoitzak botoen zenbaketa egingo du. Zenbaketa hori publikoa izango da eta, egin ondoren, mahaiko kide guztiek izenpetuko duten akta bat idatziko da eta hauteskunde batzarrari bidaliko zaio. Araudi honen 8. artikuluan aipatzen den eran hutsak bete behar badira, botoak lortu dituzten guztien izenak, boto kopuruaren arabera ordenatuak, eta bakoitzari dagozkion botoen kopurua

jasota agertuko dira aktan. Botoen berdinketa gertatuz gero, alfabeto-ordenaren arabera ordenatuko dira.

Formulatu ahal diren alegazio eta oharrak jasota agertuko dira aktan, lortutako emaitzekin batera. Egoera hori gertatuz gero, erreklamazioa egiten duenak ere izenpetu beharko du akta.

Halaber, araudi honen 11.e) artikuluan aipatutako hautagaitzen proklamazioan agertzen diren elkarte, erakunde edo taldeen aipamenak agertuko dira ere aktan.

## **20. artikulua.- Eskola Kontseilu berriaren osaketa.**

1.-Bost eguneko gehienezko epean, hautesleen behi-betiko zerrenda argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Zuzendariak ikastetxeko Eskola Kontseilu berria osatuko du.

2.-Haiei egotzi ahal zaizkien arrazoiengatik hezkuntza-erkidegoko sektore bateko edo batzuetako kideek ordezkariak hautatzen ez badituzte ere, baliagarri izaten jarraituko du Ekialdea BHIko Eskola Kontseiluaren osaketak.

## **21. artikulua.- Hutsak Eskola Kontseiluan.**

1.-Dagokien berrikuntza baino lehenago Eskola Kontseiluko kideak izateko baldintzak betetzeari uzten dioten ordezkari horiek huts bat eragingo dute, hurrengo hautagaiek, eskuratutako boto kopuruaren arabera, beteko dutena. Gerta daitezkeen hutsak betetzeko, azken berrikuntza partzialeko akten zerrendak erabiliko dira, hutsak aurreko berrikuntza partzial bati dagokion edo ez alde batera utzita. Hutsak betetzeko beste hautagairik izan ezean, bete gabe geratuko da, ikastetxeko Eskola Kontseilua partzialki berritu arte.

2.-Uztaitetik aurrera, hots, edozein berrikuntza partzial baino lehenago, gertatzen diren hutsak berrikuntza horretan beteko dira, eta ez ordezkoen bidez.

3.-Eskola Kontseiluan ordezkari gisa hautatu diren eta, geroago, Kontseiluko berezko kide izatea dakarren lagun bakarreko kargu baterako hautatzen diren irakasleek eragindako hutsak aurreko bi puntuetan zehazten den legez beteko dira.

4.-Edonola ere, hurrengo berrikuntza partziala gertatu arte Eskola Kontseiluko kide izendatuko zaio ordezkari, ordezkatzeko duen pertsonari izendatu zaion aldia alde batera utzita.

5.-Zuzendariak berehala eman beharko dio Hezkuntza lurralde ordezkariari Eskola Kontseiluaren osaketan gertatzen den edozein aldaketaren berri.

## **22. artikulua.- Eskola Kontseiluak funtzionatzeko erregimena.**

1.-Kideak joan ahal izateko moduko egun eta orduan egingo dira Eskola Kontseiluaren bilerak. Bilerak ohiko edo aparteko gisa sailkatuko dira.

Ohiko bileretan, Ekialdea BHIko zuzendariak, kontseiluburua den aldetik, bileraren deialdia bidaliko die, astebete lehenago, Eskola Kontseiluko kideei, gai-zerrenda, data, ordua eta, behar izanez gero, onartzeko alde aurretik eztabaidatuko den dokumentazioa agertuko dituen.

Aparteko deialdiak egin behar badira, zuzendariak, kontseiluburua den aldetik, berrogeita zortzi ordu baino lehenago bidaliko du derrigorrezko deialdia. Bileraren aparteko izaera Hezkuntza Administrazioak erabakitzen duen kasuetan izan ezik, bakarrik premia larriko arrazoiengatik egin ahal izango dira Eskola Kontseiluaren aparteko bilerak eta gai-zerrendak premia hori eragiten duten gaiak sartuko ditu, ez besterik.

2.-Eskola Kontseiluak hiru hilean behin, gutxienez, egingo du ohiko bilera eta, betiere, ikastetxeko zuzendariak deitzen badu edo, gutxienez, kideen heren batek eskatzen badu. Kasu horretan, zuzendariak Eskola Kontseilua deituko du, hamar eguneko edo hamar egunetik beherako epe batean. Betiere ikasturtearen hasieran eta bukaeran bilduko da.

3.-Eskola Kontseiluak gehiengo sinplez hartuko ditu akordioak, ondorengo kasuetan izan ezik:

- a) Zuzendaria aukeratzeko. Gehiengo absolutua beharko da.
- b) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta AJA (ROF) onartzea, baita egin daitezkeen aldaketak ere. Eskola Kontseilua osatzen duten kide guztien botoen bi hereneko gehiengoz onartuko dira.
- c) Zuzendariaren izendapena baliogabetzeko proposamena, kideen bi herenez gehiengoz egingo dena.
- d) Hezkuntza Administrazioaren xedapen orokorren batek exijitzen duen kasuetan.

4.-Aurreko atalean adierazitakoaren ondorioetarako, horrela definitzen dira “gehiengo sinplea “ eta “gehiengo absolutua “.

*Gehiengo sinplea:* botazioaren unean dauden kideen erdia gehi bat, gutxienez, da.

*Gehiengo absolutua:* Eskola Kontseilua “de iure “ osatzen duten kide guztien erdia gehi bat, gutxienez, da.

### **23. artikulua.- Kontseiluburuaren eskuduntzak.**

Ondorengoak dira Ekialdea BHIko Eskola kontseiluburuaren funtzioak:

- a) Organoaren ordezkaria izatea.
- b) Ohiko eta aparteko deialdiak egitea eta gai-zerrenda finkatzea. Gai-zerrenda finkatzeko, gainontzeko kideek nahiko lehenago egin dituzten eskaerak jasoko ditu.
- c) Saioen buru izatea, eztabaidak moderatzea eta justifikatutako arrazoiengatik bertan behera uztea.
- d) Haren botoarekin berdinketak erabakitzea, behar diren akordioak hartzeko.
- e) Legeak beteko direla segurtatzea.
- f) Organoaren akordioen aktei eta ziurtagiriei oniritzia ematea.

Hutsaren, hutsegitearen, gaixotasunaren edo legezko beste arrazoi baten kasuan, ikastetxeko ikasketa-buruak, izanez gero, ordezkatu du zuzendaria eta, ikasketa-burua ez badago, Eskola Kontseiluko kidea den ikastetxeko irakaslerik antzinakoenak egingo du zuzendariaren ordezkapena.

### **24. artikulua.- Kideen eskuduntzak.**

Ondorengoak dira Eskola Kontseiluko kideen funtzioak:

- a) Araudi honen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, OOGko buruak biltzeko egiten dizkien deialdiak jasotzea. Deialdi horiek bileraren gai-zerrenda eta, behar izanez gero, eztabaidatzeko alde aurreko dokumentazioa agertu beharko dituzte.
- b) Saioen eztabaidetan parte hartzea.
- c) Boto emateko eskubidea, betiere pertsonala eta transferiezina izango dena, erabiltzea eta haien boto partikularra ematea, baita horren zentzua eta justifikatzen duten arrazoiak azaltzea ere. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 24. 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eskola Kontseiluko berezko kideak baita Udaleko ordezkaria ere ezin izango dira abstenitu egiten diren botazioetan.
- d) Eskari eta galderak egitea.
- e) Esleitutako funtzioak betetzeko behar den informazioa lortzea.

Eskola Kontseiluko kideek ezin izango dizkiote beren buruari esleitu organo horri ezagutzen zaizkion ordezkari-tuntzioak, arau baten edo organoak berak, kasu bakoitzarako, hartu duen akordioaren bidez eman ez baldin bazaizkie.

## **25. artikulua.- Idazkariaren eskuduntzak.**

Ondorengoak dira Eskola Kontseiluko idazkariaren funtzioak:

- a) Bileretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.
- b) Kontseiluburuaren aginduz OOGren bileretara deitzea, baita kideak deitzeko zitazioak egitea ere.
- c) Kideak organoarekin komunikatzeko egintzak jasotzea, hots, jakinarazpenak, datuen eskaerak, zuzenketak edo kideek ezagutu behar dituzten beste edozein idazki.
- d) Gaiak nola aztertuko diren prestatu eta bileren aktak erredaktatzea.
- e) Organoak hartutako kontsulta, diktamen eta akordioen ziurtagiriak ematea, geroago buruak oniritzia emateko.

Huts, hutsegite, gaixotasun edo legezko beste arrazoi batengatik, organoaren buruak izendatutako irakasle batek, Eskola Kontseiluko kidea denak, ordezkatu du idazkaria. Kasu honetan, organoko idazkariaren funtzioak betetzen dituen kideak hitza eta botoa izango ditu, organoko gainontzeko kideen baldintza berberetan.

## **26. artikulua.- Saioen erregimena.**

1.-Bilerak eta deliberazioak egitearen eta akordioak hartzearen ondorioetarako Eskola Kontseiluaren osaketa baliagarri izan dadin, kontseiluburuak eta idazkariak, edo legez ordezkatzeko dituztenek, egon beharko dute eta, gainera, Kontseilua osatzen duten kide guztien erdiak, gutxienez, hartu behar du bileran parte. Edonola ere, araudi honen 20. artikuluen 3. eta 4. ataletan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da erabakiak hartzeko orduan.

2.-Ezin izango da gai-zerrendan agertzen ez den gairik deliberatu, ezta horri buruzko akordiorik hartu ere, gai berriaren premia-kotasuna gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin onartzen ez bada.

3.-Idazkariak, edo horren ordezkari funtzio hori betetzen duen kideak, egin beharko du Eskola Kontseiluaren bilera bakoitzaren akta. Akta horrek, derrigorrean, puntu hauek azaldu beharko ditu: parte-hartzaileak, bileraren gai-zerrenda, egin den leku eta denboraren gorabeherak, deliberazioen oinarriko puntuak eta hartutako akordioaren edukia.

Hartutako akordioaren kontrako botoa, abstentzioa eta berau justifikatzeko arrazoiak edo aldeko botoaren zentzua agertuko dira aktan, OOGko kideen eskariz. Halaber, edozein kidek du bere esku-hartzearen edo proposamenaren transkripzio osoa eskatzeko eskubidea, betiere bileran, edo kontseiluburuak ezarritako epean, ematen badu esku-hartzearekin bat datorren testua. Horrela jasota geratuko da aktan edo kopia gaineratuko zaio.

Gehiengoaren akordioarekin ados ez dauden kideek boto partikularra eman ahal izango dute idatziz, berrogeita zortzi orduko epean. Boto partikular horiek onartutako testuari gehituko zaizkie.

OOGko kideek kontrako botoa ematen badute edo abstenitzen badira, akordioetatik agian etor daitezkeen arduetatik salbuetsita geratuko dira.

Aktak bilera horretan edo hurrengoan onartuko dira. Dena den, idazkariak eman ahal izango du hartu diren akordio espezifikoei buruzko ziurtagiria, akta geroago onartzearen kalterik gabe. Zirkunstantzia hori espresuki jasota geratuko da akta onartu aurretik hartu diren akordioen ziurtagirietan.



Nolabaiteko garrantzia duten gaiak badira edo Eskola Kontseiluaren bileran parte hartzen duten kideetako batek horrela eskatzen badu, boto-paper indibidualen bidez egingo da botazioa eta, berehala, kontseiluburuak eta idazkariak zenbatuko dituzte botoak. Hori guztia aktan jasota geratuko da.

4.-Eskola Kontseiluak hezkuntza-erkidegoari hedatuko dizkio bere akordio espezifikoak eta, gutxienez, ikastetxearen iragarki-taulan azalduko ditu.

### **27. artikulua.- Eskola Kontseiluko batzordeak.**

Eskola Kontseiluak arinago funtzionatzeko asmoz, ondorengo batzordeak osatuko dira:

- Batzorde Iraunkorra
- Batzorde Ekonomikoa
- Segurtasun eta Higienearen Batzordea
- Elkarbizitza Batzordea

### **28. artikulua.- Batzorde Iraunkorra.**

1.-Batzorde Iraunkorra kide hauek osatuko dute:

- Zuzendariak edo, berau eskuordetuz, ikasketa-buruak.
- Bi irakaslek, Eskola Kontseiluko irakasleen ordezkarien artean aukeratuek.
- Ikasleen bi gurasok, Eskola Kontseiluko ordezkarien artean aukeratuek.
- Bi ikaslek, Eskola Kontseiluko ordezkarien artean aukeratuek.
- Udaleko ordezkariak, ikastetxeko Eskola Kontseiluko kidea denak.
- Eskola Kontseiluko idazkariak, batzordeko idazkari gisa jardungo duenak.

2.-Batzorde Iraunkorrek funtzio eta egiteko hauek beteko ditu:

- a) Eskola Kontseiluaren bileren gai-zerrenda proposatzea.
- b) Ikastetxearen AJA (ROF) egin eta aldatzea, klaustroak eta gurasoen elkarteek egindako proposamenak aldez aurretik ezagutu ondoren, geroago eztabaidatzeko eta, behar izanez gero, Eskola Kontseiluaren osoko bilkurak onar dezan.
- c) Ikastetxearen eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien plana egitea, baita gauzatuko dela zuzenean zaintzea ere.
- d) Eskola-jantokia eta garraioa baldin badaude ikastetxean, bikain funtzionatzeaz arduratzea.
- e) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko urteko memoria egitea, Eskola Kontseiluak geroago onar dezan.
- f) Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteroko kudeaketa-programa kudeatzeko proiektua egiteko prozesuan ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea, Eskola Kontseiluak geroago programa horiek onar ditzan.
- g) Ikastetxearen planaren eta urteko memoriaren zirriborroa egiteko prozesuan ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea, Eskola Kontseiluak geroago eztabaidatu eta onartzeko.

3.-Erabakiak hartzearen ondorioetarako, eta Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36.2. b) eta d) artikuluek batzorde iraunkorrari ematen dizkioten funtzioei dagokienez, gurasoek, ikasleek eta irakasleek Eskola Kontseiluaren osoko bilkuran duten ordezkariaren ehuneko bera batzorde iraunkorrean edukitzeko moduan haztatuko dira botoak.

### **29. artikulua.- Batzorde Ekonomikoa.**

1.- Batzorde Ekonomikoa kide hauek osatuko dute:

- Eskola kontseiluburuak.
- Eskola Kontseiluko idazkariak edota ikastetxeko administrariak, biak hitzarekin eta botorik gabe.
- Eskola Kontseiluko kide den irakasle batek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez dagoenak.
- Eskola Kontseiluko kide den gurasoen ordezkari batek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez dagoenak.
- Eskola Kontseiluko kide den ikasle batek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez dagoenak.
- Udaleko ordezkariak.

2.- Batzorde Ekonomikoak funtzio hauek betetzen ditu:

- a) Ikastetxearen urteroko ekonomi kudeaketarako programaren proiektua egitea, haren aurrekontuarekin, Eskola Kontseiluak onar dezan.
- b) Ikastetxearen urteroko balantzea egitea, Eskola Kontseiluak onar dezan.
- c) Ikastetxeko idazkariaren ohiko ekonomi kudeaketa kontrolatzea, hark aldizka eman behar duen informazioaren bidez.
- d) Instalazioen eta eskola-hornikuntzaren arloan ikastetxeak dituen premiak Eskola Kontseiluari jakinaraztea, ikastetxearen kontserbazioaz eta mantentzeaz arduratzea eta ikastetxearen inbentarioaren gaurkotzea kontrolatzea.
- e) Ikastetxearen ekonomi kudeaketaren programa gauzatzeari buruzko urteroko memoria egitea, aurrekontuarekin, baita ikastetxearen hornikuntzan eta instalazioetan egin beharreko hobekuntzen eta dauden premien memoria egitea ere, Eskola Kontseiluak geroago onar dezan.

### **30. artikulua.- Segurtasun eta Higiene Batzordea.**

1.- Ondorengo kideek osatuko dute Segurtasun eta Higiene Batzordea:

- Ikasketa-buruak, batzordeko buru gisa jardungo duenak.
- Eskola Kontseiluko idazkariak.
- Eskola Kontseiluko kide den irakasle batek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez dagoenak.
- Eskola Kontseiluko kide den gurasoen ordezkari batek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez dagoenak.
- Eskola Kontseiluko kide den ikasle batek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez dagoenak.
- Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren ordezkariak.

2.- Segurtasun eta Higiene Batzordeak ondorengo funtzio eta egitekoak beteko ditu:

- a) Ikastetxearen Larrialdietarako Plan Orokor bat egitea, edozein ezbehar prebenitzeko, baita ikastetxean egiten diren ebakuazioen simulakroen ebaluazioa eta jarraipena egitea ere.
- b) Ikastetxearen azpiegituran, altzarietan eta instalazioetan antzematen den edozein anormaltasun, hezkuntza-erkidegoko edozein kiderentzat arriskutsuak badira, Eskola Kontseiluari jakinaraztea, lantokietan prebentzio, segurtasun eta osasunari buruzko legeriaren arabera behar diren neurriak har daitezten.
- c) Azaroaren 11ko 15/1988 legeak, drogamenpekotasunaren arloko prebentzio, asistentzia eta birgizarteratzeari buruzkoak (1988ko abenduaren 12ko EHAA), xedatzen duena betetzeaz arduratzea, ikastetxeei zuzenean eragiten dieten ataletan.
- d) Haren egitekoa dela-eta Eskola Kontseiluak esleitzen dizkion beste funtzio batzuk.

### **31. artikulua.- Elkarbizitza Batzordea.**

1.-Ondorengo kideek osatuko dute, gutxienez, Elkarbizitza Batzordea:

- Ikasketa-buruak, batzordeburu gisa jardungo duenak.
- Eskola Kontseiluko kide diren bi irakaslek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez daudenek.
- Eskola Kontseiluko kide diren bi gurasok, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez daudenek.
- Eskola Kontseiluko kide diren bi ikaslek, Eskola Kontseiluko beste batzorde batzuetan ez daudenek.

Eskola Kontseiluko idazkariak, hitzarekin baina botorik gabe jardungo duenak.

2.-Ondorengoak dira Elkarbizitza Batzordearen egitekoak:

- a) Bitartekari lanak egitea ikastetxearen elkarbizitzan planteatu diren gatazketan. Halaber, bitartekaritza egiteko prozedura bat, borondatezkoa izango dena, eskaini ahal izango die aldeei, dauden desberdintasunak aldean arteko elkarriketaren bidez konpontzen saiatzeko.
- b) Eskola Kontseiluak horrela eskatuta, elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitzari kalte larria ekartzen dioten portaeren kasuetan ezarritako zigorrak berrikustea (interesatuek alegazioak aurkeztu badituzte), zigor horiek aldatzen proposatzea, errekurritzea edo berrestea.
- c) Hezkuntza-erkidegoko sektore guztien ekimenak bideratzea, ikastetxean elkarbizitza, elkarrekiko begirunea eta tolerantzia hobetzeko.
- d) Elkarbizitza-plana egin eta abian jartzeko prozesua sustatzea, baita horren jarraipena eta ebaluazioa egitekoa ere.
- e) Elkarbizitzaren arauak aplikatzeari eta, haren elkarbizitza-esparruaren barruan, agintzen zaion guztiari buruzko informazioa emango dio Batzordeak Eskola Kontseiluari.

### **32. artikulua.- Batzorde guztien arauak.**

1.-Eskola Kontseiluaren eskuordez eta aginduz jardungo dute batzorde horiek guztiek eta, betiere, Kontseiluko Osoko Bilkuraren menpe egongo dira.

2.-Edonola ere, Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak alde zuzenetik berretsi gabe gauzatu behar diren erabakiak eskuordetzen badira, Batzorde Iraunkorrek araudi honen 28.3. artikuluan ezartzen duen era berean haztatuko da botoen balioa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak xedatutakoaren arabera egindako eskuordetzeak besterik xedatzen ez badu. Kasu honetan eskuordetze horren terminoen arabera jokatuko dute zehatz-mehatz batzordeak.

### **2. atala.- Irakasleen Klaustroari buruzkoa.**

#### **33. artikulua.- Irakasleen klaustroari buruzkoa.**

1.-Ekialdea BHIko gobernu-organoa izateaz gain, irakasleek parte hartzeko berezko organoa eta koordinazio didaktikoko organorik gorena da ikastetxean klaustroa. Hezkuntza-alderdi guztiak planifikatu, koordinatu, erabaki eta beroriei buruzko informazioa ematearen ardura du.

2.-Zuzendariaren burutzapean egongo da klaustroa eta ikastetxean zerbitzuak ematen dituzten irakasle guztiek osatuko dute. Ekialdea BHIko idazkaria izango da ere klaustroaren idazkaria.

3.-Zuzendaria ez badago, ikasketa-buruaren burutzapean egongo da klaustroa eta, biak ez badaude, irakaslerik antzinakoaren burutzapean egongo da.

Irakasleen artean antzinakotasunik txikiena duenak ordezkatu du idazkaria.

4.- Ondorengoak dira klaustroaren funtzioak:

a) Ikastetxearen curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa egin eta onartzea, Ordezkaritza Organo Gorenak alde aurretik txostena egin ondoren. Izan ere, curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa ikastetxearen hezkuntza-proiektuan agertzen diren argibideetara egokitzen diren edo ez esango du Ordezkaritza Organo Gorenak.

b) Irakaskuntza-jardueren programa nola betetzen den Ordezkaritza Organo Gorenari jakinaraztea, honek urteko memoria egin dezan.

c) Ikasleen ebaluazio- eta berreskuratze-lanari buruzko irizpideka finkatu eta koordinatzea.

d) Ikasleei orientabidea eta tutoretza emateko funtzioak planifikatu eta zuzentzea.

e) Ikastetxean gauzatu beharreko esperimentazioaren edo ikerketa pedagogikoaren eremuko ekimenak sustatzea.

f) Funtzionatzeko arauak onartzea.

g) Euskal Eskola Publikoari buruzko legearen 36.3. artikuluan xedatutakoaren arabera egin den prestakuntza- eta eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programari buruzko txostena ematea, programa hori Eskola Kontseiluak onartu aurretik.

h) Legezko xedapenek eta araudiak ematen dizkioten beste edozein funtzio.

5.- Irakasleen klaustroak bere ordezkariak aukeratuko ditu ikastetxeko Eskola Kontseiluan, araudi honek 15. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

### **34. artikulua.- Irakasleen klaustroak funtzionatzeko erregimena.**

1.- Hiru hilean behin, gutxienez, eta, betiere zuzendariak deitzen badu edo kideen heren batek eskatzen badu, egingo du ohiko bilera irakasleen klaustroak. Gainera, klaustroak bilera bat ikasturtearen hasieran eta beste bat ikasturtearen bukaeran egin beharko du derrigorrean. Aparteko bilerak deitu ahal izango dira, Eskola Kontseilua deitzeko baldintza berberetan.

2.- Ikastetxeko idazkariak egingo du zuzendariak legez deitutako bilera bakoitzean jorratu denaren akta. Horretarako, akta-liburu bat egon beharko da, organo eskudun desberdinen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dena.

3.- Ikastetxeko irakasle guztiek derrigorrean joan behar dute klaustroaren bileretara eta, horregatik, irakasleren batek justifikatutako arrazoirik gabe huts eginez gero, hileko huts egiteen partean jakinarazi beharko zaio Hezkuntza Ikuskaritzari.

4.- Gehiengo absolutua eskatuko dute onartuak izateko botatzen diren klaustroaren akordioek eta kide guztien botoa pertsonala eta transferiezina izango da.

Nolabaiteko garrantzia duten gaiak aztertzen badira edo klaustroko kideen heren batek horrela eskatzen badu, boto-paper indibidualaren bidez egin beharko da botazioa eta, berehala, ikastetxeko zuzendariak eta idazkariak zenbatuko dituzte botoak. Hori guztia aktan jasota geratuko da.

5.- Irakasleen klaustroak funtzionatzearen ondorioetarako, jarraian adierazten den eran definitzen dira “gehiengo sinplea” eta “gehiengo absolutua”.

*Gehiengo sinplea:* botazioaren unean dauden irakasleen klaustroko kideen erdia gehi bat, gutxienez, da.

*Gehiengo absolutua:* irakasleen klaustroa “de iure “ osatzen duten kide guztien erdia gehi bat, gutxienez, da.

6.-Klaustroak funtzionatzeko gainontzeko alderdian, araudi honen 26.3. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

### **35. artikulua.- Klaustroko batzordeak.**

1.-Araudi honen 53. artikuluan aipatzen den Aholkularitza Batzordea irakasleen klaustroko batzorde bat da eta klaustroak emandako orientabide eta irizpideen arabera bete beharko ditu bere eskuduntzak.

2.-Halaber, irakasle-taldeak maila guztietan, talde mailakotik etapa mailakoraino, baita araudi honen 47. artikuluan aipatzen diren departamentu didaktikoak eta Orientabide Zerbitzua ere, klaustroko batzordeak dira, irakaskuntzak koordinatzeko eta irakasle-talde bakoitzari esleitu zaizkion ikasleei eman beharreko orientabiderako.

## **3. atala. Zuzendaritza-taldeari buruzkoa.**

### **36. artikulua.- Zuzendaritza-taldea.**

1.-Kide bakarreko gobernu-organoak Ekialde BHIko zuzendaritza-taldea dira eta era koordinatuan jardungo dute haien funtzioak betetzeko orduan.

2.-Zuzendaritza-taldeak bere bileretara etortzera gonbidatu ahal izango du, aholku-emaile gisa, hezkuntza-erkidegoko edozein kide. Halaber, nahi dituzten funtzioak ikastetxeko irakasleengan eskuordetu ahal izango dituzte, ziklo edo etapa mailako koordinatzaileengan edo proiektu zehatzen ardura duten irakasleengan batez ere.

3.-Ekialdea BHIIn kide bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza-taldea:

- Zuzendaria
- Ikastetxeko zuzendariordeak,
- Ikasketa-buruak,
- Ikasketa-buruaren albokoak,
- Idazkariak eta
- Idazkariordeak.

### **37. artikulua.- Zuzendaritza-taldearen funtzio eta eskuduntzak.**

1.-Ondorengoak dira zuzendaritza-taldearen funtzioak:

a) Zuzendariari laguntza ematea ikastetxearen zuzendaritza eta koordinazioari buruzko irizpideak hartzeko orduan, baita funtzionamenduari buruz erabakirik garrantzitsuenak hartzeko orduan ere.

b) Kudeaketa-proiektua, prestakuntza- eta eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa-programa egitea, guztiak Eskola Kontseiluak onar ditzan.

c) Aurreko atalean aipatutako programak gauzatzeko prozesua koordinatu eta ikuskartzea, baita nola betetzen diren Eskola Kontseiluari jakinaraztea ere, honek ikastetxearen urteko memoria onar dezan.

d) Urteko memoriaren zirriborroa egitea, Eskola Kontseiluan eztabaidatzeko.

e) Euskal eskola publikoko beste ikastetxe batzuekin lankidetzan jarduteko harremanak Eskola Kontseiluari proposatzea. Halaber, beste kultur eta hezkuntza-erakunde batzuekin

hitzarmenak izenpetzeko proposamenak egitea, Eskola Kontseiluak, nahi badu, proposamen horiek hezkuntza-administrazioari helaraz diezazkion.

f) Irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte bakoitzaren hasieran irakasleak haien jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea, arlo hori erregulatzen duten arauen arabera.

g) Ikastetxera iristen diren deialdi, zirkular, ebazpen eta xedapenen berri irakasleen klaustroari zehatz-mehatz eta publikoki ematea.

2.-Zuzendaritza-taldeak Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren parte-hartzea izango du b) eta d) atalen funtzioak betetzeko orduan eta agiri horiek egiteaz arduratuko da.

3.-Zuzendaritza-taldea, bere funtzioak betetzeko, behar adina aldiz bilduko da ikasturtean zehar ikastetxeko zuzendariarekin.

### **III. KAPITULUA: KIDE BAKARREKO GOBERNU-ORGANOAK.**

#### **38. artikulua.- Zuzendaria.**

1. Ekialdea BHIko zuzendaria ikastetxearen ordezkaria da ondorio guztietarako, hezkuntza-administrazioaren berezko ordezkaria da ikastetxean eta kide anitzeko gobernu-organoen burua da.

2. Ondorengoak dira zuzendariaren egitekoak:

a) Ikastetxearen ordezkari ofiziala izatea eta hezkuntza-administrazioaren ordezkaria izatea ikastetxean.

b) Ikastetxearen funtzionamendua zuzendu eta koordinatzea; ekitaldi akademikoak eta ikastetxeko kide anitzeko organo guztien bilerak deitu eta horien buru izatea.

c) Ikastetxea kudeatzeko urteroko programaren arabera gastuak baimentzea eta ordainketak egiteko agindua ematea.

d) Euskal Eskola Publikoari buruzko legearen 63. artikuluan aipatzen diren obrak, zerbitzua keta hornikuntzak kontratatzea.

e) Ziurtagiri eta agiri ofizialak bisatzea.

f) Legeak eta indarrean dauden gainontzeko xedapenak betetzea eta betearaztea.

g) Eskola Kontseiluari entzun ondoren, ikastetxeko zuzendaritza-kargu desberdinak bete behar dituzten irakasleak izendatzea, hezkuntza-administrazioak geroago izendatu ditzan.

h) Ikastetxera atxikitako pertsonal guztiaren buru izatea.

i) Klaustroari entzun ondoren, ikasleek ikastetxeko lokalak irakaskuntza-jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko nola erabili behar dituzten zehaztea; Eskola Kontseiluari entzun ondoren, ikasleek eskolaz kanpoko jarduerak egiteko, ikasleen eta gurasoen elkarteek funtzionatzeko eta hezkuntza-erkidegoko sektore desberdinak biltzeko eskubideaz baliatzeko ikastetxeko lokalak nola erabili behar diren zehaztea; Eskola Kontseiluari entzun ondoren, eskolaz kanpoko orduetan ekitaldiak egiteko lokalak ikastetxearekin zerikusirik ez duten erakundeei uzteko eskaerak, aldeko edo kontrako txostenarekin, Lurralde Ordezkaritzari bidaltzea.

j) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkietenak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko organoek eskuordetzen dizkietenak eta Eskola Kontseiluak agindu ahal dizkionak.

3.-Aldi baterako hutsegiteetan, gaixotasunarengatik, baimen ofizialarengatik edo indarreko legeriak onartutako beste antzeko egoera batzuegatik, zuzendariordeak beteko ditu ikastetxeko zuzendariaren funtzio guztiak. Aparteko kasuetan hezkuntza-administrazioak behar den irtenbidea bilatuko du.

### **39. artikulua.- Ikasketa-burua.**

1.-Ikasketa-burua, zuzendariaren eskuorde gisa eta berorren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoari lotutako guztian eta departamentu buruen eta tutoreen jarduerak koordinatuko ditu.

2.-Ikasketa-buruak, zuzendaritza-taldeko kidea den aldetik dagozkion eskuduntzez gain, bere gain du curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa gauzatzeko prozesua koordinatzearen eta zuzenean zaintzearen ardura eta, zuzendaritza-taldeak onartutako irizpideen arabera, funtzio hauek bete behar ditu:

a) Hutsegitearen edo gaixotasunaren kasuan zuzendaria ordezkatzeari, ikastetxean zuzendariordea izendatu ez bada.

b) Jarduera akademiko, osagarri eta eskolaz kanpokoak koordinatzea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuari, curriculum-proiektuari eta urteko programazio orokorrari begira.

c) Ordu-tegi akademikoak egin eta nola betetzen diren kontrolatzea.

d) Ikastetxean dauden irakaskuntza-departamentu desberdinen lanak koordinatzea.

e) Tutoreen eta ikastetxera atxikitako gainontzeko irakasleen jarduera koordinatu eta zuzentzea, ezarritako programazioen eta tutoretza-jarduerarako planen arabera.

f) Irakasle bakoitzari ikastetxearen unitate bat edo batzuk esleitzea eta irakasle-taldeak antolatzea.

g) Hezkuntza-erkidegoko kide desberdinen arteko elkarbizitza, begirunea eta tolerantzia sustatzea, ikasle eta irakasleen eskubide eta betebeharreri buruzko araudia beteko dela bermatuz.

h) Ikastetxearen gobernu-organoei, beren eskuduntzen esparruan, agintzen dioten beste edozein funtzio.

### **40. artikulua.- Idazkaria.**

1.-Zuzendariaren eskuorde gisa eta berorren agintepean ikastetxeko administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren burua izango da.

2.-Idazkariak, zuzendaritza-taldeko kidea den aldetik dagozkion eskuduntzez gain, funtzio hauek izango ditu:

a) Eskola Kontseiluaren, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eta klaustroaren bileren gai-zerrendan sartu behar diren gaiak prestatzea, organo horien buruak ezarritakoaren arabera.

b) Ikastetxeko zuzendariak formalki deitutako kide anitzeko organoen bilera guztien akta egitea.

c) Ikastetxeen aktak, espedienteak eta berezko dokumentazioa zaintzea eta organoen eskura izatea. Ikastetxearen material didaktikoa zaintzea.

d) Zuzendariaren oniritziarekin, ikastetxearen kide anitzeko organoen egintza, ebatzen eta akordio guztiak ziurtatzea, baita ikastetxeen aurrekariak, liburuak eta agiriak ere.

e) Arau-xedapen desberdinek agintzen dizkieten gainontzeko funtzioak.

### **41. artikulua.- Kide bakarreko gobernu-organoei izendatu eta kargugabetzeko proposamenak.**

Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta arau-xedapenek zehaztutakoaren arabera jokatu da kide bakarreko organoei izendatu eta kargugabetzeko proposamenak egiteko orduan.

#### **42. artikulua.- Zuzendaritza-taldeko kideen ordezkapena.**

1.-Zuzendariaren hutsegitearen edo gaixotasunaren kasuan, zuzendariordeak behin-behingo beteko ditu haren funtzioak eta, zuzendariordea ez badago, ikasketa-buruak.

2.-Ikasketa-buruaren hutsegitearen edo gaixotasunaren kasuan, Ikasketa Burutzaren albokoak behin-behingo beteko ditu haren funtzioak eta OOGri emango dio bere erabakiaren berri.

3.-Halaber, idazkariaren hutsegitearen edo gaixotasunaren kasuan, zuzendariordea ez badago, zuzendariak izendatzen dituen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak eta OOGri jakinaraziko dio.

4.-Zuzendariaren hutsegitearen edo gaixotasunarengatik zuzendariordea edo ikasketa-burua jardunean ari bada, zuzendariaren eskuduntza guztiak izango ditu, baita artikulua honen 2. eta 3. ataletan agertzen direnak ere.

### **IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA-KOORDINAZIOKO ORGANOAK.**

#### **43. artikulua. Ekialdea BHIko koordinazio-organoak.**

1.-Ekialdea BHIin irakaskuntza-koordinazioko organo hauek izango dira:

- Orientabide departamentua.
- Departamentu didaktikoak.
- Batzorde Pedagogikoa.
- Zuzendaritzari aholkua emateko batzordea.
- Mailako tutoreen taldea.

Talde, ziklo edo etapa mailako irakasle-taldeak.

#### **I. atala. Orientabide departamentua.**

#### **44. artikulua.- Orientabide departamentuaren osaketa.**

Ondorengo kideek osatuko dute orientabide departamentua:

- a) Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleek.
- b) Curriculum-aniztasuneko taldeen, berariazko hezkuntzan esku-hartzearen eta hezkuntza osagarriaren irakasle arduradunek.
- c) Pedagogia Terapeutikoan espezialistak diren maisu-maistrek.
- d) Zereginen Ikaskuntzako gelez arduratzen diren irakasleek.

#### **45. artikulua.- Orientabide departamentuaren funtzioak.**

1.-Orientabide departamentuak, oro har, bere gain hartuko du indarreko legeriak agintzen dizkion funtzioen ardura, ikasturtearen antolaketari buruzko Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak ikasturte bakoitzerako adierazten dituenak zehatzago. Kide bakoitzak, departamentuaren funtzio komunak partekatzeaz gain, bere gain hartuko du aipatutako ebazpenaren arabera indibidualki dagozkionen ardura.

2.-Funtzio horiek aldatu bitartean, 2008/2009ko ebazpenak azaltzen dituenak izango dira.

#### **46. artikulua.- Orientabide departamentu burua izendatzea.**



1.-Zuzendariak Psikologia eta Pedagogia espezialitateko irakasleen artean izendatuko du, urtero, Orientabide departamentuaren burua, departamentuari berari entzun ondoren eta maila akademikoaren eta espezialitatearen irizpideak errespetatuz.

2.-Salbuespen gisa, zuzendaritza-karguren bat betetzen duenari ezin izango zaio inoiz departamentu buru izendatu, goragoko maila akademikoa izan arren.

3.-Departamentu buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatzen ditu, bilerak deitzen ditu, haren burutzapean egiten dira bilera horiek eta departamentuak funtzio guztiak betetzeaz arduratzen da.

## **II. atala. Departamentu didaktikoak.**

### **47. artikulua.- Departamentu didaktikoen izaera eta osaketa.**

1.-Departamentu didaktikoek beren gain hartzen dute agintzen zaizkien arlo, irakasgai edo moduluen irakaskuntzak antolatu eta garatzearen ardura. Departamentu buruaren zuzendaritzapean, arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleen arteko koordinazioa, edo arlo edo irakasgai baliokideetako irakasleen artekoa, bermatzea dute helburu. Talde horien lana kide guztien ardura da.

2.-Irakasle guztiek astean ordu bat eskaini beharko diete departamentuaren ohiko bilerei, beharrezkoa dela iruditzen zaionean, edo kideen heren baten eskariz, departamentu buruak deitu ahal dituen aparteko bileren kalterik gabe.

3.-Asteko ordutegian ordu kopururik handiena duten arlo, irakasgai edo moduluak esleituta dituen departamentu didaktikoan sartuta egongo dira irakasle guztiak. Irakasle batek irakasgaiak bi departamentu didaktikotan edo gehiagotan ematen baditu, ordu kopururik handiena ematen duen irakasgaiei dagokien departamentuko kidea izango dela interpretatuko da, ematen dituen beste irakasgaien ardura duten departamentuen bileretara joateko eta departamentu horien lan eta erabakietan parte hartzeko aukera izango duen arren.

4.-Modulu, arlo edo irakasgaiak departamentu bati atxikita ez badaude, departamentu desberdinetako irakasleek emateko aukera badute eta indarreko legeriak modulu, arlo edo irakasgai horiek esleitzeko lehentasuna ezartzen ez badu, zuzendariak, koordinazio pedagogikoko batzordearen proposamenez, irakaskuntza horiek departamentu horietako bati atxikiko dizkio. Buruaren agindupean, departamentu horrek berorren gain hartuko du, modulu, arlo edo irakasgai horiei begira, hurrengo artikuluan aipatzen diren gai guztiak konpontzearen eta lan guztiak egitearen ardura.

### **48. artikulua.- Departamentu didaktikoen eta departamentu buruen funtzio eta eskuduntzak.**

Departamentu didaktikoek eta beren buruek urtero beren gain hartuko dute, ikasturtearen antolaketari eta indarreko gainontzeko legeriari buruz, Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak ematen dizkien lanen ardura.

### **49. artikulua.- Ekialdea BHIko departamentu didaktikoen kopurua eta izena.**

Departamentu didaktiko hauek osatu dira Ekialdea BHI, ikasturtearen antolaketari buruzko Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak xedatutakoaren arabera:

Biologia-Geologia

Euskara

Filosofia  
Fisika eta Kimika  
Gaztelania  
Gizarte Zientziak  
Gorputz Hezkuntza  
Hizkuntz Normalkuntza  
Hizkuntza Klasikoak

Matematikak  
Musika  
Plastika eta Ikus Adierazpena  
Teknologia  
Orientabidea  
Ekonomia  
Proiektu Europarrak  
Informatika

Ingelesa,

**Mintegi didaktikoen osaketa eta kopurua osatzen dituzten irakasleen kopuruaren menpe egongo dira, aukerako irakasgaien eta ikastetxearen proiektu eta premien arabera.**

### **50. artikulua.- Departamentu didaktikoen buruak izendatzea.**

1.-Zuzendariak urtero izendatuko ditu departamentu didaktikoen buruak, departamentu horretako irakasleen artean. Horretarako, aldez aurretik entzun beharko zaio interesatuari eta, betiere, maila akademikoaren eta espezialitatearen irizpideak errespetatuko dira.

2.-Salbuespen gisa, zuzendaritza-kargu bat betetzen duenari ezin izango zaio inoiz departamentu buru izendatu, gorgogoko maila akademikoa izan arren.

3.-Departamentu buruak haren jarduerak zuzendu eta koordinatzen ditu, bilerak deitzen ditu, bilera horien buru da eta funtzio guztiak betetzeaz arduratzen da.

## **III. atala. Koordinazio Pedagogikoko Batzordea.**

### **51. artikulua.- Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen osaketa.**

Koordinazio Pedagogikoko Batzorde bat egongo da Ekialdea BHIn eta zuzendariak, batzordeburua izango denak, ikasketa-buruak eta departamentu buruek osatuko dute. Departamentu buru gazteenak idazkari gisa jardungo du.

### **52. artikulua.- Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen eskuduntzak.**

1. Koordinazio Pedagogikoko Batzordea irakasleen klaustrorako batzorde bat da. Haren funtzio nagusia curriculum-proiektua, baita egin daitezkeen aldaketak ere, egiteko prozesua koordinatzea da.

2. Egiteko hori betetzeko, irakasleen klaustroaren ikuskatzepean, eskuduntza hauek izango ditu:

- a) Etapako curriculum-proiektuak egin eta berrikusteko argibide orokorrak zehaztea.
- b) Etapako curriculum-proiektuak, eta haien aldaketak, egin, idatzi eta berrikusteko prozesua ikuskatzea eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datorrela bermatzea.
- c) Etapako curriculum-proiektuan dauden departamentuen programazio didaktikoak, orientabide akademiko eta profesionaleko plana eta tutoretza-jarduerarako plana egin eta berrikusteko argibide orokorrak ezartzea.
- d) Curriculum-proiektuak klaustroari proposatzea, onar ditzan.
- e) Etapako curriculum-proiektuak betetzeaz eta, geroago, ebaluatzeaz arduratzea.
- f) Ebaluazio- eta kalifikazio-saioen planifikazio orokorra eta azterketen edo aparteko proben egutegia klaustroari proposatzea, ikasketa-burutzarekin bat etorrita.
- g) Etapa bakoitzaren curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza-alderdiak, urteko programazio orokorra, ikastetxearen eskola-errendimenduaren bilakaera eta irakasteko prozesua irakasleen klaustroari proposatzea.

h) Ikastetxearen ekimen eta proiektu guztien ebaluazioa sustatzea, gobernu-organoen edo hezkuntza-administrazioaren ekimenez aurrera eramaten diren ebaluazioetan laguntzea eta hobekuntza-planak bultzatzea, ebaluazio horien ondorio gisa beharrezkotzat jotzen bada.

### **53. artikulua.- Zuzendaritzari aholkularitza emateko batzordea.**

1.- Zikloko koordinatzaileek, orientatzaileak eta zuzendaritza-taldeak osatzen dute.

2.- Ondorengoak dira Aholkularitza Batzordearen lanak:

- Programazio didaktikoak, orientabide plana eta tutoretza-jarduerarako plana egin eta berrikusteko irizpide orokorrak zehaztea.
- Ziklo eta arloen arteko irizpide bateratuak finkatzea, baita ziklo desberdinei eragiten dieten jarduerak koordinatzea ere.
- Irakasle-taldeen lana koordinatzea.
- Ebaluazio eta ebaluazioaren aurreko saioren plangintza orokorra klaustroari proposatzea, ikasketa-burutzaren arabera.
- Ikastetxean ezarritako jarduera eta proiektu guztien ebaluazioa sustatzea.
- Irakaskuntza-koordinazioa gauzatzeko lagungarri diren funtzio guztiak.

3.- Zikloko koordinatzaileak funtzio hauek ditu:

- Mailako tutoreen bileretan egotea.
- Bilera hauen ondoriozko jarduerak koordinatzea.
- Tutoreen eta irakaskuntza-koordinazioaren organo desberdinen arteko zubigintza-lana egitea:
- Tutoretza-bileretan inportanteak izan diren gai guztiak irakaskuntza-koordinazioari jakinaraziz.
- Zuzendaritzari aholkularitza emateko batzordetik datorren informazio guztia tutoreei helaraziz.
- Irakasle-taldeen lana sustatu eta erraztea, horretarako prestatutako informazio eta material guztia tutoreei helaraziz.
- Tutoretza-bileretan hartu diren eta gainontzeko irakasleei eragiten dieten akordioak departamentu buruen bileretan jakinaraztea.

## **IV. atala. Tutoretzak eta talde mailako irakasle-taldeak.**

### **54.- Tutoretza eta tutoreen izendapena.**

1.- Ikasleen tutoretza eta orientabidea irakaskuntza-funtzioaren atala da.

2.- Ekialdea BHIIn ikasle talde bakoitzak tutore bat izango du.

3.- Zuzendariak, ikasketa-buruaren proposamenez, taldean klasea ematen duten irakasleen artean izendatuko du tutorea, ikasturtea antolatzeari buruzko Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak azaldutako argibideen arabera.

4.- Ikasketa-buruak tutoreen lana koordinatuko du eta tutoretza-jarduera behar bezala gauzatzeko behar diren bilerak izango ditu.

### **55. artikulua.- Tutoreen funtzioak.**

Tutoreek ikasturte bakoitzean beren gain hartuko dute ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenak esleitutako funtzio eta lanen ardura.

### **56. artikulua.- Talde mailako irakasle-taldearen osaketa eta erregimena.**

1.- Taldeko ikasleei klasea ematen dieten irakasle guztiak osatuko dute taldeko irakasle-taldea eta tutoreak koordinatuko du.

2.- Ebaluazioari buruzko araudian xedatutakoaren arabera bilduko da irakasle-taldea, baita, taldeko tutorearen proposamenez, ikasketa-buruak bilera deitzen duen guztietan ere.

### **57. artikulua.- Gelako irakasle-taldearen funtzioak.**

Hauek izango dira gelako irakasle-taldearen funtzioak.

a) Taldeko ikasleen ebaluazioa eta jarraipen globala aurrera eramatea, haien ikaskuntza hobetzeko behar diren neurriak ezarriz, ebaluazioari buruzko legeria espezifikoa zehaztutako terminoetan.

b) Taldeko elkarbizitza-giroa hobetzeko behar diren jarduerak ezartzea.

c) Taldean sortzen diren gatazkak koordinazioz aztertzea, konpontzeko behar diren neurriak jarritz.

d) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien irakatsi eta ikasteko jarduerak koordinatzen saiatzea.

e) Taldeko ikasle bakoitzaren guraso edo tutoreei ematen zaien informazioa ezagutu eta emateko orduan parte hartzea.

f) Ikastetxearen barne araudiak ezartzen duen beste edozein.

### **58. artikulua.- Koordinatzeko beste era batzuk.**

1.- Halaber, eta ikasturtearen hasierari buruzko Hezkuntza Sailburuordetzaren ebazpenak ikasturte bakoitzerako xedatzen duena erreferentziatuz hartuz, zikloak koordinatzeko neurriak hartu beharko dira.

a) Irakasle-taldearen koordinazio pedagogikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi zikloen artean.

b) Ekialdea BHI atxikita dituen Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin komunikatu eta lankidetzan jardutea.

c) Ikastetxea derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntzako hurrengo etapetako irakasle-taldeekin komunikatu eta haiekin lankidetzan jardutea.

## **V. KAPITULUA. ESKOLA-JARDUERAREN KANPO ESPARRUA.**

### **59. artikulua.- Ikasleen kontrola.**

1.- Ekialdea BHI bere gain du eskola-jardunaldian matrikulatuta dauden ikasleen ardura. Irakasle guztiak, beren karguaren arabera, ikasketa-buruaren agindupean jardungo dute ikasleak kontrolatzeko orduan.

### **60. artikulua.- Zaintza-irakasleak.**

1.- Ikastetxeak zaintzen sistema bat ezarriko du, egunean gerta daitezkeen gorabeherei arreta emateko behar diren irakasleekin. Esleitutako zaintza-orduak irakasle bakoitzaren ordutegi pertsonalean agertuko dira.

2.- Zaintza-irakasleak ondorengo funtzioak, gutxienez, beteko ditu:

- Irakasleen hutsegiteak eta puntualtasun faltak kontrolatu eta zaintza-partearen bidez Ikasketa Burutzari jakinaraztea.

- Irakaslearen hutsegitearengatik klaserik gabe geratzen diren ikasleei eta jolasaldietan arreta ematea.

- Pasabideetan eta, oro har, geletatik at ordena zaintzea. Funtzio horretan jarduteak ez du gainontzeko irakaslek hori egin behar ez dutenik esan nahi.
- Zaintza-txandan gerta daitezkeen gorabeherak konpontzea, zuzendaritza-taldeari berehala jakinaraztearen kalterik gabe.
- Gela guztietan irakasle bat dagoela egiaztatzea.

3.-Zaintza-irakasleren batek ustekabeen huts eginez gero, Ikasketa Burutzak ordezkotzat jarriko du, betiere irakasle horrek egon behar duela ordutegi pertsonalak esaten duen orduetan.

### **61. artikulua.- Liburutegia eta haren erabilpena.**

Funtsezko elementu bat izango da ikastetxean, ematen diren irakaskuntzen bizkarrezurra eta kultur jarduera osagarrien bultzatzailea den aldetik.

1.-Ekialdea BHIren liburu guztiak prozedura orokorren arabera artxibatu eta sailkatuko dira. Haien jatorria, eskuratzeko erabili diren baliabide ekonomikoak eta kokatuta dauden ikastetxearen lokala zeintzuk diren alde batera utzita, ikastetxeko liburutegia osatuko dute.

2.-Liburutegian arreta emateko behar diren orduak sartu beharko dira irakasleen ordu osagarrien artean. Klaserik ez duten ikasle talderen bat baldin bada go ikastetxean eta irakasleak horretarako libre badaude, liburutegiak irekita egon beharko du.

3.-Ekialdea BHIko ikasleei liburuak etxean mailegatzeko zerbitzua ezarriko du liburutegiak. Mailegatzeko epea ezin izango da hamabost egunetik gorakoa izan baina eman ahal izango da liburuak iraupen bereko beste aldi baterako mailegatzeko baimena, mailegatutako liburuak beste ikasle batek eskatu ez badu.

4.-“Liburutegiaren araudian “ azalduko den aldi baterako zehaztuko da liburuak irakasleei, mintegiei/departamentuei edo ikastetxeko beste pertsonal bati mailegatzeko zerbitzua.

5.-Liburutegiak hartu ahal izango ditu beste udal liburutegi edo liburutegi publiko batzuetatik jasotako maileguak, haren baliabide bibliografiko, bideografiko edo kartografikoak areagotu eta aberastu ahal izateko moduan.

### **62. artikulua.- Lanak irakasleei banatzea.**

1.-Zuzendaritza-taldeak ikasturte bakoitza hasi aurretik erabaki beharko ditu irakasleei lanak banatzeko irizpideak eta ikasketa-buruak aplikatuko ditu irizpide horiek. Irizpideak hauek izango dira: legezketasunaren irizpideak, irizpide pedagogikoak eta egokitasunaren irizpideak.

2.-Aurreko paragrafoan ezarritakoa errespetatuz irakasleek aukeratu behar dituzten lanen kasu horietan, kategoria akademikoaren eta irakasleak kidegoan eta ikastetxean, orden honetan, duen antzintasunaren txanda tradizionala errespetatuko da. Edonola ere, irizpide hauek aplikatzearen ondorioz irakasle berak ezin izango dira hurrenez hurreneko bi ikasturtetan ordutegian kaltetuak izan.

3.-Edonola izanda ere, ikasleen eskubideen eta irakasleen eskubideen arteko arazoak konpontzeko kontuan hartuko dira irakasleen eginbeharrek ikasleak helburutzat izan behar dituztela.

### **63. artikulua.- Ordutegiak azaltzea.**

Irakasle gelan, zaintza-irakaslearentzako lokalean eta ikastetxea bisitatzen dutenak erraz iristeko moduko toki batean, etengabe iragarrita egongo da ikasle taldeen eta irakasleen klase-orduak azaltzen dituen ordutegi orokorra, baita zaintza eta liburutegiaren ordutegiak ere.

#### **64. artikulua.- Lokalen erabilpena eta hornikuntza.**

1.- Talde bakoitzak gela bat izango du eta bertan ohiko eskola-jarduera gehienak egingo ditu. Ikasleak gela horren altzariez arduratuko dira.

2.- Talde guztien premiei arreta eman ahal izateko moduan esleituko dira jarduera espezifikotarako espazio komunak. Erabiltzaileek material eta altzariak zainduko dituzte.

3.- Espazio zehatz batera atxikita ez dauden baliabide didaktiko komunak erabiltzeko, irakasle bakoitzak egun bat lehenago eskatuko dizkio arduradunari eta, jasotzen dituenetik itzultzen dituenara arte, baliabide horien arduraduna izango da.

#### **65. artikulua.- Eskola-esparrutik irtetea.**

1.- Jarduera osagarriren batek ikastetxetik irtetea eskatzen badu, ikasleek irakasleen laguntzarekin joan beharko dute. Irteerak ikasleek gaua etxetik kanpoan pasa behar izatea ez badakar, ikasleen kopurua kontuan hartuta etapa horretarako ezarritakoaren arabera izan beharko du irakasleen kopuruak.

2.- Irteerak adin txikiko ikasleek gaua etxetik kanpoan pasa behar izatea badakar, aurreko atalean esandakoaz gain, beste irakasle batek, edo Eskola Kontseiluak agindutako heldu batek, egon beharko du adin txikiko hogeik ikasleko.

3.- Kasu batean zein bestean Ekialdea BHI da, eskola-jarduerak bukatu arte, ikasleen arduraduna.

4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasle guztiek eskola-esparruaren barruan egon beharko dute jolasaldietan.

## **VI. KAPITULUA. PARTE HARTZEKO ORGANO ESPEZIFIKOAK**

### **I. atala. Ikasleek parte hartzeko organo espezifikoak.**

#### **66. artikulua.- Parte hartzeko organo espezifikoak.**

Hezkuntza-erkidego guztiak OOGren bidez duen parte-hartzeaz gain, ikasleek eta ikasleen gurasoek beren elkarteen edo organo espezifikoen bidez ere parte hartu ahal izango dute.

#### **67. artikulua.- Ikasleek parte hartzeko organo espezifikoak.**

Talde eta kurtsoko delegatuak eta delegatuen batzarra izango dira ikasleek Ekialdea BHIIn parte hartzeko organo espezifikoak.

#### **68. artikulua.- Taldeko delegatuak.**

1.- Ikasle talde bakoitzak, bozkatzeko zuzen eta sekretuaren bidez, kurtsoko delegatu bat aukeratuko du, ikasturtearen lehen hilabetearen eta ikasturte osorako. Delegatu hori ikasleen delegatuen batzarrean izango da. Delegatuorde bat ere aukeratuko da, hutsegitearen edo gaixotasunaren kasuan delegatuaren egitekoak beteko dituena. Haren funtzioetan lagunduko dio.

2.-Ikasketa-buruak antolatu eta deituko ditu kurtsoko delegatuak eta delegatuordeak aukeratzeko prozesuak eta bozketarako arauak ezarriko ditu, artikulu honen 3. atalean ezartzen dena errespetatuz eta taldeetako tutoreekin eta ikasleek OOGn dituzten ordezkariekin lankidetzan.

3.-Edonola ere, taldeko ikasle guztiak hautesle eta hautatu ahal izateko modukoak izango dira, hautagaitza aurkeztu behar izan gabe. Botazioan ikasle bakoitzak izen bakarra sartu ahal izango du boto-paperean. Boto gehien jaso duen ikaslea delegatua izango da eta boto kopuruetan hurrengoa delegatuordea. Lortutako boto kopuruan berdinketa gertatuz gero, ikaslerik zaharrena izango da kurtsoko delegatua eta hurrengoa delegatuordea.

4.-Taldeko ikasleen gehiengo absolutuak delegatuak eta delegatuordeak baliogabetu ahal izango ditu, tutoreari zuzendutako txosten arrazoitu bat aldeztu aurretik egin ondoren. Kasu honetan hauteskunde berriak deituko dira, hamabost eguneko epe batean eta aurreko atalean ezarritakoaren arabera. Berdin jokatuko da onartutako dimisioen kasuan.

5.-Delegatuei ezin izango zaie zigorrik ezarri araudi honek agintzen dizkien funtzioetan jarduteagatik.

#### **69. artikulua.- Taldeko delegatuen funtzioak.**

Ekialdea BHIko taldeetako delegatuek funtzio hauek izango dituzte:

- a) Delegatuen batzarraren bileretara joan eta haren deliberazioetan parte hartzea.
- b) Ordezkatzen duten taldearen iradokizun eta erreklamazioak gobernu- eta koordinazio didaktikoko organoei azaltzea.
- c) Kurtsoko ikasleen elkarbizitza sustatzea.
- d) Tutorearekin eta gainontzeko irakasleekin lankidetzan jardutea ordezkatzen duten kurtsoaren funtzionamenduari eragiten dioten gaitan.
- e) Ikastetxeak ondo funtzionatzeko irakasle eta gobernu-organoekin lankidetzan jardutea.
- f) Ikastetxearen materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzeaz arduratzea.
- g) Irakaslea ez badago, zaintza-irakasleari ahalik eta lasterren abisu ematea.
- h) Ikastetxeko gobernu-organoei agindu edo eskuordetzen dizkieten gainerako funtzioak.

#### **70. artikulua.- Delegatuen batzarraren osaketa eta funtzionatzeko erregimena.**

1.-Euskal Eskola Publikoaren Legeak 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, ikasleen delegatuen batzarra izango da ikasleek ikastetxearen kudeaketan duten parte-hartze espezifikoa arautzen duen organoa.

2.-Ekialdea BHIk ikasleen delegatuen batzar bat izango du, ondorengo kideek osatuko dutena: talde desberdinetako ikasleek libreki hautatutako delegatuek eta ikasleek ikastetxeko OOGn dituzten ordezkari guztiek.

3.-Delegatuen batzarrak bere funtzionamendu-arauak egingo ditu. Ikasketa-buruak onartu ondoren sartuko dira indarrean eta, bakarrik araudi honen arauen baten edo ikasleen eta hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideen kontra badoaz, izango du ikasketa-buruak funtzionamendu-arau horiek kontra agertzeko ahalmena.

4.-Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean egon litekeen aniztasuna eta delegatuen batzarraren beraren eraginkortasuna, betiere, babestu beharko dira.

5.-Bilerak egiteko espazio egoki bat emango dio zuzendariak delegatuen batzarrari, baita behar bezala funtzionatzeko baliabide materialak ere.

6.-Delegatuen batzarreko kideek, beren funtzioetan jardutean, izango dute OOGren bilkuren aktak eta ikastetxearen beste edozein administrazio-dokumentazio ezagutu eta kontsultatzeko eskubidea, ezagutu eta hedatuz gero pertsonen intimitatearen eskubideari eragingo liokeen hori izan ezik.

### **71. artikulua.- Delegatuen batzarraren funtzioak.**

Ekialdea BHiko taldeetako delegatuek funtzio hauek izango dituzte:

- a) Hezkuntza-Proiektua, Urteko Plana eta Ikastetxearen Urteko Memoria egiteko eta eskola-jardunaldia antolatzeko proposamenak zuzendaritza-taldeari helaraztea.
- b) Ikasleek OOGn dituzten ordezkariari aholkularitza eta laguntza ematea, baita talde edo kurtsu bakoitzaren egoerari buruzko informazioa ere.
- c) Ikasleek OOGn dituzten ordezkariak emandako informazioa jasotzea, gai-zerrendaren puntuei, landu diren gaiei eta hartu diren akordioei buruzkoa.
- d) OOGrako txostenak egitea, haien ekimenez edo OOGren eskariz.
- e) AJA (ROF) aldatzeko proposamenak egitea, dituzten eskuduntzen esparruan.
- f) Batzar horren jarduerari buruzko informazioa ikasleei ematea.
- g) Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak gauzatzeko proposamenak egitea.
- h) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa jasotzea eta praktika horien jarraipenean parte hartzea.
- i) Ikasleei era espezifikoan eragiten dien beste edozein jarduera edo erabaki.

## **II. atala. Gurasoen batzarra, ikasleen gurasoen elkarteak eta ikasleen elkarteak.**

### **72. artikulua.- Gurasoen batzarra.**

1.-Ekialdea BHiko gurasoen batzarra da gurasoek ikastetxearen kudeaketan era espezifikoan parte hartzeko organoa. Ikasleen guraso eta tutore guztiek osatuko dute. Ikastetxeko zuzendariak batzarra deitu eta batzarburu gisa jardungo du, ikasturte bakoitzaren hasieran behin, betiere artikulua honen beronen 2. eta 3.e) ataletan agertzen diren ahalmenen arabera beste prozedura bat erabakitzen ez bada.

2.-Gurasoen batzarrak izango du, boto zuzen eta sekretuaren bidez, barne organo bat aukeratzeko eskubidea. Organo horrek bilerak prestatuko ditu eta erabakiak nola gauzatzen diren kontrolatuko du.

3.-Gurasoen batzarrak funtzio hauek izango ditu:

- a) Nahi dituen proposamenak, haien eskuduntzak diren gaiei buruzkoak, ikastetxearen gainontzeko organoei helaraztea. Proposamen horien artean, besteak beste, ondorengo gaien balorazioa sartuko da: irakaskuntza-jardueren programa, prestakuntza- eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak eta urteroko kudeaketa-programa.
- b) Zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin harremanak izatea, ikastetxearen hezkuntza-proiektua gauzatzeko orduan ahalik eta lankidetzarik handiena lortzeko.
- c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan era aktiboan parte har dezaten.
- d) Kide anitzeko organoetan gurasoen ordezkariari egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezatela eskatzea.
- e) Funtzionamendu-arauak onartzea.

### **73. artikulua.- Ikasleen gurasoen elkarteak eta ikasleen elkarteak.**

1.-Ekialdea BHik ezagutuko ditu, egoitza-helbidea emango die eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzeko erraztasunak emango dizkie indarreko otsailaren 10eko 66/1987 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzen dituenak, xedatutakoaren arabera osatu diren ikasleen gurasoen elkarteak. Halaber, egoitza-



helbidea emango die eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzeko erraztasunak emango dizkie legez eratu diren ikasleen elkarteei.

2.-Ikastetxeko zuzendariak zehaztu beharko ditu legez eraturako elkarteek era iraunkorren erabili behar dituzten lokalak. Halaber, elkarteetako ordezkarien eskariz, eman ahal izango du, behin-behineko, lokal komunak erabiltzeko baimena.

3.-Ezin izango zaio legez eraturako inolako elkarteri diskriminatu, OOGko ordezkarietako baten proposamen zuzena dela-eta guraso gehien ordezkatzan dituen elkartearen alde araudian xedatutakoaren kalterik gabe.

4.-Ikastetxearen gobernu-organismoek ez dute parte hartuko ikasleen gurasoak eta ikastetxeko ikasleak eraturako edozein elkartetan izena ematera, edo elkarte horren mantentze ekonomikoan laguntzera, behartu ahal dituzten jardueretan.

#### **74. artikulua.- Legez eraturako elkarteen bidez parte hartzea.**

Ikastetxean osatu diren ikasleen gurasoen eta ikasleen elkarteek ondorengo ahalmenak izango dituzte:

- a) Hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra egin edo aldatzeko proposamenak OOGri helaraztea.
- b) Nahi dituzten ikastetxearen funtzionamenduari buruzko alderdi horiek OOGri jakinaraztea.
- c) Egiten dituzten jarduerak hezkuntza-erkidegoko kide guztiei jakinaraztea.
- d) OOGk jorratu dituen gaien buruzko informazioa jasotzea, baita bilera horren gaitzerrenda, egin aurretik, jasotzea ere, proposamenak egin ahal izateko asmoz.
- e) OOGrako txostenak egitea, haien ekimenez edo organo horren eskariz.
- f) AJA (ROF) aldatzeko proposamenak egitea.
- g) Jarduera osagarriak gauzatzeko proposamenak egitea.
- h) Emaitza akademiko globalak eta ikastetxeak horiei buruz egiten duen balorazioa ezagutzea lehenengo hiruhilabetean.
- i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta haien aldaketan ale bana jasotzea.
- j) Testuliburuak eta ikastetxeak erabilitako material didaktikoei buruz informazioa jasotzea.
- k) Hezkuntza-erkidegoko kide guztien arteko lankidetzaren sustatzea.
- l) Ikastetxearen instalazioak zuzendariak ezartzen dituen terminoetan erabiltzea.

## **II. TITULUA: ELKARBIZITZA-ARAUAK.**

### **I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK**

#### **75. artikulua.- elkarbizitzaren oinarria.**

Hezkuntza-erkidego osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestea dira Ekialdea BHIko elkarbizitzaren oinarria. Halaber, ikasleek arduraz jokatu beharko dute eskubide horietaz baliatzeko orduan, baita eginbeharrak betetzeko orduan ere, titulu horretan xedatutakoaren arabera.

#### **76. artikulua.- Elkarbizitza-plana.**

Ekialdea BHIk elkarbizitza-plan bat idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatutakoaren arabera. Elkarbizitza-gatazken prebentzioa izango da plan horren lehentasunezko helburua eta, gatazka horiek gertatuz gero, abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak xedatutako bide alternatiboak erabiliz konponduko direla bermatzea, behar izanez gero bitartekaritza-prozedurak erabiliz.

**77. artikulua.- Eskubideak berehala babestea.**

Abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak 6. artikulutik 21.era azaltzen dituenak dira ikasleen eskubideak. Edozein irakaslek, eskubide horien kontra doazen portaerak ikusten baditu ikasleen aldetik, berehala esku hartu beharko du, portaera hori izan duena ahoz ohartaraziz eta Ikasketa Burutzan aurkezteko aginduz.

**78. artikulua.-Eginbeharrak beteko direla bermatzea.**

Abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak 21. artikulutik 27.era agertzen dituenak dira ikasleen eginbeharrak. Eginbehar horietakoren bat bete ezean eta irakasle batek ikusten badu, berehala zuzendu beharko du egoera eta, eginbeharrak ez betetzeak hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuen eskubideei eragiten badie edo zuzenean eskubide horien kontra badoa, Ikasketa Burutzan agertzeko agindua eman beharko dio ikasleari.

## **II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK BETEKO DIRELA BERMATZEA.**

**79. artikulua.- Irakasleen inplikazioa ikasleen eskubideak babesteko orduan.**

Ekialdea BHIko irakasle guztiek lankidetzan jardungo dute abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak ikasleei ezagutzen dizkien eskubideak babesteko orduan, araudi honetan xedatutakoari eta gobernu-organoen argibideei kasu eginez.

**80. artikulua.- Kalitateko irakaskuntza oso bat jasotzeko eskubidea.**

1.-Ikasleek dute beren nortasuna erabat garatzeko lagungarri izango den hezkuntza oso bat jasotzeko eskubidea. Hezkuntza oso horretan, eduki zientifiko eta kulturalak, ohitura intelektualak eta lan egiteko teknikak eskuratzea ez ezik, ondorengo puntuak ere sartuko dira: afektibitatearen, autonomia pertsonalaren, autoestimua eta beste pertsona batzuekin eta ingurunearekin harremanak izateko gaitasunaren garapen harmonikoa eta jarduera profesional, intelektual eta aisiakoetan jarduteko gaitasuna. Prestakuntza horretan ikasleek beren kultur identitatea aurkitu beharko dute, Euskal Herriko kideak diren aldetik, eta praktikan bi hizkuntza ofizialak ezagutu beharko dituzte derrigorrezko irakaskuntza-aldiak bukatzean.

2.-Helburu horiek lortzera bideratuta egon beharko dute betiere ikastetxeetako hezkuntza- eta curriculum-proiektuek, legeek hezkuntzari ematen dizkioten helburuen barruan. Izan ere, otsailaren 18ko 3/2005 legeak, Haur eta Nerabeei Arreta Eman eta Babesteari buruzkoak, 24.2. artikuluan eta data bereko 4/2005 legeak, Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasunarenak, 29. artikuluan adierazten dituzten alderdiak agertu beharko dituzte lehen aipatutako curriculumek. Halaber, helburu horiek lortzera ere bideratuko dira programazioak eta irakaskuntza-lan guztia. Lan hori giro egoki batean egin behar da, eskola- eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak gauzatzen direnean. Irakasleen aginteak bermatuko du lan egiteko giro egoki hori eta ikastetxeko pertsonal guztiak bere laguntza emango du horretarako.

**81. artikulua.- Aukera-berdintasuna bermatuko duen eskola orekatzaile bat izateko eskubidea.**

1.-Ikasleek badute, familiaren, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta maila pertsonalaren aldetik dituzten gabezia eta desabantailak orekatzeko asmoz, behar diren laguntzak jasotzeko eskubidea, hezkuntza-sistemara iristea edo berorretan jarraitzea eragozten dituzten hezkuntza-premia bereziak dituztenean batez ere. Hezkuntza-administrazioak eskubide hori bermatuko du, ikasleen premietara egokitutako laguntzen politika bat eta ikasleak integratzeko eta hezkuntza-premia berezietara erantzuna emateko hezkuntza-neurriak ezarriz.

2.-Aparteko arreta eman beharko zaie hezkuntza-premia berezietako ikasleei, ikastetxearen berezko baliabideekin eta hezkuntza-administrazioak ikastetxeen eskura jartzen dituenekin.

3.-Ekialdea BHIk izango ditu beste zerbitzu publikoekin (udal eta lurralde mailakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoetakoak) harremanak, gizarte-, ekonomia eta kultur mailari begira bereziki egoera larrian dauden ikasleen premiei erantzuna emateko.

4.-Ekialdea BHIk sartzeko eskatzen duten ikasle guztiak onartuko ditu, betiere tokia baldin badago, fondo publikoekin sustengatutako ikastetxeetan ikasleen onarpena arautzen duen dekretuak ezarritakoa ez den baremorik aplikatu gabe eta, jaiotzarengatik, arrazarengatik, sexuarengatik, maila ekonomikoarengatik, maila sozialarengatik, konbikzio politiko, moral edo erlijiosoengatik, akats fisiko edo psikikoengatik eta beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik, diskriminazio negatiboa egiteko ikastetxeari ematen zaion ahalmena erabili gabe. Ahalmen hori, ordea, erabili ahal izango da maila ekonomiko eta sozialari begira desabantailan dauden eta akats fisiko edo psikikoak dituzten ikasleen aldeko diskriminazio positiboaren neurriak sartzeko orduan.

5.-Ekialdea BHIk lankidetzan jardungo du hezkuntza-administrazioarekin, beste ikastetxe batzuetan zigorra jaso duten eta derrigorrezko eskolatzearen adinean dauden ikasleak plaza bat bermatzeko orduan, kanporatze edo ezgaitzei buruzko 97.4. artikulua araberako eta zigorrak irauten duen aldirian.

## **82. artikulua.- Arreta berehala jasotzeko adin txikiko ikasleen eskubidea.**

1.-Edonola ere, eta oro har, Ekialde BHIk eta institutu horretako irakasleek berehala eman behar diote behar duen laguntza edozein adin txikiko ikasleri. Horretarako, zuzenean jardungo dute laguntza haien eskuduntzen esparruan eman behar bada. Bestela, organo edo zerbitzu eskudunari emango diote kasuaren berri eta gertaerak adin txikikoaren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkiete, baita, beharrezkoa denean, Ministerio Fiskalari ere.

2.-Ekialde BHIk eta haren pertsonalak, ikasleei behar duten berehalako arreta ematearen kalterik gabe, derrigorrean jakinarazi behar dizkiete adin txikikoen babesean eskuduntzak dituzten administrazio publikoei edo, behar denean, Ministerio Fiskalari edo epaileari tratatu txarrak edo hurren babesik eza edo arriskua ekar dezaketen portaerak. Esku-hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko behar diren datu eta informazioak jakinarazi beharko dituzte eta, halaber, aipatutako administrazioekin jardun beharko dute lankidetzan, egoera horiek ekidin eta konpontzeko, betiere adin txikikoen lehentasuneko interesak kontuan hartu beharko diren arren.

3.-Halaber, derrigorrezko eskolatzearen adinean dagoen ikasle bat eskolatu gabe dagoela edo absentismo maila nabarmena duela antzematen bada, eman beharko zaie hezkuntza-agintariei eta toki erakundeei gertaeraren berri, inplikaturako administrazio eta instituzio guztiek parte har dezaten eskola-absentismoa desagerrarazteko prozesuan. Edonola ere, zuhurtasunez jokatu da, adin txikiko ikaslearen bizitza pribatuan ez sartuz.

4.-Irakasleek derrigorrean eman beharko diete gobernu-organoei emakumeen eta haurren kontrako indarkeriaren kasuen berri, indarkeria hori gertatu dela ziur badakite, otsailaren 18ko 4/2005 legeak, Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasunari buruzkoak, 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **83. artikulua.- Adin txikiko ikasleen babesa.**

1.-Ekialdea BHiko gobernu-organoek behar diren neurriak hartuko dituzte ikastetxearen esparruan ikasleen ohorerako, intimitaterako eta beren irudikorako eskubidea babesteko, hirugarren pertsonen aldetik gerta daitezkeen eraso edo esku-hartzeen kontra batez ere.

2.-Horrela ez da inor ikastetxetik, bidegabekeriaz edo legezko prozedurak erabiliz, ikasleen bizitza pribatuan sartuko eta haien familia, helbidea edo korrespondentzia errespetatuko dira. Ikastetxearen bizitzari, irakaskuntza-eta ikaskuntza-jarduerari eta tutoretza-ekintzari buruzko jakinarazpen edo agiriak, ez besterik, bidaliko zaizkie, ikasleen bidez, familiei. Administraziooko organoek, ikastetxeko gobernu- edo koordinazio didaktikoko organoek, jarduneko irakasleek eta legez eraturako ikasleen gurasoen eta ikasleen elkarteetako ordezkariak emango dituzte jakinarazpen edo agiri horiek.

3.-Ikastetxeetako gobernu-organoek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak zuhurtziaz jokatu dute haien jarduera profesionalaren bidez ezagutzen dituzten ikasleen edo haien familien datu pribatuak erabiltzeko orduan.

4.-Halaber, ez dute ikasleei buruzko informazioa eta ikasleen irudiak edo izenak komunikabideetan hedatzen utziko eta ikasleen legezko interesen kontra doan edo haien intimitateari, duintasunari edo izen onari kalte egiten dion legez kontrako edozein esku-sartze saihestuko da.

### **84. artikulua.- Errendimendu akademikoa era objektiboan baloratzeko eskubidea.**

1.-Ikasleek badute beren dedikazio, ahalegin eta errendimendua objektibotasunez ezagutu eta baloratua izateko eskubidea.

2.-Hori bermatzeko, Ekialdea BHik ondorengo puntuak betetzen direla egiaztatuko du: irakasle guztiek eduki, helburu eta ebaluazio-irizpideak aditzera ematea; azken edo erdiko ebaluazio-bilkuren ondoren gurasoei edo legezko ordezkariari informazioa ematea; azken kalifikazioari eragin dioten lan, ariketa eta proba guztiak ikusi ahal izatea, aldezturik eskatu ondoren eta zuzendu ostean; lan, ariketa eta proba horiek berrikustea eskatzeko eskubidea eta, azkenik, azken kalifikazioen kontra erreklamatzeko barne prozedura bat egotea; prozedura hori erabili beharko da tokian tokiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan erreklamazioa jarri aurretik, hori guztia indarreko legeriaren arabera.

3.-Ikasturtearen hasieran, departamentu desberdinek aditzera eman beharko dituzte ebaluazio-irizpideak eta kurtso edo eskola-ziklo batean gainditu behar diren gutxienezko helburuak. Gainera, indarreko ikasketa-planekin eta ikastetxeari ezagutzen zaion autonomiaren barruan hartzen diren aukerekin bat etorri beharko dute, araudi honen ebaluazioari buruzko tituluan ezartzen den legez.

4.-Ikasleek ikasturtearen edozein unetan proba, lan eta ariketak ikusi ahal izateko, irakasleek gorde beharko dituzte ikasleak ikastetxean eta eskola-aldi osoan ebaluatzeko balio izan duten proba, lan eta ariketak. Geroago ere gorde beharko dituzte, aparteko azken deialdiaren kalifikazioaren kontra erreklamazioa jartzeko epea pasa arte.

5.-Edonola ere, ikasleei entregatu ez zaizkien lan eta ariketa guztiak, baita egin daitekeen erreklamazio bat ebazteko kontuan hartu behar diren agiriak ere, gorde beharko dira, haiei buruzko administrazio-ebazpen bat eman daitekeen edo epaile batek esku har dezakeen bitartean.

### **85. artikulua.- Kontzientzia-askatasunaren eskubidea.**

1.-Ikasleek badute beren kontzientzia-askatasuna eta beren konbikzio erlijioso, moral eta ideologikoak errespetatuak izateko eskubidea. Eskubide hori bermatzeko, gure hezkuntza-proiektuari eta gure ikastetxearen izaerari buruzko informazioa emango zaie, matrikulatu aurretik, ikasleei.

2.-Ekialdea BHIk bermatuko du haien konbikzioen arabera irakaskuntza erlijioso eta morala jasotzeko ikasleen eskubidea, baita irakaskuntza horiek ez jasotzeko eskubidea ere, eta aukera horretatik ezin izango da inolako diskriminaziorik egin. Halaber, ikastetxean ematen diren irakaskuntza horiek ideologikoki manipulatu ez gotea bermatuko du.

### **86. artikulua.- Osotasun, identitate eta duintasun pertsonalaren eskubidea.**

1.-Ikasleek badute beren osotasun fisiko eta morala, baita identitate eta duintasun pertsonala ere, errespetatuak izateko eskubidea eta, horregatik, ezin izango zaie inoiz tratu umiliagarrikerik eman. Behar izanez gero, zuzentasunean oinarritutako neurriekin, legeak ezartzen dituen berme formalekin, zuzenduko dira ikasleen portaerak eta ezin izango zaie inoiz zigor fisiko edo moralik ezarri.

2.-Behar bezalako segurtasun- eta higiene-baldintzetan gauzatuko da ikasleen jardura akademikoa.

3.-Ikasketa-buruak jolasaldiak zaintzeko irakasleak izendatuko ditu eta, horretarako, ikasleek betetzen duten espazio guztia bistarekin kontrolatu ahal izateko moduko irakasleen kopurua beharko da. Ikasleek betiere jakin behar dute nortzuk diren zaintzaren arduradunak, edozein unetan joan ahal izango dira haiengana eta etengabe ikusi beharko dituzte. Irakasleek espazio batzuk, haien kokapenarengatik edo ezaugarriengatik, zaintzeko zailtasunak badituzte, zuzendariak izango du espazio horiek erabiltzea debekatzeko ahalmena.

4.-Ekialdea BHIko gobernu-organismoek, irakasleek eta gainontzeko pertsonalak lankidetzan jardun beharko dute berdinen arteko tratu txarrak desagerrarazteko orduan. Horretarako, zuzenean esku hartu beharko dute edo, bestela, ikusten duten edozein zantzu zuzendaritzari jakinarazi beharko diote, Hezkuntza Administrazioari helarazteko.

5.-Ezin izango da inoiz eman hezkuntza-esparruan edari alkoholduak, tabakoa edo beste droga batzuk sartu eta kontsumitzeko baimena. Bakarrik jolasaldien orduetan eta horretarako ezarritako tokietan kontsumitu ahal izango dituzte alkoholik gabeko edariak eta janariak, betiere enbaseak eta hondarrak horretarako jarri diren ontzietan uzten badira.

6.-Ekialdea BHIk zauri arinetarako botikin bat izango du. Betiere erabili eta botatzeko eskularruak erabili beharko dira zauri horiek sendatzeko. Zorua edo altzariak odolez edo beste edozein gorputz-fluidoz zikintzen badira, behar bezala garbituko da. Legez, Ekialdea BHIk ez du ikasleei inoiz ere botikarik emateko baimena; ikasleak tratamenduren bat jasotzen badu, ikasleek berek eta beren legezko ordezkariak eman beharko diote horren berri ikastetxeko zuzendaritzari.

7.-Horrela eskatzen duten istripuen kasuan, Ekialdea BHIk bere gain hartuko du istripua izan duen ikaslea behar den osasun-zentrora eramatearen ardura. Eskola-aseguruarekin hitzartutako zentroak, ikastetxeak bere aseguruaren bidez hitzartuta duen beste edozein edo edozein zentro publiko izango dira eta ahalik eta lasterren emango zaie gurasoei gertatutakoaren berri.

### **87. artikulua.- Eskola- eta lanbide-orientabidearen eskubidea.**

1.-Ikasleek badute beren gaitasun, nahi eta interesetan oinarritutako hezkuntza- eta lanbide-orientabidea jasotzeko eskubidea baina sexuan eta beste zirkunstantzia batzuetan oinarritutakoak ez dira kontuan hartuko.

2.-Eskubide honek puntu hauek dakartza:

a) Ikastetxera sartzen diren unetik hezkuntza-orientabidea eskainiko zaie ikasleei, horretarako aukeren bidez ikasle bakoitzaren gaitasun, nahi eta interesetara gehien egokitzen den ikasketa-planik egokiena aukeratzeko, maila edo ziklo bakoitzaren bukaeran batez ere.

b) Eskaintzen zaizkien alternatiba desberdinei buruzko aholkularitza eman ikasleei. Enpleguaren egoerari buruzko informazioa emango zaie eta, horretarako, erraztasunak eman ahal dituzten inguruneke instituzio eta enpresa publiko eta pribatuekin jarriko da Ekialdea BHI harremanetan.

c) Ikastetxearen Urteko Planean Orientabide Plana eta haren Tutoretza Plana nola garatuko diren zehazten da, baita eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa ere.

### **88. artikulua.- Bildu, elkartu eta adierazteko eskubidea.**

1.-Eskola- edo eskolaz kanpoko jarduerak egiteko bildu ahal izango dira Ekialdea BHIko ikasleak, baita hezkuntza- edo prestakuntza-helburu duten horiek egiteko ere.

2.-Ondorengoak dira Ekialdea BHIin biltzeko eskubidea erregulatzen duten arauak:

a) Taldeak beren gelan bildu ahal izango dira gai akademikoak aztertzeko, beharrezkotzat jotzen dutenean. Bilera horiek ez dute klaseak galtzea ekarriko eta tutoreak horien berri izan eta, behar izanez gero, bileran egon beharko du. Halaber, bilera bat egin ahal izango dute, gehienez ere klase-ordu bat hilabetean, eta gai-zerrenda alde aurretik jakinarazi beharko diote tutoreari. Irakasle tutorea ez badago, taldeko ikasle delegatuak bilera horren buru eta moderatzailea izan beharko du. Bilera hauetan taldetik kanpoko ikaslerik ezin izango da bertaratu.

b) Zuzendariak edo eskuordetzen duen pertsonak delegatuen batzarra biltzeko toki bat finkatuko du, bilerak egiteko araudi honen 38.2. artikuluan aipatzen diren funtzionamendu-arauek xedatutakoaren arabera.

c) Delegatuen batzarrak, beharrezkotzat jotzen badu, izango du ordezkatzan dituen ikasleei kontsulta bat egitea erabakitzeke ahalmena. Horretarako, ikasketa-buruari eskatuko dio baimena eta honek eman edo ukatuko du, gai-zerrenda ikusita eta aurkeztutako gaiak delegatuen batzarraren eskuduntzetara zein mailatan egokitzen diren baloratu ondoren. Halaber, aurreko bileretan gai-zerrenda bete ez izanagatik ukatu ahal izango da bilera hau egiteko baimena. Ikasketa-buruaren erabakiaren kontrako erreklamazioa jarri ahal izango zaio zuzendariari.

d) Ikasle guztiei aurreko egunean eman beharko zaie, delegatuen bidez eta gai-zerrenda adieraziz, bilera horien berri. Bilera horietara joatea ezin izango da inoiz derrigorrezkoa izan.

e) Ikasketa-buruak, zuzendariaren goragoko agintepean, bilera egingo den tokia eta denbora adieraziko ditu. Printzipioz, bilerak klase-orduetatik at egin beharko dira. Horretarako, ikasketa-buruak klaseen ordutegia egokitu ahal izango du, haien iraupena gutxitu gabe.

f) Edonola ere, Eskola Kontseiluak, hiru sektoreen, ikasle, guraso eta irakasleak, gehiengo sinplez horrela onartzen badu, ikasketa-buruak klaseak, ezinbesteko denbora, murriztu ahal izango ditu, aztertu beharreko gaien kopurua eta izaerarengatik beharrezkoa dela uste badu, bilerari ordubetea eskaini ahal izateko. Erabakia aurreko egunean hartuz gero, murrizketa hori klase guztien artean banatuko da, irakasle guztiek jakin dezaten. Erabakia egun berean hartzen bada, bilera izango den jolasaldiaren aurreko eta ondorengo klaseak besterik ez dira murriztuko.

3.-Ikasleek elkartzeko eskubidea izango dute eta, horretarako, elkarte, federazio eta konfederazioak sortu ahal izango dituzte, ekainaren 22ko 7/2007 legeak, Euskadiko Elkarleenak, oro har xedatutakoaren arabera eta ekainaren 15eko 1/1996 lege organikoak, Adin Txikikoaren Babes Juridikoarenak, haur, gazte edo ikasleen elkarteei buruzko 7.2. artikuluan xedatzen duen erregimen bereziaren kalterik gabe. Horrela sortu diren elkarte, federazio eta konfederazioek izango dute Euskal Eskola Publikoaren legearen 44. artikuluan aipatzen diren neurrien bidez laguntza jasotzeko eskubidea.

4.-Ekialdea BHIk, Antolaketa eta Jarduera edo Barne Araudiak xedatutakoaren arabera, ikasleen elkarteen jardueretarako lokalak jarriko dituzte ikasleen eskura, azpiegiturak ezarritako mugetaraino eta, betiere, horrek jarduera akademikoa aztoratzea ez badakar. Ahal den neurrian, utzitako lokalak behar bezala eta ikasleen premietara egokitzuz erabiliko direla bermatu beharko du ikastetxeko zuzendaritzak, bai elkarteek etengabe erabiltzekoak, bai une zehatzetan erabili ahal diren horiek.

5.-Ikasleek adierazpen askatasunaren eskubidea dute, haien iritziak askatasunez, banaka eta taldeka, adierazi ahal izateko. Idatziz adierazteko eskubidea gauzatu ahal izateko, eskubide hori jarraian adierazten den eran gauzatuko dela zehazten du Ekialdea BHIko Antolaketa eta Jarduera Araudiak:

a) Eskola Kontseiluak zehaztuko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko era, espazioak eta tokiak eta, betiere, instituzioek eta hezkuntza-erkidegoko kide bakoitzak merezi duten begirunea hartu beharko dira kontuan.

b) Zuzendaritzak eman beharko du adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko baimena eta eskubide hori gauzatzeko orduan instituzioekiko, legeekiko eta hezkuntza-erkidegoko kide bakoitzarekiko begirunez jokatzeko arduratuko da.

c) Edonola ere, horretarako dauden toki eta espazioetan jartzen den informazio orok argi eta garbi adierazi beharko du informazio horretaz arduratzen den pertsona, instituzioa, elkarte edo taldea.

d) Gelen barruan eskola-jarduerari buruzko informazioa, ez besterik, eman ahal izango da. Zuzendariaren edo ikasketa-buruaren aginduz erretiratu beharko dira arau horien kontra doazen informazioak.

6.-Ekialdea BHIk finkatu duen legeaz, klasera joateari buruz ikasleek hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira portaera desegokiak izango, ez dira elkarbizitzaren aurkakoak izango eta ez dira ere elkarbizitzari kalte larria egiten diotenen artean sartuko eta ez zaizkie neurri zuzentzaileei ezarriko, biltzeko eskubidea gauzatzearen ondorioz hartu badira eta, ondorengo atalen arabera, alde zuzentzaileei jakinarazi bazez:

a) Ikastetxeko delegatuen batzarrak onartu beharko du, hasiera batean, klasera ez joateko proposamena, haien ekimenez edo ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztien % 5en, gutxienez, edo legeaz ezagututa dauden ikasleen elkarte, federazio edo konfederazioetako

ordezkarien eskariz, alde zuzenetik ondorengo puntuak, besteak beste, kontuan hartuko dituen eztabaida bat egin ondoren:

Deialdiaren hezkuntza- edo prestakuntza-helburua.

Ikastetxearekin duen harremana.

Ikasle guztiek kontuan hartzeko dagoen denbora.

Beste deialdi batzuk lehenago egin izana edo etorkizunari begira aurreikusten direnak.

b) Proposamena delegatuen batzarrak onartzen badu, idatziz eta bi egun lehenago egingo da deialdia eta nork egiten duen, eguna, ordua eta programatutako jarduerak adierazi beharko dira. Salbuespen gisa, egun bat lehenago egitea onartuko da, premiaren arrazoiak Ikasketa Burutzari adierazten bazaizkio.

c) Deialdia, idatziz, zuzendaritzari jakinaraziko zaio eta horretarako dauden toki eta espazioetan azalduko da. Botazioa egiten den bitartean, informazio guztiak finkatutako tokietan jarrita egon beharko du.

d) Ordezkarri bakoitzak klasera ez joateko deia jakinaraziko dio bere taldeari; deialdi hori ezin izango da geletan jarri eta inork ez du horretan derrigorrean parte hartu beharko. Halaber, botazioak zein ordu eta tokietan egiten diren jakinarazi beharko da. Botazioak geletan egin ahal izango dira, zuzendariak espresuki debekatzen ez badu.

e) Ikasketa-burutzak hartu ahal izango du botazioak egiteko klaseak eteteko erabakia. Botazio horiek sekretuak izan beharko dute eta, betiere, irakasle bat aurrean dagoela egin beharko dira. Irakasle horrek botazioaren akta egingo du. Erabili beharreko boto-txartel guztietan baieztatzeko aukera (BAI/SI) eta ezeztatzeko aukera (EZ/NO) agertuko dira haien laukian inprimatuta. Boto-emaileek lerro bat zeharka marraztuko dute, tintaz edo boligrafoz, aukeretako batean. Lerro bat zeharka bi laukietan marraztuta duten botoak baliogabetzat joko dira, baita inprimakian lauki bat bakarrik marraztuta izan arren idatzkeraren autografoa ez duten eta aipatutakoa ez den beste zerbait idatzita duten horiek ere. Bi laukietako bat berean ere lerro bat marraztuta ez duten eta beste ezer idatzita ez dutenak boto zuzentzat joko dira.

f) Botazioa egin ondoren, botoak zenbatu eta botazioaren akta egingo da, irakasleak eta ikasleen delegatuak izenpetu beharko dutena.

g) Aldeko botoen batuketan institutuan matrikulatutako ikasle guztien erdia gehi bat izatera iritsiko ez balitz, proposamena ez da onartuko. Ikasketa-burutzak aditzera emango du, betiere, emaitza eta horretarako dauden toki eta espazioetan azalduko du.

h) Emaitza hori ez da inoiz derrigorrean bete beharrekoa izango eta ikasleek betiere izango dute klasera joateko eskubidea.

i) Edonola ere, ikastetxeak klaseak emango ditu, joaten diren ikasleen kopurua zein den alde batera utzita, eta irakasleak ez du derrigorrean errepikatu behar klase horietan eman den programaren zatia.

j) DBHOko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko) ikasleentzat balio du bakarrik era kolektiboan klasera ez joateko eskubideak.

k) Batxilergoko ikasleen kasuan, gurasoek edo legezko ordezkariak eman ahal izango dute, idatziz eta era generiko batean, haien eskubideak gauzatzeko baimena.

l) Ikasleek greban edo geldialdian parte hartu dutela jakinaraziko die gurasoei ikasketa-burutzak eta deialdiaren zergatia eta arduradunak zeintzuk diren azalduko ditu idatzian.

m) Zuzendaritzak Eskola Kontseiluari emango dio prozesu guztiaren berri.

7.-Edonola ere, biltzeko, elkartzeko eta adierazteko eskubideak muga batzuk izango ditu: ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko dekretuaren 21., 22. eta 23. artikuluetan jasotzen diren betebeharrak, gainontzeko ikasleek eskubide horietaz baliatzeko askatasuna izatea eta pertsona guztien osotasunerako, ohorerako, intimitate pertsonal eta familia mailakorako eta irudirako eskubideak.



## **89. artikulua.- Parte hartzeko eskubidea.**

1.-Ikasleek badute ikastetxearen funtzionamenduan eta bizitzan parte hartzeko eskubidea, indarreko legeriak xedatutakoaren arabera. Badute institutuaren Ordezkaritza Organo Gorenean parte hartzeko eskubidea, Euskal Eskola Publikoaren legeak, uztailearen 6ko 201/1993 dekretuak eta Antolaketa eta Barne Funtzionamenduaren araudiak xedatutakoaren arabera.

2.-Ikasleek parte hartzeko organo espezifikoa delegatuen batzarra dela zehazten du Ekialdea BHIk eta ikasleek DBHko eta Batxilergoko kurtso eta talde bakoitzean aukeratutako ordezkariak osatuko dute batzar hori.

3.-Edonola ere, institutuan matrikulatuta dauden eta Bigarren Hezkuntza edo baliokideren bat egiten duten ikasle guztien artean, bozkatze zuzen eta sekretuaren bidez, hautatuko dira ikasleen ordezkariak eta ikastetxean egon litekeen aniztasuna eta haren eraginkortasuna babestuko dira hautatzeko prozesu horretan.

4.-Funtzioak hauek izango dira, besteak beste: Ordezkaritza Organo Goreneko ikasleen ordezkariak aholkularitza eta laguntza ematea,-kurtso eta maila bakoitzaren arazo espezifikoa helaraziko die,-; Ordezkaritza Organo Gorenari proposamen edo eskaerak aurkeztu edo helaraztea eta Ordezkaritza Organo Gorenaren eta ordezkarietako ikasleen arteko informazioa emateko bidea izatea.

5.-Ekialdea BHIko ikasleek badute parte hartzeko haien organo espezifikoko kideen eta Ordezkaritza Organo Goreneko ordezkarien aldetik informazioa jasotzeko eskubidea, bai ikastetxearen berezko gaiei buruzkoa, bai hezkuntza-sistemari, oro har, eragiten dioten haiei buruzkoa. Ikasketa-burutza informazio hori behar bezala helarazteaz arduratuko da, berez edo tutoreen bidez.

## **90. artikulua.- Gizarte-babeserako eskubidea.**

1.-Ikasleek badute hezkuntza-esparruan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea, familiako ezbeharraren edo istripuaren kasuetan.

2.-Osasun eta Gizarte Segurantzaren arloko legeriaren arabera dagozkien eskubideez gain, hezkuntza-administrazioak behar diren baldintza akademiko eta ekonomikoak ezarriko ditu, familian ezbehar bat, istripu bat edo gaixotasun luze bat pairatzen duten ikasleek izan dezaten egiten ari diren ikasketak jarraitzeko edo bukatzeko edo geroago beste ikasketa batzuk egiteko aukera.

3.-Ekialdea BHIko ikasleek badute kasu horietan haien eskola-errendimendua ziurtatzeko laguntza jasotzeko eskubidea, ikastetxearen beraren bidez, Urrutiko Oinarrizko Irakaskuntzarako Ikastegien bidez edo ospitaletan eta etxean hezkuntza- eta terapia-arreta jasotzeko lurralde zentroen eskura dauden baliabideak erabiliz.

4.-Berdinen arteko tratu txarren kasuetarako, sexu-jazarpenaren kasuetan batez ere, hezkuntza-administrazioak ezarritako babes-neurriak hartuko ditu Ekialdea BHIk eta berehala egingo du jazarleak eta jazarriak ikastetxez aldatzeko proposamena edo, biktimek horrela nahiago eta eskatzen badute, emango dizkie beste ikastetxe batera joateko erraztasunak. Edonola ere, jazarpena pairatu dutenek izango dute behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea.

## **91. artikulua.- Ikasleen eskubideak errespetatuko direla bermatzea.**

1.-Ekialdea BHiko ikasle guztiak jakin beharko dute zeintzuk diren indarreko antolamendu juridikoan haiei eta gainontzeko kideei ezagutzen zaizkien eskubideak, baita eskubide horiek erabili eta errespetatzearen arloan prestakuntza jasotzeko ere.

2.-Haien eskuduntzen esparruan, Ekialdea BHiko gobernu-organoek eta irakasleek bermatuko dute aurreko ataletan aipatutako eskubide guztiak gauzatzea, baita legeek eta nazioarteko tratatuek ikasleei ematen dizkietenak ere. Adin txikiko ikasleen kasuan, bereziki babestuko dira urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoak, Adin Txikikoaren Babes Juridikoari buruzkoak, eta otsailaren 18ko 3/2005 legeak, Haur eta Nerabeei Arreta eta Babesa Emateari buruzkoak, ematen dizkieten eskubideak eta haur eta nerabeen interesa eta haien eskubideen babesa betiere beste edozein legezko interesen gainean jarriko dira.

3.-Halaber, Ekialdea BHiko gobernu-organoak eta irakasleak arduratuko dira legeek berek ezartzen dituzten mugen menpe jarduteaz eskubide horiek gauzatzeko orduan eta ikasleen arteko harremanetan inolako diskriminaziorik, jaiotzarengatik, adinarengatik, arrazarengatik, sexuarengatik, egoera zibilarengatik, sexu-joerarengatik, gaitasun fisiko edo psikikoarengatik, osasun-egoerarengatik, hizkuntzarengatik, kulturarengatik, erlijioarengatik, sinesmenarengatik, ideologiarengatik edo beste edozein baldintza pertsonal, ekonomiko edo sozialarengatik, izan ez dadin neurriak hartuko dituzte.

### **III. KAPITULUA. EGINBEHARRAK BETEKO DIRELA BERMATZEA.**

#### **92. artikulua.- Ikasteko eginbearra.**

1.-Ikasleak badu, bere gaitasunen arabera, ahalik eta garapenik handiena lortzeko ikasteko eta ahalegintzeko eginbearra. Horretarako, behar den interes guztiarekin egingo du lan bizitzeko eta duintasunez elkarrekin bizitzeko behar diren gaitasun guztiak eskuratzeko prozesuan, baita etorkizunean lan-mundura sartzeko ere. Horrela, lan intelektuala egiteko giro bat sortzen eta gelan portaera txarrak izan ez daitezten lagunduko dute. Eginbear orokor hori ondorengo betebeharretan konkretatzen da:

- a) Klasera joatea, eskola-egutegian hitzartutako jardueretan parte hartzea eta ezarritako ordutegiak errespetatzea.
- b) Klasean irakaslearen azalpenei kasua egitea eta proposatzen dituen jarduera didaktikoak egitea.
- c) Irakasleek, beren irakaskuntza-funtzioetan jardutean, agindutako lanak egitea.
- d) Ikaskideen ikasteko eskubidea errespetatzea.

2.-Ikasleek badute azterketa eta ariketetan zuzentasun akademikoaren arabera jokatzeko eginbearra eta, horretarako, norberaren ahaleginaz eta irakasleak kasu bakoitzean baimendutako liburu, material edo tresnez besterik ez dira baliatuko.

#### **93. artikulua.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko eginbearra.**

Ikasle guztiak prestakuntza-jardueretan parte hartu behar dute, interesarekin esku hartuz, agintzen zaizkien lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeekin laguntza emanez.

#### **94. artikulua.- Klasera joateko eginbearra.**

1.-Ikasleek egunero joan behar dute klasera, puntu-puntu, justifikaziorik gabeko hutsegiterik barik eta sartu eta irteteko ordutegiak errespetatuz.

2.-Halaber, DBHko ikasleek eskola-esparruaren barruan egon beharko dute eskola-ordutegian, baita jolasaldietan ere.

3.-Justifikaziorik gabekotzat joko dira ikasleak, adin txikikoen kasuetan gurasoek edo legezko ordezkariak, idatziz justifikatzen ez dituen asistentziaren edo puntualtasunaren hutsegite horiek. Hutsegiteak justifikatzeko, onartzeko moduko justifikazioa aurkeztu beharko diote tutoreari.

4.-Nahiz eta, arrazoi batzuegatik edo besteengatik, egun zehatz batzuetan oso ikasle kopuru txikia joan, ikastetxeak eta irakasleek klaseak normaltasunez ematen jarraitu beharko dute.

5.-Ikasleren batek asistentziaren hutsegiteak behin eta berriro justifikatzen dituela uste bada, ikasketa-buruak egin ahal izango dio Eskola Kontseiluari neurri zuzentzaileak ezartzeko proposamena, justifikazio horiek gehiago kontrolatzeko asmoz.

6.-Klasera joateko eginbeharra ez betetzeak behar diren neurri zuzentzaileak eragingo ditu portaera desagokia izan daitekeen kasuetan, araudi honen II. tituluan ezarritakoaren arabera. Klasera joateko eginbeharra ez betetzearen ondorioz ezin bada ikaslearen etengabeko ebaluazioa behar bezala egin, ikastetxearen curriculum-proiektuan ezarritakoaren arabera egingo da balorazioa, ebaluazio-irizpideei eta arlo edo irakasgai desberdinen izaerari begira. Dena den, ezin izango zaio ikasleari kendu beste prozedura alternatibo batzuen bidez ebaluatua izateko eskubidea.

7.-18 urtetik gorako ikasleek, hutsegiteak beraiek justifikatu nahi badituzte, edozein lan-harremanetan exijitutako agirien antzekoak aurkeztu beharko dituzte.

#### **95. artikulua.- Elkarbizitza laguntzeko eginbeharra.**

1.-Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute eskola-elkarbizitza hobetzeko eta ikastetxean ikasteko giro egoki bat lortzeko prozesuan, ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintea eta orientabideak errespetatuz.

2.-Horretarako, ikasleek ezagutu behar dituzte antolaketa eta jarduera araudi honetan integratuta dauden elkarbizitza-arauak; pertsonak eta irakasleen eta hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte eta zuzen jokatu behar dute horiekin guztiekin, norberaren eskubideez baliatuz gainontzeko pertsonenak urratu gabe; horretarako, bakarrik metodo baketsuak erabiliko dituzte sor daitezkeen gatazkak konpontzeko orduan, betiere tolerantzian eta elkartasunean oinarritutako jarrerak izango dituzte ikaskideekin eta hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideak sustatuko dituzte.

3.-Ikasleek badute, elkarbizitzaren kontra doazen eta berau larriki kaltetzen duten portaeren kasuan, neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduran laguntzeko eginbeharra. Horiek horrela, lekuko gisa deklaratu beharko dute zuzendariak edo kasuaren instrukzioa egiten duen edozein irakasle horretarako deitzen baditu.

#### **96. artikulua.- Kontzientzia pertsonalaren askatasuna errespetatzeko eginbeharra.**

1.-Ikasleek hezkuntza-erkidegoko kide guztien kontzientzia-askatasuna, konbikzio erlijioso eta moralak, duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, jaiotzarengatik, adinarengatik, arrazarengatik, sexuarengatik, egoera zibilarengatik, sexu-joerarengatik, gaitasun fisiko edo psikikoarengatik, osasun-egoerarengatik, hizkuntzarengatik, kulturarengatik,

erlijioarengatik, sinesmenarengatik, ideologiarengatik edo beste edozein gorabehera pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik inolako diskriminaziorik egin gabe.

2.-Ikasleek errespetatu beharko dute libreki adierazi, bildu edo elkartzeko banakako eskubideak era kolektiboan gauzatzeko orduan parte hartu nahi ez duten ikaskideen erabakia.

3.-Ikasleek errespetatu beharko dute ikasle bakoitzaren klasera joateko banakako eskubidea.

4.-Ikasleek ez dituzte esan beharko hezkuntza-erkidegoko edozein pertsona iraindu, mehatxatu edo difamatzeko moduko hitz edo esaldiak.

5.-Ikasleek ezin izango dituzte grabatzeko bitartekoak eskolaren esparruan erabili, bitarteko horiek ikastetxeak programatutako jardueretan erabiltzen diren kasuetan izan ezik. Hala ere, kasu horietan ere ezin izango zaio, haren borondatearen kontra edo espresuki baimenik eman gabe, hezkuntza-erkidegoko kide den inolako pertsonari grabatu.

### **97. artikulua.- Eskola-arauak errespetatzeko eginbeharra.**

1.-Antolamendu juridikoak hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, Ekialdea BHIren antolaketa-, elkarbizitza- eta diziplina-arauak ezagutu eta errespetatu beharko dituzte ikasleek eta, horretarako, erabat bete beharko dituzte antolaketa eta jarduera araudiaren xedapenak, ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta, izanez gero, idearioa edo izaera berezia errespetatuz, baita ados ez daudenean ere.

2.-Ikasleek ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, haien eskuduntzen esparruan, baita garbiketa pertsonalari edo norberaren gauzak, jantziak (biserak eta txanoak debekatuta egongo dira gelaren barruan), edo aparatu elektronikoak (mugikorra, MP3, MP4... debekatuta daude eskola-esparru osoan) erakusteari buruzkoak ere. Halaber, irakasleen argibideak bete beharko dituzte, legezko araudiak ematen dizkien funtzioen barruan.

3.-Halaber, ikasleek institutuko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, atsedendietan eskola-esparrutik irteteko gaia planteatzen den kasuetan. Halaber, irteten badira, portaera egokia erakutsi beharko dute.

Eskola-ordutegian ikastetxetik irten behar duen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako adin txikiko ikasleak gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia aurkeztu beharko du.

4.-Ikasleek dute ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileak betetzeko eginbeharra.

### **98. artikulua.- Instalazioak errespetatzeko eginbeharra.**

1.-Ikasleek badute institutuko instalazioak eta material didaktikoak kontserbatu eta behar bezala erabiltzeko eginbeharra. Horretarako, haien izaeraren arabera eta zertarako dauden kontuan hartuta erabiliko dituzte ikastetxearen instalazioak, altzariak eta hornikuntza eta, betiere, irakaslearen argibideei kasu eginez. Ezin izango dute ikastetxearen hornikuntza ezarritakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabili, ezta ordutegitik kanpo ere.

2.-Ikasleek ez diete kanpoko pertsonari ikastetxearen instalazioetara, baimenik gabe, sartzeko aukerarik emango eta ez dute legez kontra sartu den inor lagunduko. Hau argitzeko, legez eratu diren eta ikastetxean presentzia duten ikasleen elkartetako ordezkariak ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat joko, betiere elkarte horien ordezkariak direla egiaztatzeko agiriak badituzte eta etorriko direla ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi badiote.

3.-Ikasleek hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen gauza pertsonalak errespetatu behar dituzte eta behar bezala erabiltzeko baldintzetan eduki behar dituzte Ekialdea BHIren testuliburuak eta beste material didaktiko batzuk.

4.-Har litezkeen neurri zuzentzaileen kalterik gabe, ikasleek beren gain dute institutuaren instalazio, altzari edo materialetan egindako kalteak konpontzearen ardura, kalte horiek nahita edo arduragabekeria larriarengatik, antolaketa eta jarduera araudi honetan onartutako elkarbizitza-arauen kontrako portaeraren ondorioz, egin baldin badira. Alternatiba gisa, behar diren konponketen kostu ekonomikoaz arduratu ahal izango dira eta gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak, legeek ezarritako terminoetan.

### **99. artikulua.- Ikasleen eskubideak errespetatuko direla eta eginbeharrak beteko dituztela bermatzea.**

1.-Abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak ikasleei ezartzen dizkien eginbeharrak ez betetzea betiere, gutxienez, portaera desegokia da eta elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitzari kalte larriak ekartzen dizkion portaeratzat jo daiteke zenbait kasutan, hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideei eragiten badie edo era larrian eskubide horien kontra badoa.

2. Eginbehar horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak derrigorrean esku hartu behar du, elkarbizitzaren kontrako portaera zuzentzeko, aipatutako dekretuan eta araudi honetan xedatutakoaren arabera.

## **III. TITULUA: ZUZENDU BEHARREKO PORTAERAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK.**

### **I. KAPITULUA: zuzendu beharreko portaerak.**

#### **100. artikulua.- Ikasleen eginbeharrak ez betetzea diren portaerak zuzentzeko printzipio orokorrak.**

1.-Ikasleen eginbeharrak ez betetzea betiere, gutxienez, portaera desegokia izango da. Ez betetze horrek hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideak gauzatzeari eta eginbeharrak betetzeari eragiten badie, ikastetxeko elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen portaeratzat joko da.

2.-Ahalik eta azkarren zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko portaerari lotutako neurrien bidez, ikasleen eginbeharrak ez betetzea dakarten portaera guztiak, neurri horiek portaeraren ondorio natural gisa ikusi ahal izateko moduan, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretuan xedatutakoaren arabera.

3.-Hezkuntza-helburua izango dute, batez ere, neurri zuzentzaileek, bai portaera desegokia izan duen ikaslearentzat, bai gainontzeko ikasleentzat. Neurri horiek betetzea hezkuntza-praktikan integratu beharko da eta izango da oinarritzko gaitasun sozial eta herritarrak eta autonomia eta ekimen pertsonalari lotutakoak lortzeko lagungarri.

4.-Proporzionaltasunaren eta ahalik eta esku-hartzerik txikienaren printzipioen arabera ezarriko dira neurri zuzentzaileak eta kontziliazioaren eta ordainaren bidezko konponbideari emango zaio lehentasuna, hezkuntzaren aldetik ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatuz.

5.-Ikasleei ezin izango zaie hezkuntzarako eskubidea kendu. Horretarako, hezkuntza-administrazioarekin lankidetzan jardungo du Ekialdea BHIk, zigortutako ikasleari eskubide horiek gauzatzeko bide eta bitartekoak emateko.

6.-Ezin izango dira inoiz ezarri ikasleen osotasun fisikoaren eta duintasun pertsonalaren kontra doazen neurri zuzentzaileak, ezta haien funtsezko eskubideak urratzen dituztenak ere.

7.-Izandako portaera desagokien arabera izan beharko dira aipatutako dekretuan aurreikusten diren neurri zuzentzaileak eta ikasleen hezkuntza-prozesua hobetzeko lagungarri izatea izango dute azken helburu.

8.-Ikasleen adina, dauden eskola maila eta haien egoera pertsonal, familia mailakoak eta sozialak hartu beharko dituzte kontuan espedientea irekitzeko edo neurri zuzentzaileak ezartzeko eskuduntzak dituzten organoek, instrukzioa aurrera eramateko edo, behar denean, zigorra mailakatzeko orduan. Halaber, aipatutako zirkunstantziak aldatzera zuzenduko diren neurriak hartzeko eskaera egin ahal izango diete ikasleen gurasoei edo erakunde publiko eskudunei, ikaslearen portaera azaltzeko eragina dutela ematen baldin badu.

9.-Zuzendaritzak eta Eskola Kontseiluak beren gain hartuko dute, organo eskudunen bidez, neurri zuzentzaileak ezarri diren terminoetan benetan betetzearen ardura.

10.-Hezkuntza-erkidegoko kideek, oro har, eta irakasleek, bereziki, arreta berezia emango diote zuzendu ahal diren portaeren, araudi honetan aipatzen direnen, prebentzioari, gurasoekin eta ikasleen legezko ordezkariekin etengabe eta zuzenean harremanak izanez eta haiekin lankidetzan jardunez.

11.-Edozein gatazka motatan, lehenik eta behin inplikatuaren arteko elkarrizketaren bidez konpontzen saiatuko da. Gatazka ikasle eta irakaslearen artekoa bada eta bien arteko akordio batera iristen ez bada, pertsona eta erakunde hurbiletara joko da: tutorea, ikasketa-burua, zuzendaria, Elkarbizitza Batzordea.

### **101. artikulua.- Zuzendu behar diren portaerak.**

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 dekretuak desagokizat jotzen diren portaera guztiak, elkarbizitzaren kontrakoak edo elkarbizitzari kalte larriak egiten dizkietenak. Neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko portaerarekin zerikusia izaten saiatuko da, zuzendu behar den portaeraren beharrezko ondorio gisa ikusi ahal izateko moduan.

### **102. artikulua.- Portaera desagokia**

Ondorengo hauek dira portaera desagokia:

a) Bi puntualtasun hutsegite, bi klase-eguneko gehienezko epean behar bezala justifikatzen ez badira, portaera desagokien multzoan sartuko dira.

b) Asistentziaren hutsegiteak, bi klase-eguneko gehienezko epe batean behar bezala justifikatzen ez badira, portaera desagokizat joko dira.

c) Ikastetxearen egoitzak, materiala edo hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen gauzak hondatzea, hondatze hori arduragabekeriaren ondorioa bada.

d) Irakasle edo agintari akademikoak desobeditze hutsa, mespretxu, irain edo aurretik pentsatutako diziplina ez badakartza, baita ikastetxeko gainontzeko pertsonalak haren funtzioetan jarduten duenean, esandakoari kasurik ez egitea ere.

e) Jarrera, keinu edo hitzen bidez hezkuntza-erkidegoko kideen kontra begirunerik gabe jokatzea.

f) Ikastetxeko gobernu-organoek, beren eskuduntzen esparruan, debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparailuak ikastetxean erabiltzea.

g) Ikastetxearen hornikuntza, elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo beste edozein, baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabiltzea.

h) Ikastetxeko pertsonalari gezurra esan edo informazio faltsua ematea, hezkuntza-erkidegoko kide den inori kalte egiten ez badio.

i) Azterketa, proba edo kalifikaziorako baliagarri izango diren ariketetan kopiatzea edo beste ikasle batzuek kopiatzeko erraztasunak ematea, baita azterketa, proba edo ariketa horietan baimendu gabeko material edo aparatuak erabiltzea ere.

j) Baimenik ez duten pertsonen ikastetxera sartzen uztea edo haiekin sartzea, elkarbizitza-arauen edo institutuko gobernu-organoek emandako argibideen kontra.

k) Ikaskideen gauzak nahita eta haien borondatearen kontra erabiltzea.

l) Norberaren eginbeharrak ez betetzea, hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideak gauzatzeko eragozpena ez bada eta ikastetxearen elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duten portaeren multzoan sartzen ez bada. Atal honetan sartuko dira gelan elkarbizitzaren gutxienezko arauak mespretxatzea dakarten eta irakaskuntza-jarduera normaltasunez gauzatzeko oztokatzen duten jarrerak, ondorengoak esate baterako: jatea, edatea, aparatu elektronikoak (mugikorrek, MP3, walkmana, etab...) erabiltzea...

### **103. artikulua.- Ikastetxean elkarbizitzaren kontrako portaerak.**

1.-Ondorengoak dira elkarbizitzaren kontrako portaerak ikastetxean:

a) Institutuko gobernu-organoei edo irakasleei desobeditzea, desobeditzearekin batera diziplina eza badago edo mespretxuzko, desafiozko edo mehatxuzko esaldiak erabiltzen badira. Ikastetxearen gainontzeko pertsonalari, haren funtzioetan ari direnean, desobeditzea ere puntu honetan sartuko da.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuen aurkako mehatxuak edo irainak, ikastetxean elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren multzoan ez badaude, baita zalantzarik gabe eraso egiteko saio edo mehatxutzat har daitezkeen hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen kontrako keinu edo jarrerak ere.

c) Azterketen ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, baita hedatu, saldu edo erostea ere.

d) Nota-buletinak edo gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazteko beste edozein agiri aldatzea, baita, adin txikiko ikasleen kasuan, agiri horiek hartzailei ez ematea edo haien erantzunak aldatzea ere.

e) Nahita edo behar bezala ez erabiltzeagatik institutuko lokaletan, altzarietan edo dokumentuetan, edo hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen gauzetan, kalteak egitea, ikastetxean elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren multzoan sartzen ez badira.

f) Kontzienteki ez betetzea Ekialdea BHIko Ordezkaritza Organo Gorenak legez hartu dituen akordioak.

g) Beste pertsona batzuen ohorerako, intimitaterako eta irudirako eskubidea ez errespetatzea, haien, edo haien guraso edo legezko ordezkarien, baimenik gabe grabatzeko bitartekoak erabiliz.

h) Indarkeria fisikoa erabili gabe pertsona bati egiteko eskubidea duen zerbait egiten ez uztea edo, indarkeria fisikoa erabili gabe ere, haren borondatearen kontrako zerbait egitera behartzea.

i) Autobusean edo eskola-jantokian ordena aztoratzen duten portaerak, banakakoak eta kolektiboak, elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren multzoan sartzen ez badira.

J) Hezkuntza-erkidegoko edozein kideri lesio fisikoak egin ahal dizkioten objektuak zuhurtziarik gabe erabiltzea.

k) Ikastetxeko pertsonalari gezurrik esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren identitatea ezkutatzea, horrek hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuei kalte egiten badie.

l) Jaiotza, adina, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, kultura, erlijio, sinesmen, ideologia edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik diskriminazioa dakarren edozein portaera, elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren multzoan sartzen ez badira.

m) Aurreko artikuluan aipatutako portaera desegokietakoren bat hiruhileko akademiko berean hiru aldiz errepikatzea, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, adin txikiko ikasleen kasuan, guraso edo legezko ordezkariet jakinarazi bazaizkie.

n) Ikasleen eginbeharrak ez betetzea den beste edozein portaera, betiere hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideak gauzatzeko edo eginbeharrak betetzeko oztopoa bada eta, ikastetxean elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren barruan, hurrengo artikuluan agertzen ez bada.

#### **104. artikulua.- Ikastetxean elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak.**

1. Ondorengoak dira elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak:

a) Diziplina ezaren edo obedientzia ukatzearen ageriko ekintzak, ikastetxeko gobernu-organoeak edo irakasleek, haien eskuduntzez baliatuz, ezarritako neurri zuzentzaileak bete nahi ez izatea barne. Halaber, ahoz, idatziz, bitarteko informatikoen edo ikus-entzunezkoen bidez hezkuntza-erkidegoko kideen kontra egiten diren adierazpen iraingarri edo laidogarri larriak ere atal honetan sartuko dira.

b) Jaiotza, adina, arraza, sexu, egoeraz ibil, sexu-joera, gaitasun fisiko edo psikiko, osasun-egoera, kultura, erlijio, sinesmen, ideologia edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea.

c) Sexu-jazarpena, otsailaren 18ko 4/2005 legeak, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunarenak, xedatutakoaren arabera horrela definituko duguna: haren sexuarengatik eta hark nahi gabe pertsona baten kontra doan edozein portaera, ahoz, ahozko hizkera erabili gabe edo fisikoki gauzatua. Portaera horrek pertsonaren duintasunaren kontra jotzea du helburu edo ingurune larderiak, aurkako, apalgarri, umilgarri edo iraingarria sortu nahi zaio.

d) Hezkuntza-erkidegoko edozein kideren kontrako eraso fisikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-erkidegoko kideen osasun eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jarduerak egitera bultzatzea, tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera esate baterako.

f) Elkarbizitzaren kontrako portaera guztiak, kolektibitatearen edo publizitatea nahita egitearen zirkunstantziak gertatzen badira. Portaera horiek ahoz, idatziz eta ikus-entzunezkoen edo bitarteko informatikoen bidez gauzatu daitezke eta berdinen arteko tratu txarrak ere egoera honetan sartzen dira.

g) Lesioak sortzeko arrisku larria dakarten liskar edo portaera oldarkorrek eragitea edo haietan parte hartzea.

h) Institutuaren, pertsonalaren, beste ikasle batzuen edo hirugarren pertsonen instalazio edo ondasunetan, bakarka edo taldeka, kalteak egitea.

i) Autobusean edo eskola-jantokian ordena aztoratzen duten portaerak, hezkuntza-erkidegoko beste edozein kiderentzat arrisku-egoerak badakartzate.

j) Beste pertsona batzuen ohorerako, intimitaterako eta haien irudirako eskubidea ez errespetatzea, alde zuzenetik adierazitako haien borondatearen edo guraso edo legezko ordezkarien borondatearen kontra grabatzeko bitartekoak erabiliz.

k) Pertsona bat iruzurrez ordezkatzeko irakaskuntza-bizitzaren ekitaldietan.



l) Agiri edo eskola-erregistro bat kaltetu edo aldatzea, euskarri idatzian edo informatikoan, baita agiri akademikoak ezkutatu edo baimenik gabe erretiratzea ere.

m) Zigor-delitua edo hutsegitea litzatekeen nahita egindako edozein ekintza.

n) Aurreko artikuluan adierazitako elkarbizitzaren kontrako edozein portaera berriz, ikasturte berean hiru aldiz, egitea, m) puntuak agertzen den aizan ezik, betiere aurreko biak zuzendu eta guraso edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren eginbeharrak ez betetzea dakarren edozein portaera, hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen edo beste pertsona batzuen osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, ez diskriminatzeko, ohorerako, intimitaterako edo haien irudirako eskubidearen kontra zuzenean badao.

### **105. artikulua.- Ikastetxetik at erakutsitako portaerengatik edo egindako jarduerengatik erantzukizuna.**

1.-Aurreko artikuluetan azaldutako portaerak eskola-esparrutik edo ordutegitik at gertatu direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako eskolaz kanpoko jarduerak edo jarduera osagarriak egitean edo jantoki- edo garraio-zerbitzuak erabiltzean gauzatu badira.

2.-Halaber, portaera horien eta eskola-jardueraren artean kausa eta ondorioaren arteko harremana dagoela egiaztatzen bada, zuzendu beharko dira.

## **II. KAPITULUA: HEZKUNTZA-NEURRI ZUZENTZAILEAK.**

### **106. artikulua.- Portaera desegokiak zuzentzea.**

Irakasleek, jarraian aipatzen diren neurrietako baten edo batzuen bidez, zuzenduko dituzte portaera desegokiak.

- a) Portaera desegoki zehatzari eta haren ondorioei buruz hausnarketa egitea.
- b) Egindakoa aitortzea portaera desegokiaren ondorioz kaltetuak izan diren pertsonen.
- c) Portaera zuzenak ikasi eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Portaera desegokiari lotutako lanen bat egitea.
- e) Egoerak horrela eskatuz gero, zuzendariaren, ikasketa-buruaren edo ikastetxeko zuzendaritza-taldeko beste edozein kideren aurrean agertzeko agindua ematea.

### **107. artikulua.- Ikastetxean elkarbizitzaren kontrako portaerak zuzentzea.**

1.-Elkarbizitzaren kontrako portaerak zuzentzeko, zuzendariak jarraian aipatzen diren neurrietako batzuk aplikatu ahal izango ditu, aurreko artikuluan aipatzen direnez gain:

- a) Elkarbizitzaren kontrako portaera konkretuari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa egin eta zuzentzeko orientabideak ematea.
- b) Idatziz ohartaraztea.
- c) Gurasoak edo legezko ordezkariak aurrean daudela, ohartaraztea.
- d) Ikaslea behin-behingo edo behin-betikoz taldez edo gelaz aldatzea.
- e) Hezkuntza-lanak edo egindako kalteak konpontzeko edo ikastetxearen jarduerak hobetu eta garatzeko lagungarri diren beste batzuk egitea, betiere lan horiek elkarbizitzaren kontrako portaerari lotuta badaude, hiru hilabetetik gorakoa ezin izango den aldi batean.
- f) Kentzea arlo bat edo batzuetako klaseetara, baita jarduera osagarrietara, eskolaz kanpokoetara edo zerbitzuetara ere, joateko eskubidea, guraso edo legezko ordezkariekin elkarrizketa izan arte. Zigorra ezin izango da hiru egunetik gorakoa izan.

g) Kentzea eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea, zuzendu beharreko portaera gertatu den hiruhilekoaren bukaeratik edo, hiruhilekoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoaren bukaeratik haratago joan ezin izango den aldi baterako.

h) Kentzea ikastetxetik at egingo diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea, zuzendu beharreko portaera gertatu den hiruhilekoaren bukaeratik edo, hiruhilekoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoaren bukaeratik haratago joan ezin izango den aldi baterako, betiere eskola-ordutegian ikastetxearen barruan ematen baldin bazaio ikasleari arreta.

i) Kentzea jantoki- edo eskola-garraioaren zerbitzua erabiltzeko eskubidea, zuzendu beharreko portaera gertatu den hiruhilekoaren bukaeratik edo, hiruhilekoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoaren bukaeratik haratago joan ezin izango den aldi baterako, elkarbizitzaren kontrako portaera aipatutako zerbitzuak erabiltzearen ondorioz gertatu bada.

2.-1.a) eta 1.f) ataletan aipatutako neurriak aplikatu ondoren elkarbizitzari kalte larria egiten dioten portaerak zuzendu ez badira aplikatu ahal izango dira 1.g), 1.h) eta 1.i) ataletan agertzen diren neurriak, bestela ez.

### **108. artikulua.- Ikastetxean elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzentzea.**

1.-Zuzendariak zuzenduko ditu elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak, aurreko atalean agertzen diren neurrietako batzuk eta jarraian aipatzen direnak aplikatuz:

a) Eskola-ordutegitik at egitea hezkuntza-lanak edo ikastetxearen jarduerak hobetu edo garatzeko eta egindako kalte materialak konpontzeko lagungarri izan daitezkeen beste batzuk, sei hilabetetik gorakoa ezin izango den aldi batean.

b) Kentzea arlo edo irakasgai batzuetako klaseetara joateko eskubidea, hiru klase-egunetatik hogeira bitarteko aldi batean. Honek ez du etengabeko ebaluazioa galtzea ekarriko, betiere horretarako izendatzen diren irakasleen kontrolpean lan batzuk egiten badira.

c) Kentzea, hiru klase-egunetatik hogeira bitarteko aldi batean, ikastetxera joateko eskubidea eta derrigorrean egin beharko dira agintzen diren prestakuntza-jarduerak, irakasleen kontrolpean.

d) Kentzea ikastetxetik at egiten diren eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan parte hartzeko edo eskola-garraioaren edo jantoki-zerbitzua erabiltzeko eskubidea, ikasturtearen bukaerara artekoa izan daitekeen aldi batean.

2.-1.a) atalean aipatutako neurriak aplikatuz ez badira elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzendu, artikulua honen 1. puntuaren b), c) eta d) ataletan agertzen direnak erabili ahal izango dira, bestela ez.

### **109. artikulua.- Ikastetxez aldatzeko proposamena.**

1.-Ondorengo egoeretan egin ahal izango da ikastetxez aldatzeko proposamena:

a) Ikasleari bi aldiz, gutxienez, zigortu baldin bazaio ikastetxean elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerengatik, 104. artikulua 1.n) atalean adierazten dena izan ezik, lehen aldiz zigorra ezarri zaionetik ehun eta hogeita hamar klase-egun baino gehiago pasa ez badira.

b) Institutuan elkarbizitza era larrian kaltetzen duen portaera berdinen arteko tratu txarrak edo sexu-jazarpena bada.

c) Ikastetxeko irakasle bati eraso egiten bazaio.

d) Salbuespen gisa, hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuei eraso larriak egiten zaizkien kasuetan.

2.-Aurreko atalean adierazitako portaeretakoren bat izan duen ikaslea adinez nagusia bada edo derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzak egiten baditu, ikasle hori urrutiko ikastegi batera,

gaueko ikastegi batera edo helduen hezkuntzako ikastegi batera aldatzea proposatu ahal izango da.

3.-Hezkuntza lurralde ordezkariari helaraziko zaio ikastetxez aldatzeko proposamena eta honek hartuko du erabakia, Hezkuntza Ikuskaritzak alde zuzena egin ondoren.

**110. artikulua.- Ikasleak etengabe klasera huts egiteagatik etengabeko ebaluazioa egitea ezinezkoa denean.**

1.-Aurreko artikuluen arabera dagozkien neurri zuzentzaileak aplikatzearen kalterik gabe, asistentzia-hutsegite asko izateagatik ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluazioaren metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek aparteko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluatutako izateko.

2.-Proba horiek nolakoak izango diren erabakiko du Ekialdea BHIk, arlo edo irakasgai bakoitzaren arabera, betiere hezkuntza departamentu desberdinek erabakitakoaren menpe.

**111. artikulua.- Oinarrizko gaitasun sozial eta herritarra ebaluatzearen ondorioa.**

Oinarrizko gaitasun sozial eta herritarra ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzentzeko neurriek beren hezkuntza-helburuak lortu ez izana kontuan hartu ahal izango dute irakasle-taldeek edo departamentu didaktikoek oinarrizko gaitasun sozial eta herritarra ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan

**112. artikulua.- Balizko kalteengatik erantzukizuna.**

Aplikatu litezkeen neurri zuzentzaileen kalterik gabe, ikasleek beren gain dute ikastetxearen instalazio, altzari edo materialetan edo ikaskideen gauzetan egindako kalteak konpontzearen ardura, nahita eta arduragabekeria larriengatik edo ikastetxeak onartutako elkarbizitza-arauen kontrako portaera larriaren ondorioz egin badira. Alternatiba gisa, behar diren konponketen kostu ekonomikoak arduratu ahal izango dira eta gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira haien erantzule subsidiarioak, legeek finkatutako terminoetan.

**113. artikulua.- Proporzionaltasuna bermatzeko irizpideak neurri zuzentzaileak aplikatzeko orduan.**

1.-Azaldutako portaerak zuzentzeko neurriak aplikatu behar direnean, ondorengo puntuak hartu beharko dira kontuan:

a) Portaera horiek hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideak gauzatzeko eta eginbeharrak betetzeko prozesuari eragiten dioten maila.

b) Hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideek beren duintasun edo agintean pairatu ahal izan duten lesioa edo portaera horien ondorioz pairatu ahal izango zutena.

c) Ikaslearen portaeran eragina izan ahal duten zirkunstantzia pertsonal eta sozialak. Zirkunstantzia horiei esker behar bezala baloratu ahal izango dira eginbeharrak ez betetzearen garrantzia eta 3.3. artikuluan adierazten diren oinarrizko gaitasunetan dauden akatsak.

d) Portaera horren ekintzak gauzatzeko orduan izan diren zirkunstantziak.

2.-Ondorio horietarako, ondorengo zirkunstantziak gertatzen badira hain murriztaileak ez diren neurriak aplikatu ahal izango dira:

a) Zuzendu beharreko portaera bat-batean aitortzea.

b) Portaera hori lehenago zuzendu ez izana.

c) Materialetan edo ondasun higigarrietan edo higiezinetan kalteak egin izan diren kasuetan, eskola-ordutegitik at konpontzea edo konpontzeko konpromisoa, prozedura ebatzi aurretik hitzartua.

- d) Publikoki barkamena eskatzea.
- e) Egindakoa bezalako kalte larria egin nahi ez izana.
- f) Eraso fisikoaren kasuan, inolako kalterik egin ez izana.
- g) Zuzendu beharreko portaera etengabe gertatzen bada, a, d eta e zirkunstantziak ez dira hain era murriztailean aplikatuko.

3.- Ondorengo zirkunstantzietan neurri zuzentzaile gehiago behar direla interpretatuko da:

a) Zuzendu beharreko portaeraren ekintza edo ez egiteak ondorengo baldintzak betetzen dituen pertsona baten kontra egiten badira: adin txikikoa izatea, elbarria izatea, gutxiagotasun fisikoa, ikastetxera duela gutxi sartu izana edo nagusikeria izan dela aditzera ematen duen beste edozein zirkunstantzia.

b) Portaera txarra nahita egitea.

c) Portaera txarra aurrez pentsatua izatea.

d) Zuzendu beharreko portaeraren ekintzak edo ez egiteak gauzatzera norbaiti sustatu edo zirikatatu baldin bazaio.

e) Zuzendu beharreko portaeraren ekintzak gauzatzeko eskola-esparruan izaten den ordezkari-karguarekin gehiegikeriak gertatu baldin badira.

f) Zuzendu beharreko portaera behin eta berriz gertatu baldin bada.

4.- Aurreko ataletan adierazitako zirkunstantzia batzuk batera gertatzen badira, kontuan hartuko da neurri zuzentzaileak era mailakatuan aplikatzeko orduan.

### **III. KAPITULUA: PORTAERAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK.**

#### **114. artikulua.- Xedapen orokorrak.**

1.- Kapitulu honetan aipatzen diren bide alternatiboetako bat erabiliz saiaturik da elkarbizitza-arazoak konpontzen zuzendaria, A.J.A. ren 106, 107 eta 108 artikuluetan ezarritako prozedurak erabili behar izan gabe.

2.- Batez ere, haren portaerarekin hezkuntza-erkidegoko beste kide batzuen eskubideak urratu dituen ikaslea eta portaera horren ondorioz haien eskubideak kaltetuak izan diren beste horiek adiskidetzen saiatu beharko da, baita egindako kalte material edo moralak osatzea ere.

3.- Elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitzari kalte larriak ekartzen dizkieten portaerak bide alternatibo horiek erabiliz zuzentzen badira, eman beharko zaie Ordezkaritza Organo Gorenari, edo Eskola Kontseiluari, eta irakasleen klaustroari horren berri.

4.- Portaera txarrak berriz egin direla aditzera ematearen ondorioetarako, ez beste ezertarako, jasota geratuko dira ikastetxean kapitulu honetan agertutako bide alternatiboak erabiliz zuzendu diren elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitzari kalte larriak ekartzen dizkieten portaerak.

#### **115. artikulua.- prozedurarik gabe onartzen diren hezkuntza-neurriak.**

1.- Elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larria kaltetzen duen portaera bat gertatzen den guztietan, zuzendariak, ikasleak edo haren guraso edo legezko ordezkariak borondatez onartutako neurrien bidez, saiatu beharko du portaera hori zuzentzen. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedura hasiko.

2.- Kasu hauek salbuesten dira:

- a) Adinez nagusi diren ikasleen portaerak, ikastetxearen elkarbizitza era larrian kaltetzen badute.
- b) 109. artikuluan adierazitakoak.
- c) Elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duten bi portaera, gutxienez, horrela zuzentzen saiatu ondoren ez bada nahi zen hezkuntza-helburua lortu.

**116. artikulua.- Adiskidetzea gertatzearen ondorioz prozedura bertan behera uztea.**

1.- Adiskidetzea gertatuz gero, prozedura bertan behera utzi beharko da. Adiskidetze horrek puntu hauek ekartzen ditu:

- a) Ikasleak aitortzea elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duen portaeraren ondoriozko kaltea; hezkuntza-erkidegoko gainontzeko kideen eskubideak urratu diren kasuak, zehatzago.
- b) Barkamena eskatzea.
- c) Iraindutako pertsonak, edo dagokion ikastetxearen organoak, barkamena onartzea.
- d) Hezkuntza-jardueraren bat egitea onartzea.

2.- 109. artikuluan adierazitako portaeren kasuan, adiskidetzeak ez du prozedura bertan behera uztea ekarriko baina hain murriztaileak ez diren neurriak aplikatzea eragingo du.

**117. artikulua.- Adiskidetzea gertatzearengatik prozedura bertan behera uztea.**

1.- Ondorengo kasuetan bertan behera utziko da prozedura: biktimari edo elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duen portaeraren ondorioz pertsona edo instituzioei egindako kaltea osatu bada edo egindako kaltea osatzeko egiazko konpromisoa badago, bai kalte materialak, bai kalte moralak.

2.- 109. artikuluan adierazitako portaeren kasuan, kalteak osatzeak edo osatzeko konpromisoak ez dute prozedura bertan behera uztea ekarriko baina hain murriztaileak ez diren neurriak aplikatu ahal izango dira.

**118. artikulua.- Portaera familiaren esparruan zuzentzeagatik prozedura bertan behera uztea.**

Zuzendariaren iritziz portaera familiaren esparruan behar bezala zuzendu bada edo zuzentzen ari bada, bertan behera utzi ahal izango da prozedura, 109. artikuluan aipatzen diren portaerak izan ezik.

**119. artikulua.- Neurri zuzentzaileak bertan behera utzi, arindu edo barkatzea.**

1.- Prozedura ebatzi ondoren, zuzendariak, iraindutako pertsonen entzun ostean, hartu ahal izango du aplikatutako neurriak behin-behingo bertan behera uzteko erabakia, baita zigorra betetzeko denbora gutxitu edo zigorra baliogabetzeko erabakia ere, ofizioz edo interesatuen edo, adin txikikoen kasuan, haien legezko ordezkarien eskariz, alde zuzenetik ikaslearen jarreraren aldaketa positiboa gertatu dela egiaztatzen bada.

2.- Balizko baliogabetze horrek ez du jokaera txarra errepikatu dela aintzat hartzea eragotziko, zuzendu beharreko portaerak errepikatzen badira.

3.-Arrazoi horregatik aplikatzen diren neurri zuzentzaileak bertan behera utziz gero, horren berri eman beharko zaie Ekialdea BHIko Ordezkaritza Organo Gorenari, edo Eskola Kontseiluari, eta irakasleen klaustroari.

#### **120. artikulua.- Elkarbizitzarako hezkuntza-konpromisoak.**

1.-Kasu guztietan, baita kaltetutako pertsonak edo pertsonak barkamen eskaera onartu ez izanagatik adiskidetzeari gertatu ez denean ere, ikasleak edo, adin txikikoa bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak elkarbizitzarako hezkuntza-konpromiso bat izenpetzen badute bertan behera utzi ahal izango da neurri zuzentzaileen aplikazioa.

2.-Elkarbizitzarako hezkuntza-konpromisoetan zehatz eta kronologikoki kokatuak agertu beharko dute ikasleak elkarbizitzan prestatzeko edo elkarbizitzaren kontrako portaerak zuzentzeko gurasoek edo legezko ordezkariak, haiek beraiek edo instituzio, ikastetxe eta pertsona egokien esku-hartzearen bidez, aurrera eramateko beren gain hartzen dituzten konpromisoak. Halaber, ikastetxearekin komunikatu eta koordinatzeko mekanismoak agertu beharko dira.

3.-Elkarbizitzarako hezkuntza-konpromisoak bete ezean, bertan behera utzitako neurri zuzentzaileak berehala aplikatuko dira.

## **IV. KAPITULUA. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURA.**

### **Lehen atala. Xedapen orokorrak.**

#### **121. artikulua.- Araudian sailkatuta ez dauden portaerei neurri zuzentzaileak aplikatzeko debekua.**

1.-Eskubide eta eginbeharrei buruzko dekretuak xedatutakoaren arabera, araudi honetan desegokitzen edo elkarbizitzaren kontratuz josten ez diren portaerengatik ez zaio inolako ikasleri neurri zuzentzaileak aplikatuko.

2.-Zuzendu ahal diren portaerak hezkuntza-erkidego guztiak ezagutuko dituela bermatzeko asmoz, ikasturte bakoitzaren hasieran Ekialdea BHIk, nahi duen prozeduraren bidez, dekretu honen edukia jakinarazi edo gogoraraziko die irakasle, ikasle eta guraso edo legezko ordezkariak, baita gure institutuaren antolaketa eta jardura araudian sartuta dauden elkarbizitza-arauak ere.

3.-Adin txikiko ikasleen kasuan, prozedura osoan familiak esku hartzen saiatu beharko da, baita ikasleen ohorerako, duintasunerako, intimitaterako eta haien irudirako eskubidea ere.

#### **122. artikulua.- Arbuiatzen den portaera ikasleari jakinarazi eta, edozein neurri zuzentzaile hartu aurretik, entzutearen betebeharra.**

1.-Edonola ere, aipatutako dekretuak xedatutakoaren arabera, aurpegiratzen zaion ekintza edo ez egitea zein den ahoz edo idatziz jakinarazi beharko zaio ikasleari, baita ekintza edo ez egite hori portaera desegokia edo elkarbizitzaren kontrakoa dela edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duela ere.

2.-Halaber, ezinbestean entzun beharko zaio ikasleari eta haren burua defenditzeko egiten dituen alegazioak hartu beharko dira kontuan.

3.-Institutuan elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren kasuan, adin txikiko ikaslearen guraso edo legezko ordezkariari entzun beharko zaie. Halaber, ikastetxean elkarbizitzaren kontrako portaerak besterik ez diren arren, aplikatu nahi den neurri zuzentzailea 107.1.g), h) eta i) artikuluan azaltzen direnetako bat baldin bada, entzun beharko zaie guraso edo legezko ordezkariari.

### **123. artikulua.- Elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzentzeko erabili beharreko prozedurak.**

Derrigorrean erabili beharko da kapitulu honetan araututako prozeduretako bat elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzentzeko orduan, ezin izan badira III. kapituluaz azaldutako bide alternatiboak aplikatu.

### **124. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskuduna.**

1.-Ekialdea BHIko irakasle guztiek badute ikasleen portaera desagokiak, gelan edo ikastetxearen edo ikastetxetik kanpoko beste instalazio batzuetan haien zaintza zuzenpean dauden bitartean, berehala zuzentzeko ahalmena.

2.-Irakasle guztiek, haiek aurrean daudela elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duen portaera bat gertatuz gero, dute ikaslea berehala ahoz ohartarazteko ahalmena, baita zuzendariarengana, ikasketa-buruarengana edo une horretan ikastetxearen ardura duen zuzendaritza-taldeko kidearengana joan dadila agintzeko ere, pertsonari edo gauzei kalterik ez egiteko berehala hartu behar diren neurrien kalterik gabe.

3.-Zuzendaria da elkarbizitzaren kontrako portaerak edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzentzeko organo eskuduna.

4.-Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua da zuzendariaren erabakiak berrikusteko ahalmena duen organoa, dekretu honek ezarritakoaren arabera.

### **125. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.**

1.-Klase-egunetan adieraziko dira kapitulu honetan araututako prozedurari lotutako egintzak gauzatzeko epe guztiak.

2.-Ondorio horietarako, astelehenetik ostiralera bitarteko lanegun guztiak, irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera arte, joko dira klase-eguntzat, oporraldiak kenduta.

### **126. artikulua.- Epea pasa izanagatik prozedurari hasiera emateko debekua.**

Ondorengo kasuetan ez da eskola-esparruan neurri zuzentzaileak aplikatzeko inolako prozedurarik hasiko, portaera desagokiak, elkarbizitzaren kontrakoak edo elkarbizitzari kalte larriak egiten dizkieten horiek gertatu direla ezagutu arren:

a) Ehun eta hogeita egun baino gehiago pasa badira elkarbizitza era larria kaltetzen duen portaeraren ekintzak edo ez egiteak gertatu direnetik.

b) Hirurogei egun baino gehiago pasa badira elkarbizitzaren kontrako portaeraren ekintzak edo ez egiteak gertatu direnetik.

c) Hogeigun baino gehiago pasa badira portaera desegokiaren ekintzak edo ez egiteak gertatu direnetik.

### **127. artikulua.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.**

1.-Neurri zuzentzaileak ondorengo kasuetan aplikatzen hasi ahal izango dira.

a) Elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzentzeko neurrien kasuan, erreklamazioa edo helegitea jartzeko epeak bukatzen duen unetik.

b) Portaera desegokiak zuzentzeko neurrien kasuan, erabakitzen diren unetik.

2.-Ondorengo kasuetan ezin izango dira neurri zuzentzaileak aplikatu:

a) Elkarbizitzari kalte larria egiten dioten portaeren kasuan, ehun eta hogeigun baino gehiago pasa badira, neurri horiek aplikatzea behin-betiko erabaki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

b) Elkarbizitzaren kontrako portaeren kasuetan, hirurogeigun baino gehiago pasa badira, neurri horiek aplikatzea behin-betiko erabaki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

c) Portaera desegokiaren kasuan, hogeigun baino gehiago pasa badira.

### **128. artikulua.- Ikastetxean jakinarazpen eta erreklamazioak egiteko era eta epeak.**

1.-Jakinarazitako egintza gertatu den klase-eguna pasa eta hurrengoak bukatu aurretik egin beharko dira dekretu honetan araututako prozeduren egintza bakoitzaren jakinarazpenak.

2.-Hiru egunekoa izango da kapitulu honetan araututako prozeduretan kontuan hartzen diren erreklamazioak aurkezteko epea.

3.-Hartzaileak jaso dituela jakiteko moduko edozein bitarteko erabili ahal izango da hezkuntza-erkidegoko kideei jakinarazpen eta hitzorduak helarazteko, dekretu honek araututako prozeduren barruan.

### **129. artikulua.- Datu pertsonalen trataera, babesa eta baliogabetzea dekretu honetan araututako prozeduretan.**

1.-Ohiko edo aparteko prozeduraren dokumentazioan, ez beste inon, agertuko dira zuzendutako portaerei buruzko datuak. Ez dira ikastetxean inolako fitxategi edo erregistro iraunkorrera transferituko, kontserbatuko dira eta, behin-behingo, beste ikastetxe bati transferituko zaizkio, maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzarenak, hogeita hirugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.

2.-Edonola ere, dekretu honetan araututako prozeduretan sortutako dokumentazioa prozedura gauzatu zen ikasturteak bukatu ondoren suntsitu beharko da, elkarbizitzaren kontrako portaeren kasuan, eta prozedura gauzatu zen ikasturtearen hurrengoak bukatu ondoren, elkarbizitzari kalte larria egiten dioten portaeren kasuan. 3.- Esku hartzen duten pertsona guztien ohorerako, duintasunerako, intimitaterako eta irudirako eskubideak babestu beharko dira prozeduraren tramite guztietan, adin txikiko ikasleentzat batez ere.

### **130. artikulua.- Erreklamazioak eta helegiteak.**

1.-Ikasleak, edo gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioa jarri ahal izango dio Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari zuzendariaren ebazpenaren kontra eta organo horrek ebazpena berrikusi ahal izango du.



2.-Ikasleak erreklamazioa jarri ahal izango dio tokian tokiko Hezkuntza ordezkaritari Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakiaren kontra, hiru laneguneko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.-Interesatuak gorako helegitea jarri ahal izango dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, erreklamazioa atzera botatzen bada.

### **Bigarren atala. Portaera desegokiak zuzentzea.**

#### **131. artikulua.- Ahozko prozedura portaera desegokiak zuzentzeko orduan.**

1.-Prozedura guztiz ahozkoa erabili ahal izango da portaera desegokiak zuzentzeko orduan. Hala ere, 107.1.m. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, portaera desegokiak metatuz, alde aurretik idatziz jasota agertu beharko dute aplikatu diren neurri zuzentzaileak, baita, adin txikiko ikasleen kasuan, gurasoei edo legezko ordezkariari aplikatutako neurriak jakinarazi zaizkiela ere.

2.-107.1.m. artikuluan xedatutako ondorioetarako metatu ahal badira, bestela ez, agertuko dira ikastetxearen dokumentazioan portaera desegokiak eta berauei aplikatutako neurri zuzentzaileak, betiere aparteko folioetan edo euskarri informatikoan. Geroago fisikoki suntsituko dira, interesatuaren edo haren guraso edo legezko ordezkariaren eskariz. Eskaera ofizioz egin ezean, portaerak gertatu diren ikasturtearen bukaeran suntsituko dira.

### **Hirugarren atala.- Elkarbizitzaren kontrako eta elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zuzentzeko ohiko prozedura.**

#### **132. artikulua.- Ohiko prozedura erabiltzea.**

1.-Zuzendu beharreko portaeraren gertaerak eta haien egilea begi-bistakoak direnean, ohiko prozedura erabili ahal izango da.

2.-Prozedura honi ofizioz emango zaio hasiera, idatziz egingo da eta, gutxienez, hasierako egintza, ikasleari, edo guraso edo legezko ordezkariari, entzuteko tramitea eta prozedurari bukaera emateko ebazpena izango ditu.

#### **133. artikulua.- Hasierako egintzaren gutxienezko edukia.**

1.-Hasierako egintzak puntu hauek sartu beharko ditu:

- a) Arbuiatzen den portaeraren azalpena.
- b) Ikastetxean elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren multzoan sartzea.
- c) Dekretu honetan aipatzen direnen artean aplikatu litezkeen neurriak, arbuiatzen den portaeraren izaera kontuan hartuta.
- d) Neurria aplikatzeko ahalmena duen organoa eta ahalmen hori ematen dion araua.

2.-Halaber, adiskidetzea edo kaltea osatzea direla-eta dekretu honetan agertzen diren egoerak sartuko dira.

#### **134. artikulua.- Hasierako egintza jakinaraztea eta alde aurretik entzuteko hitzordua ematea.**

1.-Arbuiatzen den portaeraren ikasle arduradunari emango zaio, betiere, hasierako egintzaren berri, baita adin txikiko ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari ere.

2.-Ikasleari, edo guraso edo legezko ordezkariet, aldeztu aurretik entzuteko hitzordua gehituko zaio hasierako egintza jakinarazteko idazkiari, eguna eta ordua adieraziz.

### **135. artikulua.- Behin-behineko neurriak.**

Zuzendariak, bere irizpidearen arabera irakaskuntza-jarduerak normaltasunez gauzatu direla bermatzeko beharrezkoa baldin bada, hartu ahal izango du behin-behineko ikaslea klasera joateko eskubidea bertan behera uzteko erabakia, elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larria kaltetzen duen portaera gertatu den gelan, ikasle horri entzuteko tramitea gauzatu arte.

### **136. artikulua.- Ikasleari entzuteko tramitea.**

1.-Ikaslearen alegazioek idatziz jasota geratu beharko dute entzuteko tramitean, bai erredaktatuta eta izenpetuta aurkezten dituztelako, bai idatziz jaso, irakurri eta tramite horretan izenpetzen direlako. Edonola ere, ikasleak izenpetu nahi ez badu, beste pertsona batek sinatutako adierazpena izango da baliagarri, agertzen diren alegazioak izenpetu nahi ez duen ikasleak egin dituenak direla egiaztatzeko.

2.-Adin txikiko ikasleentz guraso edo legezko ordezkariet izango dute egoteko eskubidea, baita haiei derrigorrean entzun behar ez zaient kasuetan ere. Esku hartu gabe entzungo dituzte egiten diren alegazioak eta, nahi izanez gero, bereak egin ahal izango dituzte. Halaber, interesatuaren eta, behar izanez gero, guraso edo legezko ordezkariet alegazioek idatziz jasota agertu beharko dute.

3.-121.3. artikuluan adierazitako kasuan, hitzordua eman beharko zaie derrigorrean guraso edo legezko ordezkariet ikasleari entzuteko tramiterako. Hala ere, justifikaziorik gabe huts egiten badute, aurrera jarraitu beharko da prozedurarekin.

### **137. artikulua.- Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.**

1.-Ikasleari eta, behar izanez gero, guraso edo legezko ordezkariet eta egon daitezkeen lekukoei entzun ondoren, zuzendariak, edo legez ordezkariet duenak, aldeztu aurretik jasota agertzen diren gertakariak eta, ikaslearen alegazioak eta lekukoentz adierazpenak direla-eta, ardura arintzeko baliagarri izan daitezkeen zirkunstantziak kontuan hartuta, nahi dituen neurri zuzentzaileak aplikatuko ditu, zuzendu beharreko portaeraren barruko gertaerentz izatera eta larritasunaren arabera eta proportzionaltasunaren printzipioa kontuan hartuta.

2.-Zuzendariak idazki arrazoituaren bidez jakinarazi beharko du erabakia. Erreklamazioa edo helegitea aurkeztuz gero, ebazteko ahalmena duen organoak kontuan hartu beharreko puntu guztietz agertu beharko dute idazki horretan, gertakari edo zuzentzaileko oinarri gisa. Gutxienez, ondorengoak agertuko dira:

a) Ikastetxean elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaerak zeintzuk diren ikasleei jakinarazteko era.

b) Elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duen portaerentz gertakariak azaltzea.

c) Arbuiatzen zaion portaera zein den argi eta garbi jakinarazi zaiola ikasleari adieraztea, jokaera hori zuzendu nahi diren portaerentz multzoan sartzen dela azalduz.

d) Aitortu, ukatu, ñabardurak egin edo egin duena justifikatzeko ikasleak egindako alegazio edo adierazpenak, baita, baldin badaude, guraso edo legezko ordezkariet egin dituztenak eta balizko lekukoentz adierazpenak ere.

e) Zuzendariaren iritziz, ikaslearen portaera azaltzeko orduan astungarri, aringarri edo errugabetezko modukoak izan daitezkeen zirkunstantziak existitzea edo ez existitzea.

f) Ezartzen diren neurri zuzentzaileak eta noiz aplikatzen hasi behar diren zehaztea.

g) Ordezkaritza Organo Gorenari erreklamazioa aurkezteko epea, ezin izango dena inoiz bi klase-egun baino gehiagokoa izan.

3.-Entzuteko tramitea gertatzen den klase-egunaren hurrengoaren klaseek bukatu aurretik entregatu beharko dio zuzendariak ikasleari idazkia eta, adin txikikoa bada, epe berean bidali beharko die guraso edo legezko ordezkariari, jaso dutela idatziz egiaztatu ahal izateko moduko bitarteko bat erabiliz.

### **138. artikulua.- Tokian tokiko Hezkuntza Ordezkaritzari eta, behar denean, gizarte-zerbitzuei jakinaraztea.**

1.-Aplikaturako neurri zuzentzailea elkarbizitza era larria kaltetzen duen portaera bati buruzkoa den kasuetan, tokian tokiko Hezkuntza Ordezkaritzari bidaliko zaio jakinarazpenaren kopia. Halaber, elkarbizitzaren kontrako portaera denean, aplikaturako neurriak ikastetxera joateko edo garraio- eta jantoki-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako etetea badakar, kopia ere bidaliko da.

2.-Kasu beretan, Foru Aldundietako edo Udaletako gizarte-zerbitzuek laguntza ematen dieten ikasleen kasuetan, eman beharko zaie zerbitzu horiei aplikaturako neurriaren berri, jakinaren gainean egon daitezen eta jarraipena egin dezaten.

3.-Artikulu honetan xedatutakoa betez egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentzialtasunaren printzipioaren eta erreserbaz jokatzeko eginbeharraren babespean daude.

### **139. artikulua.- Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari erreklamazioa egitea.**

Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak, ikaslearen edo guraso edo legezko ordezkarien eskariz, izango du zuzendariak hartutako erabakia berrikusteko ahalmena eta, nahi izanez gero, behar diren neurriak proposatu ahal izango ditu.

### **140. artikulua.- Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakia.**

1.-Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak, aplikatu beharreko neurria erabakitzen den idazki arrazoitua ikusita eta ikaslearen edo, adin txikikoa bada, haren guraso edo legezko ordezkarien erreklamazioan agertzen diren alegazioak kontuan hartuta, neurria berretsiko du, haren ustez dekretu honetan xedatutakoaren arabera baldin bada. Horrela gertatu ezean, berrikusteko erabakia hartuko du.

2.-Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak, kideen gehiengo absolutuz onartutako akordioaren bidez, bere eskuduntzak eskuordetu ahal izango ditu, ikastetxeak Antolaketa eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian ezarrita dituen batzorde delegatuetako batean edo horretarako osatu den batzordean. Edonola ere, dekretu honen aplikazioari lotutako funtzioak betetzeko, Ordezkaritza Organo Gorenarako edo Eskola Kontseilurako legez ezarritako guraso, ikasle eta irakasleen proportzioak errespetatu beharko dira eta, horretarako, boto ponderatuaren sistema jarri ahal izango da.

3.-Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hiru eguneko gehienezko epea izango du erabakia hartzeko.

### **141. artikulua.- Jakinarazpena.**

1.-Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak ikasleari edo guraso edo legezko ordezkariari egingo dien jakinarazpenean akordio horren eduki osoa agertuko da. Akordio

horretan hartutako erabakia arrazoituko da, zuzendariaren aurreko erabakia nahiz berretsi, nahiz berrikusi, eta adieraziko da Hezkuntza lurralde ordezkariari erreklamazioa jartzeko epea.

2.-Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren akordioa lurralde ordezkariari eta gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaie, 141. artikuluan agertzen diren egoeretan.

### **Laugarren atala- Aparteko prozedura.**

#### **142. artikulua.- Aparteko prozedurari hasiera emateko epea.**

1.-Zuzendu beharreko portaeraren gertaerak edo haien egilea bakarrik kaltetuaren salaketaren edo hirugarren pertsonen bidez ezagutzen badira edo, beste edozein arrazoirengatik, begi-bistakoak ez badira, aparteko prozedura erabiliko da, hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2.-112. artikulua 3. eta 4. ataletan xedatutakoaren arabera ikastetxez aldatzeko neurria proposatzeko aukera baldin badago, portaera horien kasuan ere aparteko prozedura erabili beharko da.

3.-Zuzendariak izango du aparteko prozedura aukeratzeko ahalmena, haren iritziz egokia baldin bada.

#### **143. artikulua.- Aparteko prozedurari hasiera emateko epea.**

Zuzendariak eman beharko dio aparteko prozedurari hasiera. Idatzi beharko da, hiru eguneko gehieneko epean, ikastetxean elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duen portaera izan litezkeen gertaerak ezagutu ziren egunetik kontatzen hasita.

#### **144. artikulua.- Hasierako egintzaren gutxienezko edukia.**

Hasierako egintzak puntu hauek sartu beharko ditu:

a) Arbuiatzen den portaera zein den azaltzea, elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitzari kalte larriak egiten dizkieten portaera gisa definitutakoan multzoan sar daitekeela adieraztea eta neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera

b) Instrukzio-egilea izendatzea.

c) Dekretu honen III. kapituluaren agertzen diren bide alternatiboak erabiliz prozedura bertan behera uzteko aukera.

#### **145. artikulua.- Instrukzio-egile bat izendatzea.**

1.-Zuzendariak instrukzio-egile bat izendatuko du ikastetxeko irakasleen artean.

2.-Izendatutako irakasleak onartu beharko du izendapena, uko egiteko arauzko arrazoiakoren bat gertatu ezean. Kasu horretan abstenitu beharko du.

3.-Instrukzio-egileak egun bateko epean, izendatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, abstenitzeko idazki bat aurkeztzen badu, zuzendariak, alegatutako arrazoiak aztertu ondoren, egokiak direla uste badu beste instrukzio-egile bat izendatuko du. Kontrako kasuan, hasierako izendapena baieztatuko du.

#### **146. artikulua.- Hasierako egintza eta har daitezkeen behin-behineko neurriak jakinaraztea.**

1.-Arbuiatzen den portaera izan duen ikasleari betiere jakinaraziko zaio hasierako egintza, baita adin txikiko ikasleen guraso edo legezko ordezkariari ere.

2.-138. artikuluan ohiko prozedurarako adierazitako baldintza berberetan zuzendariak behin-behineko neurriak hartuz gero, ikasleari jakinaraziko dizkio eta, adin txikiko ikasleen kasuan, guraso edo legezko ordezkarietara.

#### **147. artikulua.- Instrukzio-egileari uko egiteko aukera.**

1.-Ikasleak edo, adin txikikoa bada, gurasoek edo legezko ordezkarietara izango dute instrukzio-egileari uko egiteko ahalmena, uko egiteko arauzko arrazoietakoren bat gertatzen bada.

2.-Egoera hori gertatuz gero eta uko egitearen arrazoiak instrukzio-egileak onartzen baditu, beste pertsona bati izendatuko zaio. Instrukzio-egileak izendapenari uko egiteko arrazoiak onartzen ez baditu, zuzendariak, bi aldeek alegatutako arrazoiak aztertu ondoren eta nahi dituen txosten eta aholkularitzak alde aurretik eskatu ostean, hiru eguneko epe batean hartuko du erabakia.

3.-Zuzendariaren erabakia ikasleari jakinaraziko zaio eta, adin txikikoa bada, haren guraso edo legezko ordezkarietara.

#### **148. artikulua.- Instrukzio-egilearen egintzak.**

Instrukzio-egileak nahi dituen egintzak gauzatuko ditu, ofizioz, instrukzioa aurrera eramateko, ikasleari arbuia ematen zaion portaeraren gertakariak ezagutu eta egiaztatze asmoz.

Halaber, ikasleak egin litzakeen alegazioak eta, entzuteko tramitea gauzatu aurretik, ekar litzakeen agiriak edo beste elementu batzuk hartu beharko ditu kontuan.

#### **149. artikulua.- Ministerio Fiskalari jakinaraztea.**

1.-Instrukzio-egileak egotzitako portaera edo gertakariak delitua edo zigor-hutsegitea izan daitezkeela uste badu, horren berri eman beharko dio zuzendariari, behar izanez gero Ministerio Fiskalari eta Hezkuntza Ikuskaritzari helarazteko.

2.-Ikaslea adin txikikoa bada, ondorengo zirkunstantzien berri ere eman beharko da, urtarrilaren 12ko 5/2000 lege organikoak, Adin Txikikoaren Zigor Ardurarenak, 18. eta 19. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako:

- a) Hezkuntza-esparruan zuzentzen ari badira.
- b) Adiskidetzea gertatzen bada.
- c) Kaltea osatu bada edo horretarako konpromisoa badago.

3.-Zuzendariak tokian tokiko Hezkuntza lurralde ordezkariari igorriko dio Ministerio Fiskalari bidalitako jakinarazpenaren kopia.

#### **150. artikulua.- Entzuteko tramitea gauzatzeko hitzordua.**

1.-Instrukzio-egileak entzuteko tramitea gauzatzeko hitzordua emango dio ikasleari eta, adin txikikoa bada, guraso edo legezko ordezkarietara jakinaraziko die, eguna eta ordua adieraziz. 62.3. artikuluan aipatutako kasuetan derrigorrean ere eman beharko die hitzordua gurasoei edo legezko ordezkarietara.

2.-Hitzorduekin batera ondorengo puntuak sartuko dituen idazki bat ere egongo da:

- a) Arbuia ematen den portaeraren azalpena.
- b) Ikastetxean elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitza era larrian kaltetzen duten portaeren multzoan sartutakoren batekin bat etortzea.

- c) Dekretu honetan agertzen diren neurri zuzentzaileak, arbuiatzen den portaera nolakoa den kontuan hartuta aplikatu litezkeenak.
- d) Neurria aplikatzea erabakitzeke ahalmena duen organoa eta ahalmen hori ematen dion araua.
- e) Kontrakoa frogatzeko bitartekoak proposatzeko aukera.

### **151. artikulua.- Ikasleari entzuteko tramitea.**

1.-kasleari entzuteko tramiterako 62. artikuluan ohiko prozedurarako aipatutakoa aplikatuko da.

2.-Gainera, prozeduran agertzen den dokumentazio guztia erakutsi beharko zaio ikasleari eta, adin txikikoa bada, haren guraso edo legezko ordezkariari, betiere indarreko legeriak ezartzen duen zuhurtasuna errespetatuz, nahi duten guztia alegatzeko aukera izan dezaten eta egokitzat jotzen dituzten frogak proposa ditzaten.

### **152. artikulua.- Ebazpen-proposamena.**

1.-Entzuteko tramitea bukatu ondoren, instrukzio-egileak gertakariak egiaztatzeke dauden probak eta ikasleak edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak agian erakutsi dituztenak baloratuko ditu, baita aurkeztu dituzten alegazioak ere; gertakariak argitu eta baloratzeko nahi dituen jardunbide guztiak egingo ditu eta, horiei buruzko ondorio batera iritsi ondoren, ebazpen-proposamen bat erredaktatuko du.

2.-Proposamena erredaktatu ondoren, horren berri emango zaio ikasleari, entzuteko tramiterako ezarritako epe eta baldintza berberetan egingo den beste agerraldi batean. Izanez gero, alegazio berriak jasoko dira eta proposamena, alegazio berriekin batera, zuzendariari helaraziko zaio.

### **153. artikulua.- Aparteko prozedurari bukaera emateko epea.**

1.-Aparteko prozedurak hamabost eguneko gehienezko epean bukatu behar du, interesatuari, edo guraso edo legezko ordezkariari, hasi dela aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita

2.-Abstentzioaren edo uko egiteko intzidentziak ebazteke pasa diren egunak, baita ikasleak edo guraso edo legezko ordezkariak eragindako alferrikako atzerapenetan galdutakoak ere, adierazitako epeari gehituko zaizkio.

3.-Zuzendariak hamar egun, gehienez ere, gehiago luzatu ahal izango du epea, instrukzioaren zailtasunak edo beste antzeko zirkunstantzia batzuek horrela eskatzen badute.

4.-Epea luzatzeko aukera hori pasa ondoren ebazpen-proposamena ez badago, prozedura iraungitza joko da, betiere interesatuak edo guraso edo legezko ordezkariak eragindako atzerapenak gertatu ez badira. Iraungitze hori ez da zigor-eremuan delitua edo hutsegite izan litezkeen egintzak edo ez egiteak Ministerio Fiskalari jakinarazteke eragozpena, zigorraren arlo horretan gertakariak baliogabe gertatu ez badira.

### **154. artikulua.- Espedientea ebatzi eta jakinaraztea.**

1.-Betiere arrazoitua izan beharko duen ebazpenak puntu hauek azaldu beharko ditu: ikasleari egozten zaizkion gertaerak, neurri zuzentzailea ezartzeko oinarriak, ardura agian aldatu ahal duten zirkunstantziak, neurrien edukia, aplikatzen hasi behar diren unea, erreklamazioa jartzeko organoa eta jartzeko epea.

2.-Ebazpena interesatuari edo guraso edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

3.-Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari emango zaio ebazpenaren berri, zuzendariak nahi duen eran.

4.-141. artikuluan adierazitako egoeretan Hezkuntza lurralde ordezkariari edo, behar izanez gero, gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaie.

## **IV. TITULUA: AUTONOMIA PEDAGOGIKOARI BURUZKOA**

### **155. artikulua.- Autonomia pedagogikoa.**

Hezkuntza-eta curriculum-proiektuen, ikastetxearen jarduera guztien oinarri direnen, onarpenean eta urteko programazio orokorrean, curriculumetan dauden edukiak kurtso bakoitzari aplikatuko dizkionean, konkretatuko da Ekialdea BHI In Euskal Eskola Publikoaren Legeak 45. artikuluan ezartzen duen autonomia pedagogikoa.

### **156. artikulua.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren helburuak.**

Apirilaren 19ko 160/1994 dekretuak (ekainaren 9ko EHAA) 6.1. eta 6.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Ekialdea BHIko ikasleei haien nortasuna erabat garatzeko aukera emango dien kalitateko erabateko prestakuntza ematea dute hezkuntza- eta curriculum-proiektuek helburu. Prestakuntza horrek puntu hauek sartzen ditu:

a) Eskubide eta askatasunen begirunean eta tolerantzia eta askatasunean, elkarbizitzaren printzipio demokratikoen barruan, oinarritutako prestakuntza.

b) Ohitura intelektual eta lan egiteko teknikak, baita ezagutza zientifiko, tekniko, humanistiko, historiko eta estetikoak ere, eskuratzea.

c) Ikasleen nortasuna eta erabateko prestakuntza askatasunean garatzea, elkarbizitza demokratikoa ahalbidetzen duten baloreetan finkatuz.

d) Ikasleek, Euskal Herriko kide diren aldetik, beren kultur identitatea aurkitzea, haien historia eta berezko kultura ezagutzuz eta haien ingurune geografiko, sozioekonomikoan eta kulturalean sustraitzea sustatuz.

e) Ikasle guztiek derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialak praktikan aukera-berdintasunean ezagutzea, euskararen erabilpena bultzatuz eta hizkuntza hau normaliza dadin laguntza emanez.

f) Afektibitatearen, autonomia pertsonalaren, autoestimua eta beste pertsonekin harremanak izateko gaitasunaren garapen harmonikoa.

g) Jarduera profesional, intelektual eta ludikoetan jarduteko gai izatea.

h) Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoaren garapena bermatuko dituen hezkuntza.

i) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko prozesuan parte hartzea.

j) Bakearen, askatasunaren eta herrien arteko lankidetzaren eta elkartasunaren ideiak sustatzearen aldeko prestakuntza.

### **157. artikulua.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua (IHP).**

1.-Ekialdea BHIren hezkuntza-proiektuaren bidez adierazten da eskola-erkidegoko sektoreek beren gain hartu duten hezkuntza-aukera. Aukera horrek oinarrizko balore eta helburuak identifikatuko ditu eta ikastetxearen jarduerak balore eta helburu horiek lortzera bideratuta egongo dira.

Hezkuntza-proiektua proiektu integratzaile gisa definituko da eta diskriminaziorik eza eta hezkuntza-integrazioa izango ditu, besteak beste, oinarrizko baloreen artean.

2.-Hezkuntza-proiektuak, gutxienez, puntu hauek azalduko ditu:

a) Ingurunearen eta hezkuntza-helburuak definitzen diren gainontzeko baldintzen azalpena.

b) Ikastetxearen jarduera definituko duten oinarrizko helburu eta lehentasunak; ondorengoak, besteak beste:

- Curriculum-proiektuan aurrera eraman behar diren ikastetxearen curriculum-helburuak, ildo pedagogikoa besteak beste.

- Eskola-bizitzan parte hartzeko eredua. Eredua horretan ikastetxearen funtzionamendua arautuko duten printzipio orokorrak agertuko dira.

- Inguruko gizartearekiko lotura.

- Ikastetxeak aurrera eramango dituen proiektuak: eskola-erkidegoko kide desberdinei prestakuntza emateko, hezkuntza-berriztapenekoak, aniztasunari arreta emateko, beste ikastetxe eta instituzio batzuekin lankidetzan jarduteko edo epe ertainera ikastetxearen hezkuntza-jarduera definitzen duten beste batzuk.

- Euskararen normalkuntza lortzera bideratutako orientabideak.

3.-Irakasleak prestatzeko jarduerak zuzenean lotuta egongo dira ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta irakasle-taldearen ezaugarriekin.

### **158. artikulua.- Ikastetxearen curriculum-proiektua (ICP).**

1.-Ekialdea BHIren curriculum-proiektuak hezkuntza-proiektua irakaskuntza-arloan gauzatzen du. Gutxienez, puntu hauek sartuko ditu:

a) Irakaskuntzaren helburuak eta edukiak, arlo guztietan ikasleen premietara egokituak, baita ikastetxean indarrean dauden irakaskuntza elebidunaren ereduak aplikatzeari lotutakoak ere.

b) Irakaskuntzaren edukien banaketa.

c) Ikastetxeko irakasle desberdinek lanean jarraitzea bermatuko duten irizpide pedagogiko eta didaktikoak zehaztea.

d) Metodologia didaktikoaren eta curriculum-materialen aukerak.

e) Hezkuntza-premia berezien tratamendua.

f) Ebaluazio-irizpideen konkretzioa eta osagarritasuna.

2.- Ekialdea BHIren ikastetxearen curriculum-proiektuak derrigorrean hartuko ditu DBHko etapa guztiak eta Batxilergoa, urtarrilaren 23ko 25/1996 dekretuak, 1997ko ekainaren 27ko aginduak eta 1997ko apirilaren 29ko 97/1997 dekretuak xedatutakoaren arabera.

### **159. artikulua.- Hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua lotesleak dira**

1.-Irakasle-taldeak maila desberdinetan, departamentu didaktikoak eta irakasleak Ekialdea BHIren hezkuntza- eta curriculum-proiektuetara lotuta egongo dira eta, kide guztiak errespetatuz, eskola-jarduerak egin eta programatzeko nahi dituzten erabakiak hartu ahal izango dituzte, baita jardueren programak ezagutza-arloetan aplikatzeko ere. Ikastetxeko klaustroak eta Eskola Kontseiluak hartzen diren erabakiak berrikusi ahal izango dituzte, haien eskuduntzen arloan.

2.-Bi aurreko artikuluen proiektuetan agertzen diren erabakiak izan beharko dituzte oinarri ikastetxearen urteko planean sartuta dauden irakaskuntza-jardueren eta prestakuntza-, eskolaz kanpoko eta jarduera osagarrien programek. Ekialdea BHIren gobernu-organismoek eta, Ordezkaritza Organo Gorena den aldetik, Eskola Kontseiluak batez ere, etengabe egingo dituzte



ahaleginak, ikastetxearen jarduera betiere hezkuntza-proiektuan adierazitako oinarritzko helburuak lortzera bideratu dadin.

### **160. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Plana (IUP) (PAC).**

1.-Ondorengoek osatuko dute Ekialdea BHiren urteko plana:

- a) Irakaskuntza-jardueren programak.
- b) Prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programak.
- c) Urteroko kudeaketa-programak.

2.-Zuzendaritza taldeak du Ikastetxearen Urteko Plana egiteko prozesua koordinatzearen ardura. Horretarako, kide anitzeko organoaren laguntza izango du.

3.-Ekialdea BHiko Eskola Kontseiluak onartu behar du IUP, irakaskuntza-jardueren programaren arloan Euskal Eskola Publikoaren Legeak klausuroari ematen dizkion eskuduntzen kalterik gabe.

### **161. artikulua.- Irakaskuntza-jardueren programa.**

1.-Irakasleen Klausuroak onartuko du hezkuntza- eta curriculum-proiektuekin bat datorren irakaskuntza-jardueren programa.

2.-Irakasleen Klausuroak ere egin dezake programa hori eta ikastetxearen koordinazio pedagogikoaren batzordean eskuordetu ahal du.

3.-Programa horretan agertuko dira ikastetxeak, irakaskuntza-ikuspuntutik, ikasturtean aurrera eraman behar dituen helburuak eta jarduerarik inportanteenak. Halaber, eskola-jarduera martxan jartzeko erabakiak azaldu behar ditu, dauden baliabideak eta ikasleak kontuan hartuta.

4.-Irakaskuntza-jarduerak puntu hauek sartu behar ditu:

- ikasleak taldekatzeko irizpideak.
- tutoretzak izendatu eta taldeak eta ordutegiak esleitzea.
- hezkuntza-premia berezietako ikasleei laguntza emateko prozesua antolatzea eta, oro har, aniztasunaren tratamenduari lotutako neurri guztiak.
- errefortzua antolatzea zailtasunak dituzten ikasleentzat.
- ebaluazioaren datak.
- ikastetxean dauden espazio komunen banaketa.
- kurtso, ziklo eta etapen artean koordinatzeko irizpideak.
- departamentu didaktikoen artean koordinatzeko neurriak eta diziplinartekotasuna.
- baliabide didaktikoen antolaketa.
- Ikastetxearen autoebaluazioaren plangintza, kalitatea hobetzeari begira: irizpideak, uneak, tresnak, eragileak...

### **162. artikulua.- Ikastetxeek testuliburuak eta beste curriculum-material batzuk erabiltzea.**

1.-Curriculum-proiektura hobeto egokitzen diren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendu dituen curriculum-materialak erabili ahal izango ditu Ekialdea BHik.

2.-Departamentu didaktikoek, beren proiektuaren eta antolaketa-eskemaren arabera, hartuko dute testuliburuak eta curriculum-materialak aukeratzeko erabakia.

3.-Ikasle taldeak zikloa edo etapa bukatu arte ezin izango dira aldatu departamentu didaktiko batek aukeratutako curriculum-materialak.

4.-Edonola ere, lau ikasturtetan, gutxienez, egongo dira indarrean arlo edo irakasgai baterako aukeratzin diren testuliburuak eta curriculum-materialak edo talde, kurtso, ziklo edo etapa bakoitzerako materiala, justifikatutako arrazoiengatik finkatutako epea baino lehenagoa aldatu behar diren kasuetan izan ezik. Aldaketa Hezkuntza Ikuskaritzaren aldeko txostenaren arabera eta ikastetxearen eskariz egingo da. Xedapen hau ere aplikatu ahal izango da funtzio hori duten eta ikasleek, oro har, erabiltzen dituzten material multimedia horietarako.

### **163. artikulua.- Prestakuntza-jardueren, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa.**

1.-Prestakuntza-jarduerak, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak bat etorri beharko dute ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin eta curriculum-proiektuarekin.

2.-Jarduera horien plangintzan helburuak, arduradunak, parte-hartzaileak, egiteko unea eta tokia, baita ikasleek parte hartzeko era ere, definituko dira.

3.-Zuzendaritza-taldeak, Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren laguntzarekin, egin behar du Ikastetxearen Urteko Planaren zati hau eta Eskola Kontseiluak onartuko du.

### **164. artikulua.- Prestakuntza-jarduerak.**

Ekialdea BHIk ikasturtean egin behar dituen jarduerak prestakuntza-programara sartuko ditu. Formulatzin diren proiektu eta programak, aldeztu aurretik deliberratu ondoren eta irakasleen klustroaren proposamenez, hezkuntza-administrazioari aurkeztuko zaizkio, honek, Hezkuntza Ikuskaritzak aldeztu aurretik txostena egin ondoren, proiektuak edo programak eragin ahal dien alderdi desberdinak arautzin dituzten araudien araberrakoak diren edo ez erabaki dezan, zehatzen diren curriculum-edukien araberrakoak batez ere. Haietan ikastetxearen giza baliabideak eta instalazio teknikoak hartu beharko dira kontuan.

### **165. artikulua.- Eskola-jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak.**

1.-Jarduera “osagarriak “ horrela definitu ahal ditugu: klaseak ematea ez diren eskola-jarduera horiek, klase orduategian egiten direnak eta curriculumarekin lotura zuzena dutenak. Ikasleek derrigorrean hartu beharko du jarduera horietan parte, betiere eskola-esparruan egiten badira. Eskola-esparrutik at egiten badira, ikastetxeak arreta eman beharko die arrazoi justifikatuengatik jarduera horietan parte hartzin ez duten ikasleei. Oro har, dohainikakoak izango dira ikasleentzat eta jarduera horiek eragiten dituzten ondorio ekonomikoek kudeaketaren urteko programan agertu beharko dute.

2.-“Eskolaz kanpoko jarduerak “horrela definitzin ditugu: eskola-esparruan edo eskola-esparrutik at klase-orduetatik kanpo egiten diren hezkuntza-jarduera horiek eta, hezkuntza-helburua izan arren, ez dute ezarritako eskola-curriculumarekin harreman zuzenik. Borondatezkoak izango dira ikasleentzat, prestazio ekonomiko bat exijitu ahal izango da eta ezin izango dute diskriminaziorik ekarriko.

3.-Ikastetxea dagoen herritik at egiten diren jardueretarako ikasleen gurasoek edo legezko ordezkariak aldeztu aurretik eman beharko dute baimena.

4.-Hezkuntza-zerbitzuak garraioa eta eskola-jantokia dira. Ikasleek ez dituzte derrigorrean erabili behar, kontraprestazio ekonomikoa eskatu ahal izango da eta ezin izango dute inolako diskriminaziorik ekarriko.

5.-Prestakuntza- eta jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoen programan sartuko dira jarduera horien guztien planifikazioa, baita era indibidualean edo kolektiboan jarduera horien ardura hartu beharko duten irakasleak ere, edo, gutxienez, izendatzeko irizpideak. Edonola ere, irakasleek ez dute eskolaz kanpoko jardueretan derrigorrean parte hartu beharko.

6.-Salbuespen gisa, Eskola Kontseiluak, edo Batzorde Iraunkorrak, eman ahal izango du programa egin zen unean aurreikusteko modukoak ez ziren jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak egiteko baimena.

#### **166. artikulua.- Ikastetxearen Urteko Memoria.**

1.-Ekialdea BHIk ekainaren azken astean eta, jarraipen gisa irailean, labur eta zehatz egin beharko du bukatutako ikasturtearen memoria. Memoria horrek puntu hauek adierazi beharko ditu, diseinatutako plan desberdinen analititik abiatuz: zein mailatan betetzen diren?; lortutako eskola-eremak; ikastetxeak jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea; autoebaluazioaren ondorioak eta, egindako jardueri begira, interesgarritzat jotzen direnak. Gauzak horrela, hobeto jarduteko proposamenak egingo dira, hurrengo ikasturteko plan eta programak egiteko.

2.-Zuzendaritza-taldeak izango du Ekialdea BHIren memoria egitearen ardura eta Eskola Kontseiluak onartu beharko du. Eskola Kontseiluko kideek eduki beharko dute testua, eztabaidatu eta onartu baino hamabost egun lehenago.

## **V. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA**

### **I. KAPITULUA.- PRINTZIPIO OROKORRAK.**

#### **167. artikulua.- Printzipio orokorrak.**

Euskal Eskola Publikoaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoa betetzeko asmoz eta errendimendua akademikoa era objektiboan ebaluatzeko ikasleen eskubidea behar adina bermatzeko, Ekialdea BHIk titulu honetan ezarritako bermeen sistema erabiliko du, publizitate, informazio eta gardentasunaren printzipioetan oinarritua eta azken kalifikazioen kontra erreklamazioa jartzeko aukera izatearen bermearekin.

#### **168. artikulua.- Publizitatea.**

1.-Ikasleek eta beren legezko ordezkariak Ekialdea BHIko curriculum-proiektura sartzeko aukera edukitzea bermatu beharko du ikasketa-buruak. Curriculum horrek helburuak, edukiak eta arlo edo irakasgai bakoitzean lortu beharreko oinarritzko gaitasunak adieraziko ditu.

2.-Halaber, departamentu didaktikoen eta irakasleek arlo eta irakasgai desberdinak gainditzeko exijitzen diren gutxienezko edukiak, ebaluatzeko aplikatu ahal diren prozedura eta irizpideak eta berreskuratzeko eta laguntzeko prozedurak aditzera emango dituztela bermatu beharko du ikasketa-buruak.

3.-Ikasketa-buruak publizitate hori adin txikiko ikasleen guraso edo legezko ordezkariengana iritsiko dela bermatuko du.

### **169. artikulua.- Ikasleei eta gurasoei eman beharreko informazioa.**

1.-Irakasleen eta ikasleen guraso edo legezko ordezkarien arteko komunikazioa arin eta egonkorra dela bermatu behar du ikasketa-buruak, irakatsi eta ikasteko jardueri eta, bereziki, eskola-errendimenduari lotutako informazio guztia ezagutu dezaten.

2.-Tutorearen eginbeharren kalterik gabe, irakasleak derrigorrean eman beharko die, banaka, ikasleei edo haien legezko ordezkariari aurreko atalean aipatutako alderdiei buruz eskatzen dioten informazio guztia, ezin izango dio eskaerari ezetz esan. Irakasle guztiek eginbehar hori betetzen dutela bermatu beharko du ikasketa-buruak.

3.-Irakasle tutoreen, gutxienez, eta taldeko ikasleen gurasoen arteko bilerak egiten direla bermatu beharko du ikasketa-buruak. Bilera horiek urtean behin egin beharko dira eta behar den guztietan, gurasoen heren batek baino gehiagok edo taldeak eskatzen badute. Bilera horietan goian aipatutako alderdiak adieraziko dira, baita alderdi horiei begira ikasle taldeen egoera orokorra ere.

4.-Aurreko ataletan aipatzen diren prozeduren bidez transmititu ahal den informazioaz gain, tutoreek idatziz jakinaraziko diete gurasoei edo ikasleen legezko ordezkariari, ebaluazio-bileretarako ICPn ezartzen den gutxienezko periodikotasunarekin, bilera horietan erabakitzen den informazioa eta, horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte, hartzaileek informazioa benetan jaso dutela segurtatzeko.

5.-Era berean, ziklo eta kurtso amaierako bileren ondoriozko informazioa helaraziko du ikasketa-buruak. Informazioa, gutxienez, ondorengo alderdiei buruzkoa izango da.

- Etaparen eta arloen helburu orokorrak zein mailatan lortu diren adieraztea.
- Arlo edo irakasgai desberdinen edukiak zein mailatan bereganatu dituzten ikasleek adieraztea.
- Kalifikazio partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
- Behar izanez gero, hezkuntza-neurri osagarriak aplikatzea.

Txosten horietan, gainera, arrazoitu beharko da ikaslea kurtso batera pasatzeko edo aurrekoan jarraitzeko erabakia eta tutoreak erredaktatuko ditu, irakasle-taldeak aldeztu aurretik deliberatu ondoren, ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo irakasgaietako irakasleen proposamen edo txostenak kontuan hartuta. Txosten horiek, ikastetxean egongo direnek, hurrengo ziklo edo kurtsoa irakatsi eta ikasteko prozesua orientatuko dute eta izango dira irakasleek, beren gela-programazioak egokitzeko, kontuan hartu beharko duten abiapuntua.

### **170. artikulua.- Lan, proba eta zuzendutako ariketak berrikustea.**

1.-Ikasleek eta, behar izanez gero, beren gurasoek eta legezko ordezkariak izango dute errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba, azterketa eta ariketa guztiak ikusteko eskubidea eta, aldeztu aurretik eskatu ondoren, haien kopia bat lortu ahal izango dute, ariketak zuzendu eta kalifikatu ondoren.

2.-Ikasketa-buruak ezarriko du kopiak eskatzeko prozedura, oro har ahozko eskaerei ahoz erantzun beharko zaiela eta idatzizko eskaerei idatziz erantzun beharko zaiela kontuan hartuta. Ondoko prozedura egingo da:

## **AZTERKETEN ERREBISIOA ETA KOPIAK LORTZEKO PROZEDURA**

Ikasleak azterketa ikusi eta irakaslearekin komentatuko du, hori da azterketen errebisioaren alderik inportanteena.

Gurasoek azterketaren emaitzak jakin ondoren azterketa ikus dezakete eta eskatzen diren argibideak emango zaizkie.

Ezohizko neurri moduan, noten boletina banatu ondoren, gurasoek bost eguneko lektiboko epean ebaluazio horri dagozkion azterketen kopiak lor ditzakete eskaera idatzi baten bidez.

Gurasoek azterketen kopiak lortzeko egin beharreko urratsak ondokoak dira:

a) Gurasoek idatzizko eskaera aurkeztuko dute Idazkaritzan, bertan jasoko duten inprimakia betez.

b) Irakaslea gurasoekin jarriko da harremanetan, bere guraso-orduan, seme-alabek egindako azterketaren kopia eman diezaien.

### **Oharra:**

Batxilergoari dagokion arautegia **Batxilergoko** ebaluazioa arautzen duen Ordenaren zain dago.

3.-Zuzenketa ezin da kalifikazio kuantitatibo edo kualitatibo bat adieraztera mugatu. Horretaz gain, egindako akats edo hutsegiteak azaldu beharko ditu edo kalifikazioaren zergatia azaldu beharko du.

### **171. artikulua.- Ariketa konkretuen kalifikazioei erreklamazioak egitea.**

Ikasleek edo haien legezko ordezkariak ahoz egin ahal izango dituzte alegazioak eta egindako lan edo probak berrikusteko eskatu ahal izango dute, bi klase-eguneko epe batean, haien kalifikazioa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Alegazioak edo eskaerak irakasle bakoitzari egingo zaizkio eta honek beronek ebatziko ditu, behar izanez gero departamentu didaktikoaren aholkularitzarekin. Horretarako, curriculum ofiziala eta ICP ez ezik, departamentu didaktiko desberdinen programazioak, gela-programazioak eta aditzera eman diren kalifikazio-irizpideak ere hartuko ditu kontuan.

### **172. artikulua.- Ebaluazio partzialei erreklamazioak egitea.**

1.-Ikasleek ahoz edo idatziz erreklamatu ahal izango dituzte ebaluazio-aldi bakoitzaren kalifikazioak, irakasleari berari zuzenean edo irakasle tutorearen esku-hartzearen bidez. Irakasleak ahoz edo idatziz eman beharko die erreklamazio guztiei erantzuna, erreklamazioa nola aurkeztu den eta aurreko artikulua azken paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta.

2.-Haien erreklamazioa onartu ez dela uste baldin badute, departamentu didaktikoaren esku-hartzea eskatu ahal izango dute, zuzenean edo tutorearen bidez, ikasleek. Departamentu didaktikoak proposatutako azterketa programaziora egokitzen den eta departamentuan erabakitako irizpideak zuzen aplikatu diren egiaztatu besterik ez du egingo eta ahoz edo idatziz, erreklamazioa egin den era berean, emango dio horren berri erreklamazio-egileari.

3.-Ebaluazio partziala tramite hutsa besterik ez da eta, horregatik, ezin izango da geroago kalifikazioaren kontra helegiterik jarri, irakasleak departamentuaren irizpidearen kontra kalifikazio horri eutsi arren. Edonola ere, azken ebaluazioaren kontra egin daitekeen erreklamazio bat ebaztean hartu beharko da irizpide hori kontuan.

### **173. artikulua.- Kalifikazioak justifikatzeko agiriak gordetzea.**

1.-Ikasturtearen edozein unetan proba, lan eta ariketak ikusi ahal izateko, irakasleek eskola-aldi guztian gorde beharko dituzte ikastetxean eta, gutxienez, ikasturtearen azken ebaluaziotik erreklamazioak egiteko epea pasa eta hiru hilabetera.

2.-Epe hori pasa ondoren, suntsitu ahal izango dira edo ikasleei entregatu ahal izango zaizkie, betiere ebazteko agiri horiek kontuan hartu behar diren erreklamaziorik gertatu ez bada. Ondorio horietarako, erreklamazioak aipatzen dituen ariketak eta erreklamatzeko duen ikaslearen kalifikazio bera lortu duten ikasle horienak hartu beharko dira kontuan.

3.-Edonola ere, erreklamazio bat ebazteko kontuan hartu behar diren ariketak edo agiriak kontserbatu beharko dira, gai horri buruzko administrazio-ebazpen edo epailearen egintza bat gerta daitezkeen bitartean.

### **174. artikulua.- Azken kalifikazioei erreklamazioa egitea.**

1.-Azken kalifikazioak argitara eman aurretik, irakasle bakoitzak, ikasketa-buruak onartutako ordutegian, berrikusteko saio bat deituko du. Saio horretan, ikasle bakoitzari bakarka, haren ustez, merezi duen kalifikazioa adierazi ondoren, ikaslearen adostasuna edo desadostasuna azaltzeko adierazpenak entzungo ditu eta aurreikusitako kalifikazioa, haren irizpidearen arabera, berretsi edo berrikusiko du.

2.-Aurreko atalean adierazitako saioan desadostasuna adierazi arren kasurik egin ez zaien ikasleek izango dute 48 orduko epe bat erreklamatzeko, kalifikazioak formalki entregatzen diren unetik kontatzen hasita, Idazkaritzan entregatuko duten ikasketa-buruarentzako idazki baten bidez. Idazki horretan puntu hauek argi azalduko ditu: erreklamazioa jartzen zaion kalifikazioa, irakasleak, ustez, izateko eskubidea duen kalifikazioa eta, haren iritziz, erreklamazioa justifikatzen duten arrazoiak.

Ikasleak sartu ahal izango ditu ariketa konkretuen edo ebaluazio partzialen kalifikazioei egindako alegazio edo erreklamazioak, ez badira haren alde ebatzi eta azken ebaluazioaren emaitzan eragina izan badute.

3.-Ikasketa-buruak departamentu didaktikoaren deliberazioa hartuko du kontuan erreklamazioa ebazteko orduan eta departamentu didaktikoak proposatutako probak onartutako irakasgaiaren programaziora egokitzen diren eta erabakitako ebaluazio-irizpideak behar bezala aplikatu diren aztertuko ditu. Haren ebazpenean, irakasleak emandako kalifikazioaren aldekoa edo kontrakoa izan daitekeena, ebaluazio partzialei egindako erreklamazioen kasuan emandakoa urreko txostenak hartu beharko ditu kontuan.

Halaber, antzeko egoeran egon litezkeen gainontzeko ikasleei emandako kalifikazioak hartu beharko dira kontuan.

4.-Klasean ahoz izandako esku-hartze soilak, behar adina dokumentatuta geratu ez badira, ezin izango dira kalifikazio negatibo bati eusteko oinarri, azken ebaluazioen kontra erreklamazioa jartzen denean.

5.-Departamentuak bi eguneko gehienezko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz jartzen denetik kontaktzen hasita.

### **175. artikulua.- Departamentu didaktikoaren erabakiaren ondorioak.**

1.-Departamentu didaktikoak ikasketa-buruari helaraziko dio erabakia eta honek interesatuari jakinaraziko dio.

2.-Ikaslearen erreklamazioa aintzat hartzen bada, ikasketa-buruak zuzendariari jakinaraziko dio, dokumentazio akademikoa zuzentzeko asmoz.

3.-Erreklamazioa atzera botatzen bada, ikasleak, oraindik ez badago ados, idatziz aurkeztu ahal izango dio zuzendariari erreklamazioa eta honek hezkuntza-administrazioari helaraziko dio, ebazteko.

## **AZKEN XEDAPENA.**

Antolaketa eta Jarduera Araudi honen edukian prozeduraren arloan xedatzen ez den guztian, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen indarreko legeak aplikatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, Junio de 2009/2009ko ekaina